MADDI ALTUNA ODRIOZOLA (1. guztira 1)
Ingurumen Zerbitzuko Arduraduna
Sinaduraren data: 16/06/2025
HASH: 3871c9d9521c6558964d9f4dd2b70447

ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA eta ZERBITZURAKO IBILGAILUEN HORNIDURA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1 KONTRATUAREN XEDEA 5
2 KONTRATUAREN IKUSPUNTUA ETA BALDINTZA OROKORRAK 7
3 ZERBITZUEN SAILKAPENA 10
4 BILDU ETA GARRAIATU BEHARREKO HONDAKINAK 12
5 LURRALDE EREMUA 13
6 ZERBITZUAREN ORDENANTZA 14
7 BILDUTAKO MATERIALEN JABEGOA 15
8 EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK 16
8.1 HONDAKINAK ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIEN BITARTEZ BILTZEA 16
8.2 HONDAKINAK GAIKA BILTZEA LANDA INGURUNEETAKO EKARPEN PUNTUETAN, EKARPEN GUNEEN (EG) ETA MINIGUNEEN (MG) BITARTEZ, ESKORIATZA, LEINTZ-GATZAGA, ETA OÑATIKO UDALERRIETAN 22
8.3 ETXEKO HONDAKINAK GAIKA BILTZEA ATEZ ATE (ANTZUOLAKO ETA OÑATIKO UDALERRIAK) 23
8.4 ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA BEREZITUKO ZERBITZUAK KOMERTZIOETAN, ZERBITZUETAN ETA ERAKUNDEETAN 27
8.5 KARTOI KOMERTZIALAREN ETA INDUSTRIALAREN GAIKAKO BILKETA 30
8.6 PILA ERABILIAK 10 LITROKO ONTZIETAN BILTZEA BAIMENDUTAKO ESTABLEZIMENDUETAN 33
8.7 IBILGAILUAREN BITARTEZ EDUKIONTZIAK GARBITZEKO ZERBITZUAK 34
8.8 BI GURPILDUN EDUKIONTZIEN GARBIKETA EKARPEN GUNEAN 38
8.9 ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK DITUZTEN HIRIGUNEKO EKARPEN GUNEEN GARBIKETA ETA PAPER-KARTOIAREN FRAKZIOKO EDUKIONTZIEN KANPOKO GARBIKETA 40
8.10 IRISTEKO LEKU ZAILETAN DAUDEN ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK HARTZEKO ZERBITZUA 40
8.11 ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIEN KANPOALDEAN UTZITAKO HONDAKINEN AURRE-BILKETA 42
8.12 IBILGAILU, ESEKITOKI ETA LG ETA MG GUNEETAN KOKATUTAKO EDUKIONTZIEN MANTENTZE LANAK. 42
8.13 AZOKA, JAI ETA EKITALDIETAN SORTZEN DIREN HONDAKINEN BILKETA 46
8.14 AZOKA ETA AZOKA TXIKIETAN SORTUTAKO HONDAKINEN BILKETA 47
8.15 KALE GARBIKETAREN HONDAKINEN BILKETA 49
8.16 BOLUMEN HANDIKO GAUZAK GAIKA BILTZEA 50
8.17 “KALITATE KONTROLA” ZERBITZUA-E40 54
8.18 KONTRATUA ONDO BETETZEKO ZUZENDARITZA, KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA LANAK 56
8.19 LANGILEAK DAGOZKIEN LANETAN ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO LANAK 56
8.20 MANKOMUNITATEARI INFORMAZIO EMATEKO ZEREGINAK 59
8.21 IBILGAILUEN FLOTA KONTROLATZEKO ETA HONDAKINAK ZUZEN BILTZEKO ZEREGINAK 60

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 80

8.22 IBILGAILU-FLOTA BERRITZEA IBILGAILU BERRIEN EROSKETAREN BITARTEZ 62
9 ZERBITZUAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK 64
9.1 BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO LANAK 64
9.1.1 Kalitatearen Kudeaketa Zerbitzuaren prestazioan: gorabeheren jakinarazpena, edukiontziak husteko maiztasuna eta informazio osagarria. 64
9.1.2 Garbitasuna eta segurtasuna zerbitzuak egitean 66
9.1.3 Ekarpen eremuen eragin eremuak 67
9.1.4 Lurpeko edukiontziak 68
9.1.5 Bilketa ordutegi eta egutegiak 69
9.1.6 Pisaketa sistemak 70
9.1.7 Edukiontzien, esekitokien eta bilketa puntuen kokapena 71
9.1.8 Entrega zentroak 71
9.2 LAN OSAGARRIAK 72
9.2.1 Objektu galduen bilaketa 72
9.2.2 Bilketarako ibilgailuak mantendu, konpondu eta garbitzea 73
9.2.3 Edukiontziak garbitu eta desinfektatzea 73
9.2.4 Edukiontzi, ontzi eta esekitokien parkea 75
9.2.5 Edukiontzi, ontzi eta esekitokiak mantendu, kontserbatu eta konpontzea 76
9.2.6 Edukiontziak eta ontziak jaso, lekualdatu, kokatu eta entregatzea 78

ERANSKINAK:

I. Eranskina: Ibilbideen diseinua zerbitzuko eta lantaldeko (bilketa puntuak)

ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIEN GAIKAKO BILKETARAKO ZERBITZUAK

I.I. Eranskina: E81 lantaldea – Frakzio organikoaren edukiontzien bilketa Arrasaten eta Elgetan, eta errefusa frakzioarena Arrasaten.
I.II. Eranskina: E82 Lantaldea – Ontzi arinen frakzioaren edukiontzien bilketa Arrasaten eta Elgetan.
I.III. Eranskina: E83 Lantaldea – Paper-kartoiaren frakzioaren edukiontzien bilketa Arrasaten eta Elgetan.
I.IV. Eranskina: E84 lantaldea – Frakzio organikoen bilketa Aretxabaletan, Bergaran eta Eskoriatzan, eta errefusa frakzioarena Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
I.V. Eranskina: E85 lantaldea – Ontzi arinen frakzioaren edukiontzien bilketa Aretxabaletan, Bergaran eta Eskoriatzan.
I.VI. Eranskina: E86 lantaldea – Paper-kartoiaren frakzioaren edukiontzien bilketa Aretxabaletan, Bergaran eta Eskoriatzan.
I.VII. Eranskina: E94 lantaldea – Errefusa frakzioaren bilketa Bergara eta Elgetan.

ATZEKO KARGAKO EDUKIONTZIEN GAIKAKO BILKETARAKO ZERBITZUA LANDA IZAERAKO EKARPEN PUNTUETAN

I.VIII. Eranskina: E04 Lantaldea– Landa izaerako ekarpen puntuetan hondakinak biltzea Oñatin[1]
I.IX. Eranskina: HZA Lantaldea– Landa izaerako ekarpen puntuetan hondakinak biltzea Antzuolan, Leintz-Gatzagan eta Eskoriatzan

[1] Ekarpen-puntuari dagozkion hondakinak biltzeaz gain, zerbitzu honek ibilbide berean dauden saltoki, ostalaritza eta erakundeek sortutako hondakinak bilduko ditu

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 80

ETXEKO HONDAKINEN ATEZ ATEKO BILKETARAKO ZERBITZUA[2]

I.X. Eranskina: E01-E02 Lantaldea – Herritarren atez ateko bilketa Oñatin.
I.XI.Eranskina: E06 Lantaldea – Pixoihalean atez ateko aurrebilketa Antzuolan eta Oñatin.

GAIKAKO BILKETA BEREZITUKO ZERBITZUAK DENDETAN, ZERBITZUETAN ETA ERAKUNDEETAN[3]

I.XII. Eranskina: E03 Lantaldea – Dendetako hondakinen atez ateko bilketa Oñatin[4].
I.XIII.Eranskina: E05 Lantaldea – Hondakin sortzaile handien frakzio organikoaren atez ateko bilketa larunbatetan Oñatin.
I.XIV. Eranskina: E17-61 Lantaldea – Aretxabaleta, Bergara, eta Eskoriatzako hondakin sortzaile handiek (asteartea, osteguna eta larunbata) eta Bergara eta Oñatiko azokak (larunbata) sortzen dituzten hondakinen errefusa frakzioen atez ateko bilketa.
I.XV. Eranskina: E41-42 Lantaldea – Arrasateko hondakin sortzaile handiek (asteartea, osteguna eta larunbata) sortzen dituzten hondakinen frakzio organikoaren atez ateko bilketa.

KARTOI KOMERTZIALAREN ETA INDUSTRIALAREN GAIKAKO BILKETARAKO ZERBITZUAK[5]

I.XVI.Eranskina: E07 Lantaldea – Kartoi komertzialaren eta industrialaren atez ateko bilketa Oñatin (astelehen, asteazken eta ostirala).
I.XVII. Eranskina: E08 Lantaldea – Kartoi komertzialaren eta industrialaren atez ateko bilketa Antzuolan, Bergaran eta Elgetan (astelehen, asteazken eta ostirala).
I.XVIII.Eranskina: E09 Lantaldea– Kartoi komertzialaren bilketa Bergarako hiri gunean (astelehen, asteazken eta ostirala).
I.XIX.Eranskina: E26 eta 27 Lantaldeak – Kartoi komertzialaren eta industrialaren bilketa Arrasaten (astearte, ostegun eta larunbata).
I.XX.Eranskina: E35 Lantaldea – Kartoi komertzialaren eta industrialaren bilketa Aretxabaletan eta Eskoriatzan (astearte, ostegun eta larunbata).

ZERBITZU OSAGARRIAK ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIETARAKO (AURREBILKETA ETA EDUKIONTZI GARRAIATZAILEAK)

I.XXI.Eranskina: E89 Lantaldea – Zerbitzu osagarriak gauez (Arrasate eta Elgeta).
I.XXII.Eranskina: E90 Lantaldea – Zerbitzu osagarriak egunez (Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatza)

BESTE BILKETA ZERBITZU BATZUK

I.XXIII.Eranskina: HTZ Lantaldea – Bolumen handiko objektuen bilketa puntuak herriz herri.
I.XXIV.Eranskina: HTZ Lantaldea – TEEHk bereizteko edukiontzien identifikazioa

[2] HZA lantaldearen bilketa puntuak I.IX Eranskinean daude integratuta (HZA Lantaldea).
[3] HZA lantaldearen bilketa puntuak I.IX Eranskinean daude integratuta (HZA Lantaldea).
[4] Zerbitzu horietarako ez dira ibilbide zehatzak aurkezten, oso zerbitzu desberdinak baitira prestazioari dagokionez, asteko zein egunetan egiten diren. Edonola ere, orientazio moduan, lan aste baterako izan daitezkeen bilketa puntuak gehitzen dira.
[5] Zerbitzu horietarako ez dira ibilbide zehatzak ezta biltzeko maiztasun sekuentziak ere aurkezten, oso zerbitzu desberdinak baitira prestazioari dagokionez, asteko zein egunetan egiten diren. Edonola ere, orientazio moduan, lan aste baterako izan daitezkeen bilketa puntuak gehitzen dira.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 80

EDUKIONTZIEN GARBIKETA ZERBITZUAK

I.XXV.Eranskina: E87 Lantaldea – Alboko kargako edukiontzien garbiketa gauez.
I.XXVI.Eranskina: E88 Lantaldea – Alboko kargako edukiontzien garbiketa egunez.
I.XXVII.Eranskina: E62-E63 Lantaldeak – Atzeko kargako edukiontzien garbiketa + alboko kargako edukiontzidun ekarpen eremuen garbiketa kanpotik.

II. Eranskina: Hondakinen tarteko pisaketa zentroen eta hondakinen entrega zentroen lokalizazioa, frakzioko (entrega ordutegiak sartzen dira).

III. ERANSKINA: Edukiontziak, esekitokiak, ekarpen guneak eta pilak jasotzeko baimena duten establezimenduen zerrenda.

III.I. Eranskina: Alboko kargako edukiontzien lokalizazioa.
III.II. Eranskina: Atzeko kargako edukiontzien lokalizazioa landa inguruneko Ekarpen Guneetan (EG eta MG) eta Larrialdi Guneetan (LG)
III.III. Eranskina: Esekitokien lokalizazioa Antzuolako eta Oñatiko udalerrietan.
III.IV. Eranskina: Pilak jasotzeko baimena duten establezimenduen zerrenda.

IV. Eranskina: Kontratua gauzatzeko kontratistaren esku jarritako bitarteko materialak (ibilgailuak).

V. Eranskina: Bilketarako, garbiketako eta zerbitzu osagarrietarako ibilgailuen erabilera eta garbiketarako programazioaren proposamena.

VI. Eranskina: Debagoienan instalatutako alboko kargako edukiontzien zehaztapen teknikoak.

VII. Eranskina: Debagoieneko Mankomunitateko etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren lizitazioaren esparruan, Debagoieneko eskualdean hondakinak biltzeko eta garraiatzeko erabiliko diren ibilgailuak erosteko baldintza teknikoen agiria.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 80

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xeda da **etxeko hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu hauek** ematea:

a. Hondakinen errefusaren, paper eta kartoiaren, ontzi arinen eta gai organikoen frakzioak gaika biltzea edukiontzien bitartez, eta material horiek Debagoieneko Mankomunitateak ezartzen duen entrega zentrora eramatea, modalitate hauetan:

   i. Herritarrek, dendek eta erakundeek erabiltzeko diren alboko kargako edukiontziak, nagusiki bizitegi erabilerarako hiri lurzoruan kokatuta.
   ii. Atzeko kargako edukiontziak, nagusiki landa gunean kokatuak eta gune horietan sortzen diren hondakinak kentzekoak. Edukiontzi horiek ekarpen puntu desberdinetan banatuta daude, esaterako, Ekarpen Guneetan (EG)[6] eta Miniguneetan (MG)
   iii. Atzeko kargako edukiontziak, hirigunean kokatuta, eta Larrialdi gunea (LG).

b. Hondakinen errefusaren, paper eta kartoiaren, ontzi arinen eta gai organikoen frakzioak gaika biltzea atez ate, eta material horiek dagokien entrega zentrora eramatea, leku hauetatik:

   i. Antzuola eta Oñatiko udalerrietan hiri gunean kokatutako etxeak.
   ii. Antzuola eta Oñatiko udalerrietan kokatutako dendak, zerbitzuak eta erakundeak.
   iii. Azokak eta azoka txikiak.
   iv. Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde eremuan egiten diren azokak, jaiak eta beste ekitaldi batzuk.
   v. Kasua bada, Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde eremuan kokatuta dauden industriak.

c. Hondakin sortzaile handiek sortutako gai organikoak gaika biltzea atez ate, udalerri hauetan:

   i. Aretxabaleta
   ii. Arrasate
   iii. Bergara
   iv. Eskoriatza

d. Gaikako beste bilketa batzuk, eta materialak dagokien entrega zentrora eramatea, modalitate hauetan:

   i. Pila erabiliak dendetan eta beste zentro batzuetan jarritako ontzien bitartez.

[6] Ekarpen Gunea (EG): Bere baitan frakzio desberdinetako edukiontziak jasotzeko eraikuntza bat da. Horrelako instalazioek landa ingurunean sortutako hondakinei ematen diete zerbitzua. Bertarako sarrera elektronikoki kontrolatuta dago.
Minigunea (MG): Aire librean dagoen ekarpen gune bat da; hesituta egon daiteke edo ez, eta edukiontziak egongo dira landa ingurunean sortutako etxeko hondakinen frakzio desberdinak biltzeko. Edukiontzietara sarrera sarraila bidez kontrolatzen da.
Larrialdi Gunea (LG): Bere baitan frakzio desberdinetako edukiontziak jasotzeko eraikuntza bat da. Antzuola eta Oñati udalerrietan dagoen atez ateko bilketen larrialdi eta laguntza gune moduan funtzionatzen du. Etxola barrurako sarrera elektronikoki kontrolatuta dago.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 80

ii. Hondakin zatiak gaika bilduta azoka eta azoka txikietan.
iii. Kale garbiketaren hondakinak.
iv. Kartoi komertziala eta industriala.

Kontratuak, halaber, beste lan batzuk hartzen ditu, hala nola hauek:

- Hondakinen bilketarako zerbitzuari atxikitako instalazio finkoen kontserbazioa eta zaintza. Esaterako, instalazio finko hauena:
    - Antzuolan eta Oñatin etxeko hondakinak atez ate biltzeko sisteman erabilitako esekitokiak.
    - Edukiontzietarako finkagailuak (finkagailu horizontalak alboko kargako edukiontzien oinarrirako, eta atzeko kargako edukiontzietan zein alboko kargakoetan erabiltzen diren finkagailu bertikalak).
    - Edukiontziak eta etxeko hondakinen bilketarako sistemari lotutako gainerako elementuak babesteko piboteak eta bolardoak.
    - EG eta LG modalitateetan hondakinak jaso eta hartzeko bereziki diseinatutako eraikinak, tartean direla edukiontziak garbitzeko instalazioak, argiak eta informazio elementuak (kartelak).
    - Aire zabaleko bilketa puntuak, MG erakoak, tartean direla babes elementuak (hesiak eta itxiturak), eta elementu estetikoak eta informatiboak (kartelak).

- Bilketarako ibilgailuen zaintza, garbiketa eta mantentze lanak.
- Atzeko kargako edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak.
- Alboko kargako edukiontzien garbiketa lanak.
- Ekarpen guneen eta larrialdi guneen garbiketa.
- Bide publikoan dauden ekarpen guneen garbiketa.
- Edukiontziak, ontziak[7] eta esekitokiak instalatzea, lekualdatzea, ipintzea eta entregatzea.
- Deskribatutako zerbitzuekin lotura duten beste lan batzuk.

Kontratu honetan kamioien flota berritzeko baldintzak ere jasotzen dira, **ibilgailu eta ekipo berriak hornitzeko** bete beharreko baldintzak ezarriz. Kontratuaren aurrekontu orokorrak ibilgailu berriak erosteak eragindako kostua barne hartzen du.

[7] Ontzitzat hartzen dira ekoizle txikiek, batez ere herritarrek, erabiltzen dituzten litraje txikiko edukiontziak.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 80

2 KONTRATUAREN IKUSPUNTUA ETA BALDINTZA OROKORRAK

Aurrekariak

Debagoieneko Mankomunitateak etxeko hondakinen bilketa eta garraiorako zerbitzuak eman ditu azken hamarkadetan Mankomunitatea osatzen duten 8 udalerrien lurralde eremuan, eskualdeko Udalek Mankomunitatearen esku utzita duten eskumenaren ondorioz.

2001era arte, zerbitzuak zuzenean ematen ziren nagusiki, Mankomunitatearen langile eta bitarteko propioekin, kenduta gaikako bilketak, horietarako kanpoko enpresak kontratatzen ziren eta. Mankomunitatearen Gobernu Batzordeak erabaki zuzen zerbitzu osoa zeharka kudeatzea, eta kudeaketa modalitate hori 2002ko urtarrilaren 1ean jarri zen martxan, zeharkako kudeaketa kontratu baten bitartez. Kontratu horren bidez Mankomunitateko langileak (gidariak, kargatzaileak eta mekanikaria) kontratistaren esku jartzen ziren lanak egiteko, eta kontratista zen bilketa eta garraio zerbitzuak gauzatzearen erantzulea ondorio guztietarako.
Horrez gain, 2002ko kontratuarekin zerbitzu osoa kale publikoan kokatutako edukiontzien bitartez ematen hasi zen, hori baitzen Mankomunitateak hartutako erabakia.

Denbora tarte horretan gaikako bilketak egiten jarraitu zen, zeharka, hainbat kontratazioren bitartez. Edukiontzien sistemaren bitartez egiten zen, edukiontzien sistemaren bidez, erabiltzaileek borondatez erabiltzeko eta ordutegiak askatasunez erabiltzeko irizpideak mantenduz.

2009ko abenduaren 31n kontratua amaitu zenean, bilketa eta garraio kontratu guztiak elkartu ziren eta azaldutako irizpide orokorrak mantendu ziren. Egoera hori berdin mantendu zen hurrengo kontratuetan, hau da, 2010eko urtarrilaren 1ean, 2012ko urtarrilaren 1ean eta 2012ko uztailaren 1ean sinatutakoetan.

2012an, Antzuolako atez ateko bilketaren esperientzia jarri zen martxan. Aurrerapauso handia izan zen, eta hondakinen bilketa-sistema aldatu egin zen, hondakinen bereizketa-tasa oso altuekin.

Antzuolako atez atekoaren esperientziaren aurrean, Debagoieneko Mankomunitateak atez ateko sistemak eta sistema mistoak ezartzeari ekin zion hainbat udalerritan (Leintz-Gatzaga, Oñati, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatza). Hori dela eta, etxeko hondakinak biltzeko eta garraiatzeko kontratuan hainbat aldaketa egin ziren bata bestearen atzetik.

Kontratu hori martxan jartzea hiru hilabetez atzeratu zuen helegite baten ondoren, 2013ko urriaren 1ean hasi zen; Oñatiko atez ateko bilketa sistema eta Leintz-Gatzagako ekarpen puntuen bidezko bilketa sistema abian jarri zirenean.

Kontratu horrek hau suposatu zuen, besteak beste:

1. Apustu ekonomiko handia Mankomunitatearen aldetik, hondakin frakzio desberdinen bereizketan oso emaitza onak lortzeko, eta suntsitzeko zen azken frakzioa drastikoki murriztea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 80

2. Mankomunitateak bere langile propioak berreskuratzea Debagoieneko industrietatik etorritako etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuak zuzenean emateko, eta hainbat zerbitzu osagarri ere berreskuratzea (alboko kargako edukiontzien mantentze lanak, garbigune ibiltaria, azoketako bilketa bereziak, eta garrantzi txikiko beste batzuk).
3. Bitarteko materialak eta pertsonalak handitzea, zerbitzu berriak emateko.
   Zentzu horretan, Debagoieneko Mankomunitateak ahalegin handia egin du bere ibilgailuen flota berritzeko, hondakinen bilketan erabilitako hiri altzari berriak erosteko (edukiontziak) eta landa guneetan zerbitzua emateko instalazio finkoak eraikitzeko eta prestatzeko.

Era berean, kontratu horrek aldaketa eta egokitzapen ugari eduki zituen:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek sortutako etxeko hondakinen banaketa ratioak hobetzeko.
2. Erabiltzaileei erraztasunak emateko beren hondakinak modu erosoan botatzeko, nola ez, zerbitzuaren baldintzak errespetatuta.
3. Hondakinen bilketak dakartzan kostuak ekonomikoki doitzea, bilketa zerbitzurik hoberena eta eraginkorrena emateko ahalik eta kosturik txikienean.

2013an hasitako bilketa-sistemetako eraldaketa horri amaiera emateko, 2015eko martxoan edukiontzi bidezko sistema bat ezarri zen Arrasaten, 5. edukiontziarekin, materia organikoa nahitaez bereizteko, materia organikoaren eta errefusaren gaineko sarbide-kontrolarekin.

Sistema hori hondakinen bereizketan emaitza onak lortzearen baldintzapean ezarri bazen ere; horiek lortu ezean atez ateko sistema batera pasatzeko alternatibarekin, lortutako emaitza onek sistema mugagabe mantentzea ahalbidetu zuten.

Kontratu hori amaitzean, 2017ko urriaren 1ean, Debagoieneko etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua sartu zen indarrean. Hasiera batean, kontratu horretan hainbat zerbitzu murriztu ziren (Mankomunitatea zerbitzu hauek bere baliabideen bidez zuzenean ematen hasi zen), baina ondoren, kontratu-aldaketen bidez berreskuratu ziren (E04-Oñatiko merkataritza- eta landa-zerbitzua, E40-Kalitate-kontrola, besteak beste). Era berean, beste kontratu-aldaketa batzuk ere egin ziren, eta horien ondorioz, batez ere, tamaina handiko tresnak biltzeko zerbitzuak (HTZ) eta alboko bilketa-zerbitzuak (E81, E84, E85, E89 eta E90) birmoldatu eta egokitu ziren.

Hiru urteko iraupena izango zuen kontratu horrek, eta beste bi urtez luzatu zen, 2022/10/01era arte. Data horretatik aurrera eta gaur egun arte (egungo kontratua 2025/10/01 amaitzen da), Mankomunitateak etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua 2017-2022 aldiari dagokionaren antzekoa den kontratu baten bidez ematen du:

•Leintz-Gatzaga udalerrian, herritarren (herri gunekoak eta landa gunekoak) eta merkatarien ekarpen gunean biltzea.
•Antzuola eta Oñatiko herrietan atez ateko bilketa, herritarrena eta komertzioena. Landa-eremuko herritarren bilketa ekarpen-guneen bidez egiten da, eta landa-eremuko merkataritzakoa, berriz, atez ateko bilketaren bidez.
•Edukiontzien bilketa Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Eskoriatzako udalerrietan; materia organikoa nahitaez bereizteko 5. edukiontziaren bidez, eta organikoa eta errefusaren sarbideak kontrolatuz. Organika sortzaile handiei atez ateko bilketa.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 80

•Kartoi komertzialaren, instituzionalaren eta industrialaren atez ateko bilketa udalerri guztietan, Leintz-Gatzagan izan ezik.

Lizitatu beharreko kontratu berria

Izaera dinamiko horri erantzuteko, kontratu berrian aurreikusi da planteatutako aldaketen kalkulu ekonomikoa automatikoki egiteko sistema bat. "Kontratuaren aldaketak" izeneko atalean azaltzen da (Baldintza Administratiboen Pleguko 30. Puntua).

Baliabide materialei dagokionez, kontratuak aurreikusten du:

KONTRATUAREN BARRUAN

•**Kontratistak** zerbitzua emateko VII. eranskinean aurreikusitako **ibilgailuak hornitzea**, flota berritzearen parte gisa. Ibilgailuak Mankomunitatearen jabetzakoak izango dira, administrazio agiriko 37. puntuan deskribatzen den moduan.

•**Kontratistak kontratuaren esku jarriko ditu**, Mankomunitateari kostu gehigarririk eragin gabe, **ibilgailuak gordetzeko instalazioak**, tailer mekanikoa, ibilgailuak garbitzeko tokia, bulegoak, aldagelak, eta kontratak legez ezarritako baldintzetan lan egin ahal izateko beharrezkoak diren guztiak. Instalazio horiek ez dira Mankomunitatearen jabetzakoak izango.

KONTRATUTIK KANPO (Debagoieneko Mankomunitateak kontratistaren esku jarriko duen materiala, honek berriz jar ditzan):

•Atez ateko bilketa zerbitzuen erabiltzaileei birjarri beharreko litraje ezberdineko ontziak.
•Atez ateko bilketa-sistema duten udalerrietan ustekabeko arrazoiengatik aldatu behar diren zintzilikarioak.
•Alboko kargako edukiontzi berriak: metalikoak nahiz plastikozkoak, bai eta horien zatiak eta piezak ere; eta kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik aldatu behar direnak.
Kontratistak honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan aldatu beharreko edukiontziei dagokienez:

1. Edozein birjarpen egiteko, Mankomunitatearen aldez aurreko onarpena beharko da.
2. Edukiontzi horiek berriro jartzeak ez du atzerapenik ekarri beharko hondakinak biltzeko lanetan.

Edozein modutan, kontratistaren beraren arduragabekeriagatik[8] (adibidez, bilketarako, garbiketarako eta lan osagarrietarako ibilgailuak desegoki zaintzeagatik) edo edukiontziak gaizki manipulatzeagatik, edukiontziak kaltetuko edo hondatuko balira, edukiontziak konpondu eta berritzeko gastuak kontratistaren beraren kontura izango lirateke, baita edukiontzi berriak jarri behar balira ere. Kasu horretan, bateragarriak izan behar lukete Mankomunitatean jarritako gainerako altzariekin.

[8] Halaber, kontratistaren zabarkeriatzat hartuko da edukiontzi plastikoen deskarga-estalkiak ez instalatzea eta finkatzeko elementurik ez izatea (deskarga inertziala); Euskalmetek haizeagatik igorritako aurretiazko alarma meteorologiko bat dagoenean, arrisku horikoa edo handiagokoa.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 80

3 ZERBITZUEN SAILKAPENA

Kontratu honen ondorioetarako, zerbitzuak eskema honen arabera sailkatzen dira:

BILKETA PUNTUKO EDUKIONTZIEN BITARTEZKO ZERBITZUAK

1. Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Elgetako eta Eskoriatzako udalerrietan ematen diren alboko kargako bilketa zerbitzuak.
2. Atzeko kargako bilketa zerbitzuak, landa guneetako Ekarpen Guneko (EG) eta Miniguneko (MG) bilketekin zerikusia duten ekarpen puntuetan, Eskoriatzako, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalerrietan.

ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZUAK

1. Etxeetako atez ateko zerbitzua, hiri gune batean esekitoki baten bidez emandakoa. Zerbitzu mota hau Antzuolako eta Oñatiko udalerrietan ematen da, kale publikoan instalatutako esekitokien bitartez.
2. Hondakinak atez ate biltzeko atzeko kargako zerbitzuak, hondakin komertzial, instituzional eta zerbitzuetakoekin zerikusia dutenak eta Mankomunitate osoan ematen direnak, frakzio guztietarako, Antzuola, Leintz-Gatzaga eta Oñati udalerrietan, eta frakzio organikorako, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako udalerrietako sortzaile handietarako. Berrikuntza gisa, errefusa bilketa komertzialean eta instituzionalean jasotzeko aukera planteatzen da, frakzio organikoarekin batera, bi konpartimentutan banatutako ekipo batean.
3. Kartoi komertziala eta industriala atez ate biltzeko zerbitzua.
4. Pilak biltzeko zerbitzua, 10 litroko ontzien bitartez, eskaripean, eta baimendutako establezimenduan.

Atez ateko zerbitzuak erabiltzaile motaren arabera sailkatzen dira (etxeak, dendak-zerbitzuak, erakundeak eta industriak[9]). Halere, bilketa ibilbideen optimizazioak eta, beraz, bitarteko publikoen optimizazioak ere behartzen dute hainbat jarduerak irizpide orokor horretatik salbuesteko aukera egotera. Hori horrela, beraz, industri guneetan bakartuta dauden ostalaritzako jarduerak salbuetsita egon daitezke, baliteke-eta Mankomunitateak bere baliabide propioekin eskainitako zerbitzu industrialarekin biltzea hobe izatea.

Mankomunitateak beste jarduera batzuk ere salbuetsi ditzake, kasuak banan-banan begiratuta.

[9] Kasu jakinen bat izan ezik, eta bai Antzuolako bilketa industrialarena (Antzuolako atez ateko bilketaren parte dena), bai eskualde osoko industrialdeko kartoi-bilketarena, gainerako bilketa industriala Debagoieneko Mankomunitateak bere baliabide propioekin zuzenean emandako zerbitzuen eskumen esklusiboa izango da. Beraz, plegu honen irismenetik kanpo geratuko da.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 80

GARBIKETA ZERBITZUAK

1. Edukiontziak garbitzeko kamioiaren bitartez edukiontziak garbitzeko zerbitzuak, alboko kargako edukiontzietarako eta lau gurpil dituzten atzeko kargakoetarako.
2. Edukiontziak garbiketa gunetan garbitzeko zerbitzua (horretarako egokitutako Ekarpen Gunea), landa izaerako ekarpen puntuetan (EG, LG eta MG) kokatuta dauden eta 2 gurpil dituzten edukiontzietarako.
3. Hiri guneko ekarpen puntuak garbitzeko zerbitzua, alboko kargako edukiontzien eta beiraren edukiontzien inguruan; betiere azken horiek ekarpen puntu bateko zati badira eta ekarpen puntu horretan gutxienez alboko kargako edukiontzi bat baldin badago, plegu honetan ezarritako baldintzen menpe.

ZERBITZU OSAGARRIAK

1. Edukiontziak garraiatzeko zerbitzua, ibilgailu biltzaileek eta edukiontziak garbitzeko ibilgailuek iristen zailak diren lekuetan dauden alboko kargako edukiontziak biltzea errazago eduki dezaten.
2. Alboko kargako edukiontzien kanpoaldean utzitako hondakinen aurre-bilketa.
3. Landa izaerako ekarpen guneetan (EK, LG eta MG) kokatutako ibilgailuen, esekitoki eta edukiontzien mantentze lanak.
4. Bolumen handiko objektuak biltzeko zerbitzua.
5. Azoka, jai eta ekitaldietan sortzen diren hondakinak biltzeko zerbitzuak.
6. Azoka eta azoka txikietan bilketa egiteko zerbitzua.
7. Kale garbiketako hondakinak biltzeko zerbitzua.
8. “Kalitate kontrola” zerbitzua.

KONTRATUA EGOKI GAUZATZEA KONTROLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZU OROKORRAK

1. Kontratuaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketa, kontratua ondo betetzeko.
2. Langileak dagozkien lanetan antolatzeko eta kontrolatzeko lanak.
3. Mankomunitateak kontratuan ezarritako obligazioen betetzeari buruz eskatzen duen informazioa emateko lanak.
4. Flotak, bilketak eta egindako ibilbideak zerbitzuak ematen duten ibilgailuan instalatuta dagoen (edo instalatu beharko den) teknologian oinarrituta kontrolatzeko lanak.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 80

4 BILDU ETA GARRAIATU BEHARREKO HONDAKINAK

Etxeko hondakintzat jotzen dira Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean halakotzat definituta daudenak (2. artikulua):

"«Etxeko hondakinak»: etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsuak edo ez-arriskutsuak. Etxe-hondakintzat hartzen dira, halaber, zerbitzuetan eta industrietan sortutako aurreko hondakinen antzekoak, konposizioari eta kantitateari dagokienez, baldin eta ez badira sortzen zerbitzuen edo industriaren jardueraren ondorioz".

"Kategoria honetan sartzen dira, halaber, etxeetan sortzen diren hondakinak, besteak beste, sukaldeko olio erabiliak, aparatu elektriko eta elektronikoak, ehunak, pilak, metagailuak, altzariak, tresnak eta koltxoiak, bai eta etxeko eraikuntza- eta konponketa-lan txikietatik datozen hondakinak eta obra-hondakinak ere".

"Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publikoak, berdeguneak, jolas-eremuak eta hondartzak garbitzean sortzen diren hondakinak, etxeko animalia hilak eta abandonatutako ibilgailuak."

Ikus daitekeenez, Legean jasotzen denak barnean hartzen du plegu honen xede ez diren hondakin asko biltzea eta garraiatzea; izan ere, baldintza-orri honen aplikazio-eremua etxeetan, saltokietan, erakundeetan, zerbitzuetan eta industrietan sortutako etxeko hondakin hauek biltzera eta garraiatzera mugatzen da:

- Frakzio organikoa.
- Paper eta kartoi hondakinak.
- Etxekoen pareko ontzien hondakinak.
- Errefusa.
- Etxeko hondakinekin pareka daitezkeen altzariak, tresnak eta bolumen handikoak.
- Kale-garbiketako hondakinak.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 80

5 LURRALDE EREMUA

Kontratu honen xede diren zerbitzuak Debagoieneko eskualdearen lurralde eremuan sartzen dira, eskualdeko udalerriak hauek izanik (biztanleak udal errolden arabera, 2024/01/01ean):

Udalerria	Biztanleak
Antzuola	2.069
Aretxabaleta	7.194
Arrasate	22.123
Bergara	14.471
Elgeta	1.130
Eskoriatza	4.241
Leintz-Gatzaga	210
Oñati	11.537
GUZTIRA	62.975

Lurralde eremu hori kontratu honen xede diren lan guztietarako aplikagarria da, hondakinen entrega guneetara garraiatzeko lanak, pisatze lanak edo osagai geografiko definiturik ez duten beste alderdi batzuk izan ezik, deskribatutako lurralde eremutik kanpo kokatu baitaitezke.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 80

6 ZERBITZUAREN ORDENANTZA

Kontratu hau arautzen duten pleguetan eta indarreko legerian ezarritakoaz gain, derrigor betetzekoa izango da kontratistarentzat Debagoieneko Mankomunitateko etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen gainean unean-unean indarrean dagoen ordenantza, bai eta Mankomunitateak horri lotuta onartzen dituen arau edo protokolo tekniko edo segurtasunekoak ere.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 80

7 BILDUTAKO MATERIALEN JABEGOA

Kontratu honen xede diren Zerbitzuen bitartez jasotako material guztiak Debagoieneko Mankomunitatearen jabegokoak dira ondorio guztietarako.

Erabat debekatuta dago kontratistak bildutako materialak saltzea edo beste edozein etekin ateratzea material horiei, bai eta material horietan bilaketak, hautaketak eta tarteko biltegiratzeak egitea edo material horiek manipulatzea ere, zerbitzuaren ordenantzen arabera dagozkien entrega zentroetara garraiatu beharko baitira.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 80

8 EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK

Ondoren deskribatuko dira plegu honekin lotutako etxeko hondakinen bilketarako zerbitzu osoan sartzen diren zerbitzu guztiak. Agiri honen I. eranskinean, atal honetan identifikatutako zerbitzuak emateko ekipo bakoitzaren informazio osagarria dago, lizitatzailearentzat lagungarria izan daitekeena zerbitzuaren dimentsionamenduari begira.

Dena dela, lantalde horien banaketa proposamen modura aurkezten da, eta lizitatzaileak zerbitzuak birdimentsionatu ahal izango ditu, ibilbideak elkartuz, proposatutako langileak berrantolatuz, etab., betiere aldaketak zerbitzua baldintza hobeetan ematea baldin badakar eta gutxienez preskripzio teknikoen plegu honetan zehaztutako hustuketa maiztasunak errespetatzen baditu.

Lizitatzaileak proposatutako zerbitzuen dimentsionamendua behar bezala justifikatuta egon beharko da, eta kontuan hartu beharko ditu bai hondakinen entrega guneen funtzionamendu ordutegiak (II. Eranskinean jasotakoak) zerbitzuak dimentsionatu ahal izateko, bai lantalde guztien arteko sinkronizazioa.

Dena dela, Mankomunitateak eskubidea du interes publikoagatik kontratistaren proposamenean hainbat aldaketa sartzeko.

Era berean, plegu honi atxikita doaz hainbat dokumentu, eta dokumentu horietan identifikatu daitezke zein puntutan emango diren zerbitzuak, puntu horiek non dauden, bilketa egunak, etab.

8.1 HONDAKINAK ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIEN BITARTEZ BILTZEA

Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Elgetako eta Eskoriatzako udalerrietan ematen den bilketa zerbitzu nagusia da.

Zerbitzu horretan hondakin frakzio hauen bilketa sartzen da:

- Frakzio Organikoa: 2.200 litroko edukiontzien bitartez biltzen da (RosRoca markakoak).

  Edukiontzi horrek sistema elektroniko bat dauka sarrera kontrolerako (DORLET eta DORLET-AGA markako sistema), erabiltzailearen taparen azpian dagoena.

- Errefusa frakzioa. Frakzio organikoaren edukiontziari aplikatzen zaizkion ezaugarri berak ditu bilketak, eta nagusiki RosRoca markako 2.200Lko polietilenozko edukiontzien bidez jasotzen da. RosRoca markako 3.200L-ko polietilenozko edukiontziak ere badaude: 28 unitate Arrasaten, 8 Bergaran, 7 Eskoriatzan eta 7 Aretxabaletan.

  Hala ere, SANIMOBEL markako metalezko edukiontzien hainbat unitate daude instalatuta Arrasaten (3.200L-ko 6 unitate), Bergaran (3.200L-ko 2 unitate) eta Eskoriatzan (3.200L-ko 1 unitate).

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 80

Nolanahi ere, kontratuak irauten duen bitartean, metalezko edukiontzi-unitateen kopurua handitzea aurreikusten da (errefusaren frakziorako, ontzi arinetarako eta paper-kartoietarako), plastikozko edukiontzien kalterako.

Aurreko kasuan ez bezala, Eskoriatzako udalerrian instalatutako errefusa frakzioaren edukiontziek ez dute aktibatuta sarreren kontrol sistema.

- Ontzi Arinen frakzioa. Batez ere 3.200 litroko edukiontzien bitartez biltzen da (RosRoca markakoak), baina badaude litro kopuru bereko edukiontzi metaliko batzuk SANIMOBEL markakoak (6 unitate Aretxabaletan, 8 unitate Arrasaten, 1 Bergaran eta 1 Eskoriatzan; denak 3.200 l.-koak).

  Edukiontzi horiek bi aho zirkular dituzte ontzi arinen hondakinak biltzeko kalibratuta.

  Era berean, RosRoca markako edukiontziek hondakinak sartzeko aurrealdea giltzaz zabaltzeko sistema bat daukate, sortzaile handiek eragindako hondakin mota hau kentzen laguntzeko.

- Papera-Kartoiaren frakzioa. Ontzi arinen frakzioaren edukiontziari aplikatu beharreko ezaugarri berak ditu frakzio honen bilketak, kenduta hondakinak sartzeko ahoa, kasu honetan sekzio angeluzuzeneko aho bakarra baitu. SANIMOBEL markako edukiontzi metalikoen kopurua, 3.200 litroko edukierakoa, paperaren frakzioarentzat hau da: 6 unitatekoa Aretxabaletan eta 7koa Arrasaten eta unitate batekoa Eskoriatzan.

III.I. Eranskinean agertzen dira Mankomunitatean instalatutako alboko kargako edukiontzi guztiak, bai eta edukiontzi horien ezaugarriak ere.

- Edukiontziaren marka eta modeloa (Zehaztapenak VII. Eranskinean)
- Edukiontziak garraiatzeko zerbitzuaren premia (BAI/EZ)
- Lurperatzea (BAI/EZ)
- Litro kopurua.
- Frakzioa.
- Edukiontziaren kode alfanumerikoa.
- Instalatuta dagoen bilketa puntuaren zenbakizko kodea.
- Udalerria.
- Kokapen geografikoa: Latitudea/Longitudea.
- Programatutako bilketa egunak.

Horrez gain, eta kontuan izanda Mankomunitatearen lurralde eremuan dauden edukiontzien kopurua eta banaketa espaziala, gehienbat bi ibilbide multzo desberdin programatu dira hondakin frakzio bakoitzerako:

1. Bilketa ibilbideak Arrasateko eta Elgetako udalerrietarako, gauez egingo direnak, errefusa izan ezik, frakzio hori banaka emango baita Arrasaten.
2. Bilketa ibilbideak Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bergarako udalerrietarako, egunez egingo direnak, eta baita Elgetako errefusaren bilketa ere.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 80

Era berean, eta kontuan izanda bildu beharreko frakzio desberdinak eta edukiontzi bakoitzaren bilketa premiak, zerbitzu hauek egitea:

FRAKZIOA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Organikoa		C1		C1		C1	
		C1		C1		C1	
Errefusa	C1 + C4		C1 + C4		C1 + C4		
	C1		C1		C1		C1 / C4
Ontzi arinak	C2	C2	C2	C2	C2	C2	C2
	C2	C2	C2	C2	C2	C2	C2
Papera-kartoia	C3	C3	C3	C3	C3	C3	C3
	C3	C3	C3	C3	C3	C3	C3

	Eguneko ibilbideak Aretxabaleta-Eskoriatza-Bergaran, eta Elgetako errefusa bilketa
	Gaueko ibilbideak Arrasate-Elgetan (organika), eta Arrasateko errefusa bilketa
	Eskatzen den ekipo trinkotzailearen (ekipoaren barrualdea) eta jasogailuaren garbiketa
	Kamioiaren kanpoaldearen garbiketa
C1	Erabilitako kamioia (C1-C2-C3-C4). Zerbitzu bakoitzean erabili beharreko kamioia hautatzea kontratuaren enpresa esleipendunaren eskumena izango da.

Alboko kargako edukiontzien bitartez hondakinak biltzen dituzten lantaldeek lan hauek egin beharko dituzte:

- Hondakinen bilketak egitea kontratistak diseinatutako ibilbideen arabera. Kontratistak, gutxienez, frakzio bakoitzerako eta kasuan kasuko asteko egunerako programatuta dauden edukiontzi guztiak bildu beharko ditu.
- Hondakinak bilketa puntuetara helmuga zentroetara eramatea. Hondakinen entrega zentroak Mankomunitateak unean-unean izendatutakoak izango dira. Informazio gisa, gaur egun hauek dira esleitutako entrega zentroak:

  - ✓ Frakzio Organikoa: EPELEko konpostaje planta (Bergara)
  - ✓ Errefusa frakzioa. Arriagako industrialdean dagoen transferentzi planta (Elgoibar)
  - ✓ Ontzi Arinen frakzioa. LEGAZPIko ontzien sailkapen planta (Legazpi)
  - ✓ Papera-Kartoiaren frakzioa. ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.

- Hondakinen bilketan erabilitako ibilgailuaren garbiketa, gutxienez goian ezarritako eskemaren arabera egingo da, era horretan, ibilgailuak garbi egon beharko du frakzio organikoa, ontzi arinak eta papera jaso aurretik (ikus aurreko taula).

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 80

Plegu honi atxikitzen zaizkio (Ikusi I.I Eranskinetik eta I.VII Eranskinera) eman beharreko zerbitzuei dagozkien ekipamenduei buruzko informazio gehigarria, honako hauek barne: edukiontzi-kopurua, horien kokapena, deskarga-puntua eta eskatutako bitarteko pisaketa.

Ondoren aipatzen dira programatutako albo kargako bilketetarako esleitutako lantaldeak:

1. E84 lantaldea – Frakzio organikoaren alboko kargako edukiontzien bilketa Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalerrietan. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: 116.
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 06:00h.
    c. Hondakinen entrega puntuak: EPELEko konpostaje planta.
    d. Zerbitzu egunak: Asteartea, osteguna eta larunbata
    e. Ibilgailu biltzailea: Alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
    f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: Gidari bat.
    g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Ibilgailuaren gainkarga saihesteko, bitarteko deskarga bat egin beharko da. Era berean, udalerri bakoitzean jasotako kargak indibidualizatzeko, tarteko pisaketa bat egin beharko da, EPELEko Konpostatze Plantako baskulan (doakoa), Eskoriatzako udal-baskulan (ordainpekoa) edo kontratistak aurreikusitako helburua lortzeko egokien deritzona erabiliz.

        Nolanahi ere, tarteko pisaketak egiteko erabilitako baskulak erregelamenduak agintzen duen arabera prestatuta egon beharko dira merkataritza-transakzioak egiteko; hau da, uneoro egiaztatuta egon beharko dira.

        Debagoieneko Mankomunitateak beretzat gordetzen du kontratistak proposatutako baskula baztertzeko eskubidea, soluzio egokiagoren bat dagoela uste badu, lehen aipatutako baskula publikoak erabiliz (EPELE eta Eskoriatza).

2. E81 lantaldea – Frakzio organikoaren alboko kargako edukiontzien bilketa Arrasateko eta Elgetako udalerrietan. Ezaugarriak:
    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: 112.
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 22:00h
    c. Hondakinen entrega puntuak: EPELEko konpostaje planta.
    d. Zerbitzu egunak: Asteartea, osteguna eta larunbata
    e. Ibilgailu biltzailea: Alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
    f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: Gidari bat.
    g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, bitarteko deskarga baten bidez.

3. E84 lantaldea – Errefusa frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalerrietan. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: astelehenean 52, asteazkenean 33, ostiralean 54.
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 06:00h
    c. Hondakinen entrega puntuak: Arriagako transferentzi planta (Elgoibar).

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 80

d. Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
e. Ibilgailu biltzailea: Alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat.
g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, tarteko pisaketa baten bidez.

4. E81 lantaldea – Errefusa frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Arrasaten, astelehen, asteazken eta ostiralean, eta Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako udalerrietan igande gauean. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: astelehenean 116, asteazkenean 77, ostiralean 116, igandean 78.
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 22:00h
    c. Hondakinen entrega puntuak: Arriagako transferentzi planta (Elgoibar)
    d. Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
    e. Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena, ostirala eta igandea
    f. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
    g. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: Gidari bat.
    h. Tarteko deskarga eta pisaketak: Beharrezkoak diren bitarteko pisaketak egingo dira, udalerrietan bildutako hondakin-kantitateak indibidualizatzeko.

5. E94 lantaldea – Errefusa frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Bergara eta Elgetan. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: astelehenean 65, asteazkenean 44, ostiralean 77.
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 06:00h
    c. Hondakinen entrega puntuak: Arriagako transferentzi planta (Elgoibar)
    d. Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
    e. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
    f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: Gidari bat.
    g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, tarteko pisaketa baten bidez.

6. E85 lantaldea – Ontzi arinen frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalerrietan. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: Asteko egunaren arabera
        i. Astelehena: 89
        ii. Asteartea: 81
        iii. Asteazkena: 82
        iv. Osteguna: 81
        v. Ostirala: 80
        vi. Larunbata: 85
        vii. Igandea: 70
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 06:00.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 80

c. Hondakinen entrega puntuak: LEGAZPIko ontzien sailkapen planta.
d. Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
e. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat.
g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Beharrezkoak diren bitarteko pisaketak egingo dira, udalerrietan bildutako hondakin-kantitateak indibidualizatzeko.

7. E82 lantaldea – Ontzi arinen frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Arrasateko eta Elgetako udalerrietan. Ezaugarriak:

   a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: asteko egunaren arabera
      i. Astelehena: 74
      ii. Asteartea: 72
      iii. Asteazkena: 67
      iv. Osteguna: 71
      v. Ostirala: 66
      vi. Larunbata: 65
      vii. Igandea: 76
   b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 22:00h.
   c. Hondakinen entrega puntuak: LEGAZPIko ontzien sailkapen planta.
   d. Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
   e. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
   f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat.
   g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, tarteko pisaketa baten bidez.
      Nolanahi ere, eta dentsitate oso txikiko frakzioa izanik, bitarteko pisuen emaitzen arabera, Mankomunitateak erabakiko du metodo hori baliagarria den ala ez (tarteko pisaketena), eta baliagarria ez balitz izango Elgetaren eta Arrasateren arteko pisuen proportzio-ratio batekin ordeztuko litzateke.

8. E86 lantaldea – Paper-kartoiaren frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalerrietan. Ezaugarriak:

   a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: asteko egunaren arabera
      i. Astelehena: 42
      ii. Asteartea: 60
      iii. Asteazkena: 49
      iv. Osteguna: 44
      v. Ostirala: 57
      vi. Larunbata: 56
      vii. Igandea: 53
   b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 06:00h
   c. Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
   d. Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
   e. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
   f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 80

g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Beharrezkoak diren bitarteko pisaketak egingo dira, udalerrietan bildutako hondakin-kantitateak indibidualizatzeko.

9. E83 lantaldea – Paper-kartoiaren frakzioaren alboko kargako edukiontzien bilketa Arrasateko eta Elgetako udalerrietan. Ezaugarriak:

    a. Bildu beharreko edukiontzi kopurua: asteko egunaren arabera
        i. Astelehena: 64
        ii. Asteartea: 43
        iii. Asteazkena: 46
        iv. Osteguna: 44
        v. Ostirala: 47
        vi. Larunbata: 50
        vii. Igandea: 44
    b. Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 22:00
    c. Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
    d. Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
    e. Ibilgailu biltzailea: alboko kargako 26m^3-ko ibilgailua.
    f. Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat.
    g. Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, tarteko pisaketa baten bidez.

8.2 HONDAKINAK GAIKA BILTZEA LANDA INGURUNEETAKO EKARPEN PUNTUETAN, EKARPEN GUNEEN (EG) ETA MINIGUNEEN (MG) BITARTEZ, ESKORIATZA, LEINTZ-GATZAGA, ETA OÑATIKO UDALERRIETAN

Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako udalerrien kasuan, zerbitzu hau Antzuolako etxeko hondakinen atez ateko bilketarekin batera ematen da. Bilketa hori 8.3 atalean dago zehaztuta.

Zerbitzua Eskoriatzako eta Leintz-Gatzagako landa inguruneko ekarpen puntuetan utzitako hondakinen bilketarekin hasten da, udalerri bereko hondakin komertzialen eta instituzionalen bilketarekin txandakatuta, eta ondoren bildutako hondakinak pisatzen dira, Antzuolako hondakin bilketarekin amaitzeko (etxeko hondakinak, hondakin komertzialak eta instituzionalak, eta industriakoak).

III.II. eranskinean agertzen da ekarpen puntuen kokapena, baita ekarpen-puntu bakoitzean instalatutako edukiontzi mota eta kopurua ere, frakzioen arabera.

Oñatiren kasuan, zerbitzua honela dago konfiguratuta:

- ✓ E04 Lantaldea. Oñatiko landa-eremuetako ekarpen-guneetan eta egindako ibilbidearekin bat datozen denda, ostalaritza eta erakundeetan utzitako hondakinak gaika biltzeko eguneko zerbitzua

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 80

- Ekarpen Gune kopurua (EG): 4, eta Miniguneena (MG): 13.
- Ibilbidean dauden erabiltzaile komertzialen, ostalaritzako negozioen eta erakundeen gutxi gora beherako kopurua: 23.
- Gomendatutako zerbitzuaren hasiera-ordua: 08:00h.
- Hondakinen entrega puntuak: frakzio bakoitzerako ezarritako entrega puntuak 8.1 puntuan ezarritakoak berak izango dira.
- Zerbitzu egunak: astelehenetik ostiralera:
- Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailua, 16-18 m^3-ko edukierarekin.
- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko.
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

8.3 ETXEKO HONDAKINAK GAIKA BILTZEA ATEZ ATE (ANTZUOLAKO ETA OÑATIKO UDALERRIAK)

Kontratista arduratuko da batez ere etxeetan sortutako etxeko hondakinak atez ate biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua emateaz Oñatiko kasurako; halere, ez da baztertzen beste jatorri bat duten hondakinak (dendak, erakundeak eta industria ere bai) ibilbide berean jasotzea, betiere eraginkortasun-arrazoiengatik justifikatuta baldin badago.

Kontratistak egin nahi duen eta zerbitzu baten erabiltzaileei eragin diezaiekeen edozein aldaketa Mankomunitatearekin adostu beharko da, eta Mankomunitateak izango du aldaketa hori baimentzeko ahalmena.

Bilketa horren aplikazio eremuak hiri gunean kokatutako zerbitzuko erabiltzaile guztiei eragingo die.

Antzuolako udalerriaren kasuan, atez ateko gaikako bilketa etxebizitzetan, zein batez ere hiri lurzoruan kokatutako denda, zerbitzu, ekarpen gune (EG, LG eta MG), erakunde eta industrietan ere emango da.

Zerbitzu hau astelehenetik igandera emango da, egutegi honekin:

		Frakzioa eta asteko eguna						
Txanda	Udalerria	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Gaua	Oñati	Papera	Organikoa	Ontziak	Errefusa	Organikoa	Ontziak	Organikoa
Gaua	Antzuola-Oñati	Pixoihalak eta ehun sanitarioak						

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPP4RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/es/Publico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 80

Egunez	Antzuola[10]	Organikoa	Ontziak	Papera	Organikoa	Ontziak	Organikoa	Errefusa

Eskatzen den ekipo trinkotzailearen (ekipoaren barrualdea) eta jasogailuaren garbiketa
Kamioiaren kanpoaldearen garbiketa

Mankomunitateak eskubidea du udalerri horietako bilketa sisteman beharrezko aldaketak egiteko, bilketa irizpideak bateratzeko (egutegia, hondakinaren jatorria, etab.).

Erabiltzaile guztiek zerbitzua erabili ahal izateko, gaueko txanda 23:00etan hasiko da.

Antzuolako eguneko bilketaren kasuan, ezin izango da goizeko 9: 00ak baino lehen hasi, komertzioek zerbitzua ordu-murrizketarik gabe erabili ahal izan dezaten. Era berean, Leintz-Gatzagako udalerriko merkataritza-erabiltzaileak edo ostalaritza-erabiltzaileak ere ezin izango dira diskriminatu zerbitzua emateko ordutegiagatik.

Hondakinen bolumena dela-eta, pixoihalen eta ehun sanitarioen bilketa berezko zerbitzu batekin egiten bada ere, kontratu honi atxikitako atzeko kargako ibilgailu guztiak egokituta daude pixoihalak eta ehun sanitarioak bereizita bildu ahal izateko, alboetan dituzten kutxen bitartez.

Hondakinak eremu publikoan instalatutako esekitokietatik jasoko dira, bilketako kamioiak esekitokietara hurbildu ahal izango dira eta.

Hondakinak ontzi edo poltsetan egongo dira sartuta, bilketarako. Paperaren eta kartoiaren kasuan, kutxatan sartuta egon daitezke edo soka edo antzekoekin lotuta.

Era berean, papera-kartoiaren frakzioarentzat, edukiontzi komunitarioak ere badaude; kasu horretan, edukiontziak eraikinaren barruan daude eta erabiltzaileek dagokien egunean edo egunetan aterako dituzte bilketarako.

Eraginkortasuna eta aurrezpena direla eta, kontratistak beharrezkotzat jotzen badu, zerbitzu horrek berak bilduko ditu Oñatiko Larrialdi Guneetan (LG) utzitako hondakinak (E04 Lantaldearen alternatiba gisa) eta Antzuolako Larrialdi Gune (LG) eta Miniguneetan (MG) utzitakoak.

Kontratistak ekarpen gune eta larrialdi gune horietako hondakinak bilduko ditu, eta instalazioen eta edukiontzien mantentze integrala eta garbiketa egingo du, ezartzen diren baldintzetan.

Lantaldeek lan hauek egin beharko dituzte:

- Ezarritako ibilbideen arabera hondakinak biltzea. Bilketa lanak berak ez ezik, bilketa lanetan gerta daitezkeen gorabeherak identifikatuko dituzte. Kontratistaren langileek ez dituzte bilduko ezarritako arauak betetzen ez dituzten hondakinak, Mankomunitateak erabakitako irizpideen arabera.

  Antzuolan eta Oñatin hau da hondakinak atez ate biltzeko lantaldeen konfigurazioa:

[10] Antzuola udalerrian egindako zerbitzuez gain, zerbitzu honek Leintz-Gatzaga udalerrian ere bilduko ditu hondakinak, baita Eskoriatzako landa inguruneetako Ekarpen Guneetan (EG) eta Miniguneetan jasotako hondakinak ere, geroago zehaztuko denez.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 80

- ✓ E01-E02 Lantaldeak. Oñatin egiten den Frakzio anitzerako Gaueko zerbitzua.

    - Ibilbidean dauden ekarpen guneak eta erabiltzaileak[11]: 107-109 ekarpen-puntu (bilketa-egunaren arabera), 106 esekitoki puntu 4723 erabiltzailerentzako lekua dutenak, eta atzeko karga-edukiontzien kopuru aldakorra; batez beste, 4 edukiontzikoa, astelehenean izan ezik, bertan edukiontzien gehieneko kopurua 64 izan baitaiteke. Xehetasun gehiagorako, ikusi I.X eranskina.
    - Zerbitzuaren hasiera ordua: 23:00
    - Hondakinen entrega puntuak: frakzio bakoitzerako ezarritako entrega puntuak 8.1 puntuan ezarritakoak berak izango dira.
    - Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
    - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailua, 16-18 m^3-ko edukierakoa.
    - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat eta bi peoi.
    - Tarteko deskarga eta pisaketak: Ostiralari dagokion zati organikoaren bilketan gehiegizko pisua dagoela ikusi da. Arazo hori konpontzeko, Debagoieneko Mankomunitateak honako hau proposatu du:
        1. Oñatiko zati organikoa biltzea, eta ibilbidearen amaierarako uztea Zubillaga auzoari dagokion zati organikoaren bilketa.
        2. Zubillaga auzoa jaso aurretik, Oñatin jasotako zati organikoa EPELEren Konpostatze Plantan deskargatu
        3. Kamioia deskargatu ondoren, Zubillaga auzora itzuli eta dagoen zati organikoa jaso.
        4. Basera itzuli ibilgailua kargatuta dagoela, eta larunbatean organiko-zerbitzu bat hasi (HZA, E61, E41-41, edo E17), Zubillagan jasotako kargakin. Beharrezkoa izango litzateke zerbitzu bakoitzari dagozkion kargak indibidualizatzea.

- ✓ E06 Lantaldea. Antzuolan eta Oñatin egiten den Frakzio bakarrerako gaueko zerbitzua (pixoihalak eta ehun sanitarioak)[12].

    - Ibilbidean dauden ekarpen guneak eta erabiltzaileak: 157-161 ekarpen-puntu (bilketa-egunaren arabera), 144 esekitoki puntu 5789 erabiltzailerentzako lekua dutenak, eta 34 atzeko karga-edukiontzi. Xehetasun gehiagorako, ikusi I.XI eranskina..
    - Zerbitzuaren hasiera ordua: 23:00h.
    - Hondakinen entrega puntuak: Arriagako transferentzi planta (Elgoibar).
    - Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
    - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 8 m^3-ko edukierarekin.
    - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko

[11] Zifra horrek zerbitzua erabili dezaketen gehieneko esekitoki eta erabiltzaile kopurua adierazten du, eta bete beharreko ibilbidea.
[12] Esekitokietako berezko erabiltzaileez gain, badira frakzio sanitarioko sortzaile handien izaera duten beste erabiltzaile batzuk, ekipo horren ibilbideetan integratuta daudenak.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 80

- Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, tarteko pisaketa baten bidez.
  Nolanahi ere, eta kantitate txikiak jasotzen direnean, bitarteko pisuen emaitzen arabera, Mankomunitateak erabakiko du metodo hori baliagarria den ala ez (tarteko pisaketena), eta baliagarria ez balitz izango Antzuola eta Oñatin arteko pisuen proportzio-ratio batekin ordeztuko litzateke.

✓ HZA Lantaldea. Antzuolan egiten den Frakzio anitzerako Eguneko zerbitzua

- Ibilbidean dauden esekitokiak eta erabiltzaileak: 78 eta 119 arteko ekarpen puntuak, 37 esekitoki puntu Antzuolan (870 erabiltzaile), eta batez beste 65 atzeko kargako edukiontzi Antzuolan, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan banatuta. Xehetasun gehiagorako, ikusi I.IX eranskina.
- Zerbitzuaren hasiera ordua: 06:00.
- Hondakinen entrega puntuak: frakzio bakoitzerako ezarritako entrega puntuak 8.1 puntuan ezarritakoak izango dira.
- Zerbitzu egunak: astelehenetik igandera:
- Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailua, 16-18 m^3-ko edukierarekin.
- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko.
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Beharrezkoak diren bitarteko pisaketak egingo dira, udalerrietan bildutako hondakin-kantitateak indibidualizatzeko.

- Hondakinak bilketa guneetatik helmuga zentroetara eramatea. Entrega zentroak frakzio bakoitzerako edukiontzien bidezko zerbitzuetarako azaldu diren berberak izango dira, eta entrega zentroen aldaketen gainean dokumentu honetan azaldu diren irizpideak ere aplikagarriak izango dira.

- Kamioia barrutik eta kanpotik garbitzea, gutxienez horretarako ezarriko diren egunetan (Ikusi V. Eranskina).

- Hala badagokio, bilketa eta garraio lanak eta (1) erabiltzaileei ontziak edo edukiontziak entregatzea edo (2) ontziak eta edukiontziak ekarpen guneetan edo larrialdi guneetan kokatzea, jaietan edo ekitaldietan, edo beste kasu batzuetan, Mankomunitateak kasu horietarako ezartzen duenaren arabera.

Halaber, jaietako, ekitaldietako eta antzekoetako hondakinak biltzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ezarriko dira, baita kale garbiketatik datozenak ere

Zerbitzua egiteko beharrezkoak diren ibilgailu gehienak atzeko kargakoak eta laguntza lanetarako satelite motako ibilgailuak izango dira, azken horiek ere atzeko kargakoak izanik.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 80

8.4 ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA BEREZITUKO ZERBITZUAK KOMERTZIOETAN, ZERBITZUETAN ETA ERAKUNDEETAN

Kontratista arduratuko da komertzioek, zerbitzuek eta erakundeek sortzen dituzten etxeko hondakinak atez ate biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua emateaz Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalerrietan.

Bilketa honen aplikazio eremuak komertzio, erakunde eta zerbitzuen establezimendu guztiei eragingo die, bai eta udalerri bakoitzean egiten diren azoka iraunkorrei eta ibiltariei ere. Eraginkortasunagatik, ez da baztertzen industria izaerako erabiltzaileak egotea ibilbide horien barruan.

Bilketa zerbitzua astelehenetik larunbatera bitartean emango da; halere, Leintz-Gatzagaren kasuan igandean ere emango da zerbitzua, bilketa hori Antzuolako atez ateko bilketa zerbitzuari lotuta dagoelako, eta kasu bakoitzean ezarritako egutegiarekin eta ordutegiarekin emango da.

	Frakzioa eta asteko eguna						
Udalerria	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata[13]	Igandea
Aretxabaleta-Eskoriatza[14]		Organikoa EH		Organikoa EH		Organikoa EH	
Arrasate		Organikoa EH		Organikoa EH		Organikoa EH	
Bergara		Organikoa EH		Organikoa EH		Organikoa EH[15]	
Leintz-Gatzaga[16]	Organikoa	Ontziak	Papera	Organikoa	Ontziak	Organikoa	Errefusa
Oñati	Papera	Organikoa	Ontziak	Organikoa	Errefusa	Organikoa EH	

Eskatzen den ekipo trinkotzailearen (ekipoaren barrualdea) eta jasogailuaren garbiketa
Kamioiaren kanpoaldearen garbiketa
Kamioiaren kanpoaldearen garbiketa + ekipoaren garbiketa
EH= Ekoizle Handiak

[13] Larunbateko zerbitzuan frakzio organikoa biltzea behar duten establezimendu industrialak sartuko ditu bere ibilbidean.
[14] Ekipo hori ostiralean bakarrik garbitzen da, gaueko txandan Oñatiko atez ateko bilketa egiteaz arduratuko den ekipoa baita.
[15] Proposamen modura, frakzio organikoa EPELEko konpostatze plantan deskargatu eta gero (larunbatetan), ekipo honek posible izango luke Oñatiko eta Bergarako azoketan errefusa jasotzea, eta hondakinak deskargatu gabe basera bueltatu, Igandean HZA lantaldean erabiliz Antzuolako atez ateko zerbitzuan errefusa jasotzeko.
[16] Zerbitzua Antzuolako atez ateko bilketarekin batera egiten da, 8.2 puntuan jada zehaztu diren baldintzetan.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 80

Horrela zehazten den kasuetan, industria eta etxebizitza batzuk sartu ahal izango dira bilketa puntu eta ibilbideetan.

Egun bakoitzean frakzio desberdin bat jasoko da: gai organikoa, papera/kartoia, ontzi arinak edo errefusa.

Hondakinak litro kopuru desberdineko bi eta lau gurpileko edukiontzi normalizatuen bitartez jasoko dira hondakin sortzaile handien kasuan, edo ontzi eta poltsen bitartez gainerako kasuetan, bilketa kamioia ingurura hurbilduta edo atez ate establezimendu bakoitzean.

Leintz-Gatzagako udalerria izan ezik, han erabiltzaileek hondakinak aurreko gauean ateratzeko aukera izango baitute, gainerako udalerrietan ezin izango dira bilketa lanak goizeko 10:00ak baino lehen hasi.

Lantaldeek lan hauek egin beharko dituzte:

- Hondakinen bilketak egitea diseinatutako ibilbideen arabera. Bilketa lanak berak ez ezik, bilketa lanetan gerta daitezkeen gorabeherak ere identifikatuko dituzte. Kontratistaren langileek ez dituzte bilduko ezarritako arauak betetzen ez dituzten hondakinen ontziak, Mankomunitateak erabakitako irizpideen arabera.

  Hau da dendetan, zerbitzuetan eta erakundeetan hondakinak bilduko dituzten lantaldeen konfigurazioa:

  - ✓ E 17-61 Lantaldea. Aretxabaleta, Bergara, eta Eskoriatzan Hondakin sortzaile Handien frakzio organikoa biltzeko Eguneko Zerbitzua.

    - Ibilbidean dauden erabiltzaileak[17]: 65 erabiltzaile astearte eta ostegunean, eta 75 larunbatetan.
    - Zerbitzuaren hasiera ordua: 10:00h.
    - Hondakinen entrega puntuak: EPELEko konpostaje planta.
    - Zerbitzu egunak: asteartea, osteguna eta larunbata
    - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 16-18 m^3-ko edukierarekin.
    - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat eta peoi bat.
    - Tarteko deskarga eta pisaketak: Bildutako udalerri bakoitzaren pisuak banatu beharko dira, beharrezkoak diren tarteko pisaketa edota deskargen bidez.
    - Zati organikoa deskargatu ondoren, ekipo horrek Oñatiko eta Bergarako merkatuen errefusa jasotzea proposatzen da eta ibilgailuan kargatuta utzi, gauez pixoihalen aurrebilketa zerbitzua egin arte edo igandean HZA ekipoarekin errefusaren bilketa zerbitzua egin arte.

  - ✓ E41-E42 Lantaldeak. Arrasaten Hondakin sortzaile Handien frakzio organikoa biltzeko Eguneko Zerbitzua.

[17] Zifra horrek zerbitzua erabili dezaketen gehieneko esekitoki eta erabiltzaile kopurua adierazten du, eta bete beharreko ibilbidea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 80

- Ibilbidean dauden erabiltzaileen gehieneko kopurua: 74 erabiltzaile aastearte eta ostegunetan, eta 86 larunbatetan.
- Zerbitzuaren hasiera ordua: 10:00h.
- Hondakinen entrega puntuak: EPELEko konpostaje planta.
- Zerbitzu egunak: asteartea, osteguna eta larunbata
- Ibilgailu biltzailea: Atzeko kargako ibilgailua, 8 m^3-ko edukierakoa.

- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat eta peoi bat.
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

✓ HZA Lantaldea. Leintz-Gatzagan frakzio ezberdinak biltzeko eguneko zerbitzua. Zerbitzu horrek 8.2 atalean ezarritako baldintza berberak ditu.

✓ E03 Lantaldea. Oñatin frakzio ezberdinak biltzeko eguneko zerbitzua.

- Ibilbidean dauden erabiltzaileen gehieneko kopurua: Papera 40, Organikoa 57, Ontzi arinak 67, Errefusa 100. Kopuru hori aldakorra da egunaren arabera (hondakin frakzioaren arabera), denboraldiaren arabera edo saltokiak ireki edo ixtearen arabera. Beraz, gutxi gorabeherakoa da, eta zerbitzuaren egungo gehieneko iraupena gehitzen dugu erreferentzia sendo gisa.
- Zerbitzuaren hasiera ordua: 10:00h.
- Zerbitzuaren egungo gehienezko iraupena: 5 ordu.
- Hondakinen entrega puntuak: frakzio bakoitzerako ezarritako entrega puntuak 8.1 puntuan ezarritakoak izango dira.
- Zerbitzu egunak: astelehenetik ostiralera
- Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 8 m^3-ko edukierarekin.
- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat eta peoi bat, frakzio astunenen kasuan, eta txofer-kargatzaile bat frakzio arinenak biltzen diren egunetarako.
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

✓ E05 Lantaldea. Oñatin Hondakin sortzaile Handien frakzio organikoa larunbatetan biltzeko Eguneko Zerbitzua.

- Ibilbidean dauden erabiltzaileen gehieneko kopurua: 61. Kopuru hori aldakorra da egunaren arabera, denboraldiaren arabera edo saltokiak ireki edo ixtearen arabera. Beraz, gutxi gorabeherakoa da, eta zerbitzuaren egungo iraupena gehitzen dugu erreferentzia sendo gisa.
- Zerbitzuaren hasiera ordua: 10:00h.
- Zerbitzuaren egungo iraupena: 6 ordu.
- Hondakinen entrega puntuak: EPELEko Konpostaje Planta (Bergara).
- Zerbitzu egunak: larunbata
- Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 8 m^3-ko edukierarekin.
- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat eta peoi bat.
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Lanaldi berean, ekipo hori frakzio organikoa biltzeko beste ekiporen batekin fusionatuko balitz, jasotako

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 80

pisuak indibidualizatzeko behar den deskarga edo pisaketa egin beharko da.

- Hondakinak bilketa guneetatik helmuga zentroetara eramatea. Entrega zentroak frakzio bakoitzerako edukiontzien bidezko zerbitzuetarako azaldu diren berberak izango dira, eta entrega zentroen aldaketen gainean dokumentu honetan azaldu diren irizpideak ere aplikagarriak izango dira.

- Kamioiaren kanpoaldea garbitzea, gutxienez, V. Eranskinean agertzen den moduan.

- Hala badagokio, bilketa eta garraio lanak, erabiltzaileei ontziak eta edukiontziak entregatzea, Mankomunitateak ezartzen duenaren arabera.

Zerbitzu honetan jasotako materialen pisaketak era bereizian egingo dira, eta kontratistak, hala badagokio, beharrezko tarteko pisaketak egin beharko ditu entrega zentroan utzi aurretik, udalerri bakoitzean jasotako kantitateak behar bezala erregistratuta geratzeko.

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren ibilgailu gehienak atzeko kargakoak eta laguntza lanetarako satelite motako ibilgailuak izango dira, azken horiek ere atzeko kargakoak izanik. Denak edukiera txikikoak izango dira (8 m^3).

8.5 KARTOI KOMERTZIALAREN ETA INDUSTRIALAREN GAIKAKO BILKETA

Zerbitzu hau beheko taulan adierazten diren udalerrietan emango da, hurrengo egutegiaren arabera:

	Frakzioa eta asteko eguna						
Udalerria	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Antzuola	Kartoi komertziala eta industriala (KKel)		KKel		KKel		
Aretxabaleta[18]		KKel		KKel		KKel	
Arrasate[19]		KKel		KKel		KKel	
Bergara[20]	KKel		KKel		KKel		

[18] Aretxabaletako kartoi komertziala eta industriala biltzeko zerbitzua Eskoriatzakoarekin batera egiten da.

[19] Arrasateko kartoi komertzial eta industrialaren zerbitzua bi ekiporen bitartez egiten da, zeinek aldi berean egingo duten zerbitzua lurralde eremu desberdinetan, Arrasate udalerria bi zonatan banatuta.

[20] Bergarari dagokionez, zerbitzua bi ekiporen bitartez egiten da. Horietako batek hirigunean dauden establezimenduetako kartoi komertziala baino ez du jasoko, eta besteak udalerriaren periferian industriak sortutakoa jasoko du. Azken ekipo hori arduratuko da baita ere Antzuolako kartoi komertziala eta industriala eta Elgetako kartoi industriala jasotzeaz.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 80

		Frakzioa eta asteko eguna		
Elgeta	Kartoi Industrial (KI)	KI	KI	
Eskoriatza	KKeI	KKeI	KKeI	
Leintz-Gatzaga	Ez dauka Kartoi Komertziala eta Industriala biltzeko zerbitzu bereizirik			
Oñati	KKeI	KKeI	KKeI	

Kartoi komertziala biltzeko lanak ezingo dira goizeko 10:00ak baino lehen hasi, eta kartoi industriala biltzekoak ere ezingo dira goizeko 8:00ak baino lehen hasi.

Erabiltzaileak kartoia edukiontzi normalizatuan aterako du bilketarako edo, edukiontzirik ez badu, behar bezala tolestuta eta lotuta, eguraldi txarra eginez gero (egun haizetsuak) sakabanatu ez dadin.

Kartoi komertziala eta industriala jasotzea dagokien lantaldeek lan hauek egin beharko dituzte:

- Hondakinen bilketak egitea kontratistak diseinatutako ibilbideen arabera. Bilketa lanak ez ezik, bilketa lanetan gerta daitezkeen gorabeherak identifikatuko dituzte, baita ibilbide bakoitzean zerbitzua erabili duten erabiltzaileak zeintzuk diren ere. Kontratistaren langileek ez dituzte bilduko ezarritako arauak betetzen ez dituzten hondakinak, Mankomunitateak erabakitako irizpideen jarraituz.

  Kontratistak, bilketa ibilbideak egiten dituenean, kontuan hartu behar du alboko kargako edukiontzi guneetan eta esekitokien alboan kartoiak egon daitezkeela, zerbitzu horri atxikitako establezimenduetan bertan egon daitezkeen kartoiez gain. Zentzu horretan, ibilbidea gune horietatik pasatu beharko da, puntu horietan kartoirik dagoen ala ez identifikatzeko eta, baldin badago, jasotzeko. Puntu horietan, halaber, intzidentziak ere identifikatuko dira, eta kartoia agertzen deneko puntuak kodifikatuko dira.

  Irizpide orokor gisa, udalerrietako hiri gune historikoetako kartoi komertziala bilduko da lehenengo, eguerdirako kale horiek libre egon daitezen.

  Hau da kartoi komertziala eta industriala bilduko duten lantaldeen konfigurazioa:

  - E08 Lantaldea. Antzuolako udalerrian kartoi komertziala eta industriala eta Bergarako eta Elgetako udalerrietan kartoi industriala biltzeko eguneko zerbitzua. Ikusi I.XVII. eranskina.

    - Zerbitzuaren hasiera ordua: 8:00h.
    - Zerbitzuaren egungo iraupena: 6,5 ordu.
    - Bildutako puntu kopurua aldakorra da egunaren arabera, denboraldiaren arabera edo aktibitateak ireki edo ixtearen arabera. Beraz, eranskinean

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 80

jasotakoa gutxi gorabeherakoa da, eta zerbitzuaren egungo gehieneko iraupena gehitzen dugu erreferentzia sendo gisa.

- Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
- Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
- Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 12 m^3-ko edukierarekin.
- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Tarteko pisaketa bat egingo da (baskularen edo kamioian instalatutako gailuaren bidez), udalerri ezberdinetan bildutako hondakinen pisuak indibidualizatzeko.

- E35 Lantaldea. Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalerrietan kartoi komertziala eta industriala biltzeko eguneko zerbitzua. Ikusi I.XX. eranskina.

  - Zerbitzuaren hasiera ordua: 8:00h.
  - Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
  - Zerbitzu egunak: asteartea, osteguna eta larunbata
  - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 8 m^3-ko edukierarekin.
  - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko
  - Tarteko deskarga eta pisaketak: Udalerri bakoitzari dagozkion pisuak indibidualizatu beharko dira, tarteko deskarga edo pisatze baten bidez.

- E26 eta E27 Lantaldeak. Arrasateko udalerrian kartoi komertziala eta industriala biltzeko eguneko zerbitzua. Ikusi I.XIX. eranskina.

  - Zerbitzuaren hasiera ordua: 8:00h (industriala) eta 10:00h (komertziala).
  - Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
  - Zerbitzu egunak: asteartea, osteguna eta larunbata
  - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako bi ibilgailu, 12 m^3-ko edukierakoak
  - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko, bilketa ibilbide bakoitzean.
  - Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

- E09 Lantaldea. Bergarako udalerriko hiri gunean kartoi komertziala biltzeko eguneko zerbitzua. Ikusi I.XVIII. eranskina.

  - Zerbitzuaren hasiera ordua: 10:00h.
  - Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
  - Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
  - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 8 m^3-ko edukierarekin.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 80

- Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko
- Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

- E07 Lantaldea. Oñatiko udalerrian kartoi komertziala eta industriala biltzeko eguneko zerbitzua. Ikusi I.XVI. eranskina.

  - Zerbitzuaren hasiera ordua: 8:00h (industriala) 10:00h (komertziala).
  - Hondakinen entrega puntuak: ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresaren HEA-n kudeaketa planta bateratua.
  - Zerbitzu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala
  - Ibilgailu biltzailea: atzeko kargako ibilgailuak, 12 m^3-ko edukierarekin.
  - Ibilbideak egiteko proposatutako langile kopurua: gidari bat ibilgailua gidatzeko eta hondakinak biltzeko
  - Tarteko deskarga eta pisaketak: Ez da behar.

- Hondakinak bilketa guneetatik helmuga zentroetara eramatea. Entrega zentroa edukiontzien bidezko zerbitzuetan papera entregatzeko azaldutakoa da, eta dokumentu honetan entrega zentroen aldaketen inguruan azaltzen diren irizpideak ere aplikagarriak dira.

- Zerbitzuak egiten dituzten hainbat kamioiren kanpoaldea garbitzea da zerbitzu hauetan aurreikusi den garbiketa bakarra. V. Eranskinean proposatzen dira bai zerbitzu bakoitzean erabili beharreko kamioia, bai kamioiari egin beharreko garbiketak eta garbiketa egunak ere.

8.6 PILA ERABILIAK 10 LITROKO ONTZIETAN BILTZEA BAIMENDUTAKO ESTABLEZIMENDUETAN

Kontratista arduratuko da pila erabiliak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua emateaz, establezimendu hauetan kokatutako ontzien bitartez, eskualdeko 8 udalerrietan:

- Dendak.
- Udaletxeak.
- Ikastetxeak.
- Osasun zentroak.
- Beste batzuk.

Erabiltzaileek leku horietan utzi ditzakete beren pila erabiliak, establezimenduen ordutegiaren barruan.

III.IV Eranskinean jasotzen da egun dauden bilketa puntuen zerrenda.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 80

Gaur egun, ontzi marroiak erabiltzen dira, eta esandako lekuetan banatuta daude. Kontratista leku horietara joango da ontziak biltzera, establezimenduak deitu ondoren, eta ontzi huts bat utziko du jasotzen duen ontziaren lekuan. Establezimenduak deitu eta gero, kontratista lekura joan beharko da ontzia hartzera:

- Beranduenez egun berean 18:00ak baino lehen, deia 12:00ak baino lehen egin bada.
- Beranduenez hurrengo egunean 12:00ak baino lehen, deia 12:00ak igaro ondoren egin bada.

Mankomunitateak erabakiko balu esandako lekuetan beste ontzi mota batzuk jartzea edo kale publikoan beste bilketa puntu batzuk ezartzea, kontratistak berdin-berdin egin beharko du bilketa, kontratuko preziorik igo gabe.

Kontratistak ontzietatik jasotako material guztiak bildu, garraiatu eta deskargatu beharko ditu (beren izaera edo osaera edozein dela ere) erabilitako pilak deskargatzeko Mankomunitateak zehazturiko zentroan.

Gaur egun, garbiguneak dira entrega zentroak eta Mankomunitateak berak kudeatzen ditu. Garbigune bakoitzaren zerbitzu eremua errespetatu beharko da:

- Antzuola, Bergara eta Elgetako establezimenduetan jasotako pila erabiliak Bergarako Garbigunean entregatu beharko dira.
- Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako establezimenduetan jasotako pila erabiliak Arrasateko Garbigunean entregatuko dira.
- Oñatin jasotako pila erabiliak Oñatiko Garbigunean entregatuko dira.

Mankomunitateak entrega zentroa aldatzea erabakitzen badu, kontratista behartuta egongo da materialak Mankomunitateak esango dion lekura eramatera, kontratuko preziorik igo gabe, betiere entrega zentroa Debagoieneko eskualdearen eremu geografikoaren barruan baldin badago.

Kontuan izanda zerbitzu hau emateak zein lan karga txikia duen, ez dago lantalde berezirik lan horiek egiteko. Mantentze lanak egiten dituen lantaldea edo zerbitzuaren arduradunak izango dira erabilitako pilak jasoko dituztenak, beraien lan denboratik zati bat horretarako erabiliz.

Kontratistak gutxienez deskribatutako zerbitzua eman beharko du.

8.7 IBILGAILUAREN BITARTEZ EDUKIONTZIAK GARBITZEKO ZERBITZUAK

Mankomunitateak edukiontziak garbitzeko ibilgailu bat du, honako hauek garbitzeko:

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 80

- Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalerrietako EG, LG eta MG guneetan, eta merkatu zein azoka txikietan kokatuta dauden lau gurpileko edukiontziak (1.000 litrokoak). Zerbitzu hau egunez emango da, E62 lantaldearen bitartez.
- Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Eskoriatzan instalatuta dauden alboko kargako edukiontziak.
  Zerbitzu hau bi lantalderen bitartez emango da: Arrasaten (organika, ontzi arinak eta errefusa) eta Elgetan (organika eta ontzi arinak) dauden edukiontzien garbiketaz arduratzen den gaueko lantaldea (E87 lantaldea); eta, bestea, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza (organika, ontzi arinak eta errefusa) eta Elgetako (errefusa) edukiontzien garbiketaz arduratzen den eguneko lantaldea (E88 lantaldea).

Zerbitzu horiek emango dituzten lantaldeak honela egongo dira osatuta:

Lantaldea	Langile kopurua	Bitarteko materialak
E62 Lantaldea	Gidaria Peoia	Edukiontziak garbitzeko ibilgailua
E87 Lantaldea	Gidaria	Edukiontziak garbitzeko ibilgailua
E88 Lantaldea	Gidaria	Edukiontziak garbitzeko ibilgailua

Edukiontzien garbiketa optimizatzeko, garbiketa ibilgailuak edukiontziak hustu eta berehala egingo ditu bere lanak.

Lau gurpileko edukiontzien garbiketari dagokionez, eta kontuan izanda hondakin horien bilketaren zati bat (Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko EG eta MG guneetan jasotakoak) Mankomunitatearen bilketa zerbitzu propioek egiten dutela, kontratista Mankomunitatearen bilketa zerbitzuekin koordinatuta egon beharko da, baita kontratistaren bilketa zerbitzu propioekin ere, ziurtatzeko garbituko den edukiontzia hutsik dagoela.

Hau da 4 gurpileko edukiontzien garbiketarako, Mankomunitateak proposatzen duen planifikazioa:

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 80

	Garbiketa egunak / Días limpieza						
Herriak / Municipios	**02_Asteartea/Martes**	**03_Asteazkena/Miércoles**	**04_Osteguna/Jueves**	**05_Ostirala/Viernes**	**06_Larunbata/Sábado**	**07_Igandea/Domingo**	**Total orokorra**
Antzuola	**6**				**1**	**3**	**10**
Ekarpen Gunea (EG)	2					1	3
Larrialdi Gunea (LG)	2					1	3
Minigunea (MG)	2				1	1	4
Aretxabaleta		**7**	**1**	**11**			**19**
Arraindegiak				2			2
Ekarpen Gunea (EG)		5		3			8
Minigunea (MG)		2	1	6			9
Arrasate					**9**		**9**
Minigunea (MG)					9		9
Bergara		**15**	**2**	**14**			**31**
Arraindegiak				5			5
Ekarpen Gunea (EG)		2		1			3
Industria		1	1	1			3
Minigunea (MG)		12	1	7			20
Eskoriatza	**7**					**7**	**14**
Minigunea (MG)	7					7	14
Leintz-Gatzaga	**4**				**1**	**3**	**8**
Ekarpen Gunea (EG)	3				1	2	6
Minigunea (MG)	1					1	2
Oñati		**29**		**17**	**6**		**52**
Autokarabanak		1					1
Ekarpen Gunea (EG)		8		4	3		15
Larrialdi Gunea (LG)		2		1	2		5
Minigunea (MG)		18		12	1		31
Total orokorra	**17**	**51**	**3**	**42**	**17**	**13**	**143**

III.II eranskinean 1.000 litroko edukiontziei buruzko xehetasun gehiago jaso dira.

Tauletan ikus daitekeenez, asteko egunetan garbitu daitezkeen edukiontzien kopurua oso desberdina da; horrela, garbiketa lan-kargarik altuena asteazkenei eta ostiralei egokituko litzaieke (ontzi arinen eta errefusaren frakzioei), eta kargarik txikiena osteguneko frakzio organikoari.

	Garbiketa egunak / Días de limpieza						
Frakzioa / Fracción	**02_Asteartea/Martes**	**03_Asteazkena/Miércoles**	**04_Osteguna/Jueves**	**05_Ostirala/Viernes**	**06_Larunbata/Sábado**	**07_Igandea/Domingo**	**Total orokorra**
Errefusa-Rechazo				42	7	13	62
Ontziak-Envases	17	51					68
Organika-Orgánica			3		10		13

Nolanahi ere, 1.000 litroko edukiontzi horietarako proposatutako garbiketa-maiztasuna bi astean behinekoa da. Maiztasun horri esker, asteazken eta ostiraletako ibilbideko garbiketa-karga banatu daiteke.

Era berean, eta osteguneko kasuan, lan-karga oso txikia denez (1.000 litroko hiru edukiontzi), garbiketa-lan horiek beste batzuekin osatzea proposatzen da, adibidez, ekarpen-puntuak garbitzea, edota, edukiontzien kanpoaldea garbitzea presiozko pistolaren bidez.

Modu berean, alboko kargako edukiontzien garbiketaren kasuan, zerbitzua egoki emateko, kontuan hartu behar dira alderdi hauek:

- Frakzio organikoaren edukiontziak hustu eta berehala garbituko dira, eta edukiontzien bilketarekin txandakatuta, beraz, bilketa ibilbide bakoitzaren garbiketarako bi ibilbide eginez organikoarentzat instalatutako edukiontzi guztiak garbitzea legoke.

- Errefusaren eta ontzi arinen edukiontzien garbiketari dagokionez, kontuan hartu behar da horien bilketa husteko premien arabera egiten dela; beraz, beharrezkoa izango da garbiketako ibilbide asko egitea, egun desberdinetan, instalatutako edukiontzi guztiak garbitu ahal izateko.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 36. orrialdea, guztira 80

- Paperaren edukiontziak ez dira barrutik garbituko. Edukiontzi horien kanpoaldea hidrogarbigailu batekin garbituko da, hiriko ekarpen guneak garbitzen diren une berean, hilean behin, bai alboko kargako edukiontzien kasuan, bai EG, LG eta MGetan kokatutako atzeko kargako paperezko edukiontzi guztien[21] kasuan ere.

- 1.000 litroko edukiontzien eta alboko kargako edukiontzien kasuan, ur beroarekin eta xaboiarekin egin beharko dira garbiketak. Erabili beharreko xaboia edukiontzi bakoitzean utzitako hondakinaren izaeraren ondoriozko garbiketa-beharretara egokitu beharko da. Kontuan izan behar da erabiltzaile askok edukiontzira zuzenean botatzen dituztela beren hondakinak, inolako poltsarik gabe.

  Era berean, garbiketa-produktuei dagokienez, ingurumenean inpaktu txikiena eragiten duten irtenbideak hartu beharko ditu kontratistak, ahal den neurrian produktu kimiko arriskutsuak erabiltzea saihestuz. Garbiketetan ur beroa erabiltzeak lagunduko du helburu hori lortzen.

- Edukiontzien kanpoaldea garbitzeko lanetan, zerbitzuan jarritakoak ez diren itsasgarriak eta pintadak ere ezabatu egin beharko dira edukiontzi guztietatik

- Aurreikusi da alboko kargako edukiontziak hamabost egunean behin garbitzea (bi astean behin, paper-kartoizko alboko edukiontzien kasuan izan ezik, horientzat ez baita aurreikusten barruko garbiketarik egitea).

Hurrengo taulan agertzen da alboko kargako edukiontzi guztien garbiketarako gomendatzen den plangintza:

Asteko eguna	Aste zk.	Lantaldea	Txanda	Frakzioa	Udalerriak
Astelehena	1	E87	Gauez	Ontziak	Arr-Elg
	2	E87	Gauez	Ontziak	Arr-Elg
Asteartea	1	E88	Egunez	Organikoa	Are-Ber-Esk
	2	E88	Egunez	Organikoa	Are-Ber-Esk
	1	E87	Gauez	Ontziak	Arr-Elg
	2	E87	Gauez	Ontziak	Arr-Elg
Asteazkena	1	E88	Egunez	Ontziak	Are-Ber-Esk
	2	E88	Egunez	Ontziak	Are-Ber-Esk
	1	E87	Gauez	Ontziak	Arr-Elg

[21] "Guztiak" dira bai lau gurpilekoak bai bi gurpilekoak.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 80

Asteko eguna	Aste zk.	Lantaldea	Txanda	Frakzioa	Udalerriak
Osteguna	1	E88	Egunez	Ontziak	Are-Ber-Esk
	1	E87	Gauez	Organikoa	Arr-Elg
	2	E87	Gauez	Organikoa	Arr-Elg
Ostirala	1	E88	Egunez	Ontziak	Are-Ber-Esk
	2	E88	Egunez	Errefusa	Are-Ber-Esk
	1	E87	Gauez	Errefusa	Arr
	2	E87	Gauez	Errefusa	Arr

Edukiontziak garbitzeko ibilgailua urez betetzeko horniketa sare publikoko ura erabili behar bada, kontratistak organismo eskumendunaren beharrezko baimenak eduki beharko ditu hori egin ahal izateko.

8.8 BI GURPILDUN EDUKIONTZIEN GARBIKETA EKARPEN GUNEAN

Garbiketa lan hauek landa izaerako EG eta MG ekarpen guneetan kokatutako bi gurpileko edukiontzietan zentratzen dira, bai eta Antzuolako eta Oñatiko udalerrietako LG guneetan kokatutakoetan ere, eta interes bereziko bilketa-guneetan (Eskoriatzako azoka eta Bergara eta Oñatiko autokarabanen eremua).

Lan horien programazioa honela definitzen da:

	Garbiketa egunak / Días de limpieza						
Herriak / Municipios	02_Asteartea/Martes	03_Asteazkena/Miércoles	04_Osteguna/Jueves	05_Ostirala/Viernes	06_Larunbata/Sábado	07_Igandea/Domingo	Total orokorra
Antzuola					**2**		**2**
Ekarpen Gunea (EG)					1		1
Larrialdi Gunea (LG)					1		1
Aretxabaleta			**4**				**4**
Ekarpen Gunea (EG)			2				2
Minigunea (MG)			2				2
Bergara		**3**	**12**	**5**			**20**
Autokarabanak		1		1			2
Ekarpen Gunea (EG)			4				4
Minigunea (MG)		2	8	4			14
Eskoriatza	**1**				**5**	**1**	**7**
Minigunea (MG)	1				5	1	7
Leintz-Gatzaga	**2**				**1**	**3**	**6**
Minigunea (MG)	2				1	3	6
Oñati		**5**		**8**	**16**		**29**
Autokarabanak				1	1		2
Ekarpen Gunea (EG)				2	2		4
Larrialdi Gunea (LG)				2			2
Minigunea (MG)		5		3	13		21
Total orokorra	**3**	**8**	**16**	**13**	**24**	**4**	**68**

	Garbiketa egunak / Días de limpieza						
Frakzioa / Fracción	02_Asteartea/Martes	03_Asteazkena/Miércoles	04_Osteguna/Jueves	05_Ostirala/Viernes	06_Larunbata/Sábado	07_Igandea/Domingo	Total orokorra
Errefusa				13		4	17
Ontziak	3	8					11
Organika			16		24		40
Total orokorra	**3**	**8**	**16**	**13**	**24**	**4**	**68**

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 80

III.II. eranskinean bi gurpileko edukiontziei buruzko xehetasun gehiago jasota daude.

Era berean, zerbitzu honek ondorengoa izan beharko du kontuan:

- Zoruaren gainean ur zikinak deskargatu eta horren ondorioz lurzoruak kutsatzea ekiditeko, edukiontzi horien garbiketatik datozen ur zikinak jasotzeko egokitutako ibilgailu batekin egingo dira beti, edo, horrela ezean, garbiketarako prestatuta dauden instalazioetan [22]. Hauek dira instalazio horiek:

    1. Antzuolako EGa: San Josepeko ekarpen gunean instalatuta dauden bi gurpileko edukiontziak garbitu ahal izango dira.
    2. Aingeru Guardako LGa (Eskoriatza). Aretxabaletan eta Eskoriatzan instalatuta dauden bi gurpileko edukiontziak garbitu ahal izango dira.
    3. Garagaltzako LGa (Oñati). Oñatin instalatuta dauden bi gurpileko edukiontziak garbitu ahal izango dira.
    4. Enpresa kontratistaren instalazioak. Gaur egun, ibilgailuak gordetzeko instalazioak, tailerra, bulegoak eta aldagelak Bergaran daude, eta guztiz baliozkoak dira behar horiei erantzuteko.

- Frakzio organikoa, errefusa eta ontzi arinen edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitu beharko dira. Papera eta kartoia jasotzeko diren edukiontziak kanpoaldetik garbituko dira, hilean behineko maiztasunarekin.

- Garbiketa puntuetatik urrun dauden edukiontziak garbitzeko, presiopeko ur-ekipoa erabiliko da, ur zikinak aterata, edo edukiontzi horiek furgoian edo antzeko ibilgailuan eramango dira tratamendu sistemara hustubidea duen garbiketa-puntu bateraino.

  Azken irtenbide hori hartuz gero (hustubidea duen garbiketa-puntura eramatea), eta zerbitzua ez dela etengo ziurtatzeko, edukiontziak kendu eta gero garbitu egingo dira, eta, horretarako, kendu diren edukiontzien ordez, erabiltzaileek erabili ahal izango dituzten beste edukiontzi batzuk jarriko dira, garbiketa-lanek irauten duten bitartean. Ordezteko edukiontzi horiek, gainera, garbitu beharreko edukiontzietan bilketa-lanetatik pilatu ahal izan diren hondakinak bertan deskargatzeko aukera emango dute.

- Garbiketa-lanak egin ondoren, lurrera eroritako hondakinak kenduko dira, eta ingurua garbi eta bilduta utziko da.

Kontratistak garbiketak horretarako egokitutako puntuetan egitea erabakitzen badu, edukiontzien lekualdaketa zerbitzua aurretik zehaztutako taularen arabera eman ahal izateko adinako gaitasuna duen ibilgailu batean egingo da.

[22] Instalazio hauetan txorrotako ura eta urak husteko sarea egongo da. Garbitzeko guneetan egiazki garbitu ahal izateko elementuak egon daitezke, esaterako, mahuka bat eta lantza bat. Egon ezean, kontratistak, Mankomunitateak bere esku utziko dion hidrogarbigailu bat eta ekipo elektrogeno bat eraman ahal izango du. Kontratistaren erantzukizuna izango da garbiketak eraginkortasunez egin ahal izateko beharrezko materiala eramatea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orrialdea, guztira 80

Zerbitzu hori emateaz arduratuko den lantaldea E63 lantaldea izango da.

Aurreikusi da zerbitzu hori emateko soilik peoi-gidari bat erabiltzea.

Zerbitzu horren maiztasuna honako hau da: edukiontzien barruko garbiketa bi astean behin; eta kanpokoa, hilean behin.

8.9 ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK DITUZTEN HIRIGUNEKO EKARPEN GUNEEN GARBIKETA ETA PAPER-KARTOIAREN FRAKZIOKO EDUKIONTZIEN KANPOKO GARBIKETA

Hau izango da zerbitzu horren zeregina:

1. Hilean behin alboko kargako edukiontziak dituzten ekarpen puntuak garbitzea.
2. Hilean behin alboko kargako edukiontziak kanpotik garbitzea, baita izan ditzaketen zerbitzuan jarriak ez diren itsagarriak eta pintadak kentzea.
3. Hilean behin 2 eta 4 gurpileko atzeko karga-edukiontzien kanpoaldea garbitzea, zerbitzuan jarriak ez diren itsasgarriak eta pintadak barne.

Zerbitzu hori 8.7 puntuan (E62 taldea) eta 8.8 puntuan (E63 taldea) zehaztutako edozein zerbitzurekin batera eman ahal izango da, kontratistak bere langileen lanaldiak doitzeko dituen beharren arabera.

Zerbitzu horiek emateko baliabide materialak honako hauek izango dira: edukiontziak garbitzeko kamioian instalatutako hidrogarbigailua, edo garbiketa intentsiboetako ekipoan instalatutako hidrogarbigailua[23].

Edukiontziak garbitzeko ibilgailua urez betetzeko horniketa sare publikoko ura erabili behar bada, kontratistak organismo eskumendunaren beharrezko baimenak eduki beharko ditu hori egin ahal izateko.

8.10 IRISTEKO LEKU ZAILETAN DAUDEN ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK HARTZEKO ZERBITZUA

Kokapenagatik (kale estuak, galibo mugatua duten kaleak, etab.) lekuan bertan deskargatu edo garbitu ezin diren edukiontziak hustu ahal izateko pentsatu da zerbitzu hau. Zehazki, alboko kargako bilketa puntu hauei eragiten die zerbitzuak, bai eta puntu horietan instalatuta dauden edukiontzi hauei ere:

[23] Kontratua sinatu ondoren, Mankomunitateak atoi bat jarriko du kontratistaren esku, lurrun bidezko garbiketa-ekipoarekin, hidrogarbigailuarekin, ur-biltegiarekin eta multzo elektrogenoarekin, modu autonomoan jardun ahal izateko, kontratistak lan horiek egiteko aurreikusitako ibilgailu berria jaso arte (garbiketa intentsiboko ekipoa. Ikus VII. eranskina); kontratua sinatzen denetik gehienez 1,5 urteko epean..

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 80

Udalerria	Bilketa puntua	Edukiontziak
Arrasate	040	4 edukiontzi
	057	4 edukiontzi
	103	4 edukiontzi
	114	4 edukiontzi
Bergara	222	4 edukiontzi
	224	2 edukiontzi
	225	2 edukiontzi
	226	2 edukiontzi
	232	3 edukiontzi
	237	4 edukiontzi
	260	2 edukiontzi

Zerbitzu hau emateko ibilgailu arin bat erabiltzen da, zeinak edukiontzia dagoen tokitik hartu eta beste puntu batera eramaten duen, kamioiak hartu ahal izateko eta geroago, hustu ondoren, berriro hasierako posiziora eramateko. Ibilgailu horrek 2 edukiontzi jaso eta eraman ditzake bidaia bakoitzean.

Zerbitzuak kontuan hartu behar du zer posiziotan kentzen dituen edukiontziak kamioiak edukiontzia ondo hustu ahal izateko, eta berriro hasierako posizioan eta lehen zegoen moduan uzteko. Xehetasun honek garrantzia berezia dauka kale estuetan dauden edukiontziak mugitu behar direnean, eta hormaren kontra eta hondakinak botatzeko ahoa edukiontzia jasoko den alde berean duten edukiontziak mugitu behar direnean.

Gainera, zerbitzu honek kontuan hartu beharko du bilketa zerbitzuekiko sinkronizazioa, baita garbiketa zerbitzuekikoa ere, bilketa eta garbiketa kamioiek beti eskura eduki dezaten zerbitzu honek lekuz aldatu duen edukiontzia, bilketa eta garbiketa zerbitzuek geldialdirik egin beharrik gabe.

Edukiontziak garraiatzeko zerbitzu hau egunez emango da, Bergaran kokatutako alboko kargako edukiontzien bilketaren kasuan (E90 Lantaldea) eta gauez, Arrasaten kokatutako alboko kargako edukiontzien kasuan (E89 Lantaldea).

Zerbitzu hau emateko, lantalde bakoitzak peoi-gidari bat izango du.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 80

8.11 ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIEN KANPOALDEAN UTZITAKO HONDAKINEN AURRE-BILKETA

Zerbitzu honen eginkizuna da edukiontzien inguruetatik kentzea erabiltzaileek, arrazoia edozein izanda ere, edukiontziaren barruan sartu ez dituzten poltsak.

Zentzu horretan, lan hauek egiten dituen langileak baloratu beharko du zein den edukiontzirik egokiena kanpoan utzitako hondakina botatzeko, hondakinaren kudeaketa egokiari lehentasuna emanda. Edonola ere, hondakin horiek edukiontziaren barruan uzteak ez du ekarri behar jada edukiontzian dagoen frakzioa kutsatzea.

Edozein arrazoi dela medio, poltsa horietakoren bat jasoko duen edukiontzia guztiz beteta badago, hurrengo ekarpen-eremuko edukiontzian deskargatzea erabakiko da.

Arrazoi operatiboengatik eta zerbitzuaren efizientziagatik, posible da poltsa horiek ibilgailuan pilatzea, ondoren deskarga batera egiteko.

Halere, kontuan hartu beharko da poltsak deskargatu ondoren jaso dituen edukiontzia ezin dela % 80tik gora beteta utzi. Hala bada, karga hainbat edukiontziren artean banatu beharko da, betetze-maila hori horren handia izan ez dadin. Ontzi arinen eta papera-kartoiaren kasuan, ezingo dira horretarako erabili zerbitzu-egun horretan bertan hustuko ez diren edukiontziak.

Zerbitzua ematen duen lantaldea igaro ondoren, alboko kargako edukiontzien gunea garbi eta hondakinik gabe geratuko da (bolumen handiko objektuak salbu), eta edukiontziaren inguruak erraztatu beharko dira, hala behar izanez gero.

Bereziki arriskutsua den hondakinen bat ikusiko balitz (adibidez fibrozementoa), langileak bere arduradunari jakinarazi beharko dio, eta hark Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei.

Zerbitzu hori ematen duen lantaldea edukiontziak garraiatzeko ibilgailuen zerbitzua egiten duena izango da; E89 eta E90 lantaldeen bitartez.

8.12 IBILGAILU, ESEKITOKI ETA LG ETA MG GUNEETAN KOKATUTAKO EDUKIONTZIEN MANTENTZE LANAK.

Kontratistak bere jabegoko instalazio finkoetan egin behar dituen mantentze lanak ez ezik, honako elementu hauetan ere egin beharko ditu mantentze lanak:

- ✓ <u>Hondakinak biltzeko ibilgailuak, garbiketako ibilgailuak eta ibilgailu osagarriak:</u> Kontratistaren ardura izango da etxeko hondakinen bilketarako zerbitzuari atxikitako ibilgailu guztien mantentze lanak egitea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 80

Kontratuaren hasieran, Mankomunitateak kontratari entregatuko dizkio zerbitzua emateko beharrezkoak diren ibilgailuak, zerbitzua emateko baldintza egokietan. Hauek dira baldintza horiek:

1. IATa behar bezala edukitzea.
2. Zati mekaniko, elektriko eta elektroniko guztiak operatibo egotea, eta ondo funtzionatzea.
3. Pneumatikoak egoera onean.
4. Segurtasun elementu guztiek ondo funtzionatuko dute.
5. Ibilgailuak garbi egongo dira (kanpotik eta barrutik), eta itxura ona edukiko dute pinturari eta serigrafiei dagokienez.

Mankomunitatearenak diren ibilgailuetan, Mankomunitateak egiaztatuko du mantentze lan prebentzioak ondo egiten direla (iragazkien aldaketa, olio aldaketak, konexio malguak, IAT, etab.) eta ibilgailuen mantentze lanak behar bezala egiten direla bermatzen duen dokumentazio osoa eskatu diezaioke kontratari, gutxienez sei hilean behin. Dokumentazio hori txosten formatuan entregatuko da, eta txosten horri honen gaineko dokumentazioa erantsiko zaio:

1. Kontrataren mekanikoaren lan partea edo kanpoko mekaniko batena (ibilgailua tailer batera eraman bada).
2. Ordeztutako elementuen fakturak, edo kanpoko tailerraren faktura, edo IAT-ekoa.
3. Mantentze lanak egin zaizkionean ibilgailuak eginak zituen kilometroak.
4. Lantaldeak mantentze lanetan emandako orduak.
5. Zerbitzuari atxikitako ibilgailu bakoitzari egin zaizkion mantentze lan guztien laburpen taula.

Matxura batengatik, gaizki funtzionatzeagatik edo istripu batengatik egindako mantentze lan zuzentzaileei dagokienez, kontratak hau egin beharko du:

1. Mankomunitateari egoeraren berri emango dio berehala.
2. Mankomunitateari alternatiba bat proposatuko dio zerbitzuak kalterik eduki ez dezan, matxura konpondu bitartean.
3. Mantentze lan prebentiboetan bezala, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko du (dokumentu bakarrean dokumentazio osoa elkartzea).

Paragrafo hauetan esandako guztiak ibilgailuari berari aplikatuko zaio, bai eta ibilgailuak daraman lan ekipoari ere (biltzailea, edukiontzi garbitzailea, garabia, etab).

Mankomunitateko mekanikoak berrikusiko du aurkeztutako txostena, eta berak egingo ditu beharrezko egiaztapenak, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei horren berri emanda. Kontratak mekanikoaren lana erraztuko du, hark eskatzen dion dokumentazio osagarri guztia emanez.

Era berean, eta kontratistak Mankomunitateari sei hilean behin entregatzen dizkion txostenak osatzeko, urtean behin Mankomunitateko mekanikariak ibilgailuen flota osoa

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 80

berrikusi dezake, ibilgailuen egoera eta beharrezko mantentze lanak nola gauzatu diren ebaluatzeko.

Mankomunitateak antzematen badu kontratak axolagabekeriaz jokatu duela bere ibilgailuen eta ekipoen mantentze lanak egiterakoan, egoera zuzentzeko eskatuko dio berehala, arrazoi horregatik ezarri ahal dizkion zehapenez aparte.

Kontratuaren amaieran, kontratak ibilgailuak entregatu beharko dizkio Mankomunitateari, berari eman zizkion egoera berean, operatibitateari dagokionez, eta Mankomunitateak kontratari ibilgailuak entregatzean bete ziren baldintza eta prozedura berberak betez.

Kontratak Mankomunitateari itzuliko dizkion ibilgailuak egiaztatzeko prozedura kontratua amaitzeko hiru aste falta direnean egingo da, kontratua amaitzen denean ibilgailuak operatibo egon daitezen, eta hurrengo kontratuaren esleipendunari entregatzeko moduan.

Entregaren unean, aldeak ados ez badaude ibilgailuen eta ekipoen egoeraren gainean, Mankomunitateak beharrezkotzat jotako konponketak egin ahal izango ditu ibilgailua zirkulatzeko moduan egon dadin eta zerbitzua segurtasunez eman ahal izateko. Horrez gain, kontratistari konponketen kostuak egotziko zaizkio, bai eta dagozkion zehapenen kostuak ere.

- ✓ Atzeko kargako edukiontzi publikoak Kontratistaren ardura izango da etxeko hondakinen bilketarako zerbitzuari atxikitako atzeko kargako edukiontzi guztien mantentze lanak egitea. Hauek izango dira edukiontzi horiek:

    1. Landa izaerako ekarpen guneetan (EG eta MG) kokatuta dauden bi eta lau gurpileko edukiontziak.
    2. LG guneetan kokatutako bi eta lau gurpileko edukiontziak.
    3. Kale garbiketako hondakinak biltzeko erabiltzen diren atzeko kargako edukiontziak.
    4. Azoka, festa eta ekitaldietan erabiltzen diren bi eta lau gurpileko edukiontziak.

  Mankomunitateak edukiontzi batek gaizki funtzionatzen duela edo edukiontzi bat apurtu dela dakienean, kontratistari eskatuko dio edukiontzia konpontzeko, edo, kasu larrietan, edukiontzia ordezteko.

  Akatsak kontrataren bilketa eta kontrol zerbitzuek antzematen badituzte, berriz, kontratistak berak esku hartuko du berehala, eta Mankomunitateari jakinaraziko dio.

  Gutxienez hilean behin, kontrataren beraren kontrol zerbitzuek ikuskapen bat egingo dute ikusteko edukiontziak nola dauden eta identifikatzeko ea mantentze lanen bat edo konponketaren bat behar duten edo ordeztu behar diren. Hileroko ikuskapen hau akta edo agiri batean jaso beharko da, eta akta edo agiri hori mantentze lanen erregistroan gehituko da.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 80

Kontratak edukiontzien parkean egindako mantentze lanak erregistratuko ditu, eta erregistro hori Mankomunitateari entregatuko dio, sei hilean behin, formatu digitalean.

Edukiontzi bat edo gehiago ordeztu behar direnean, kontratistak edukiontziak desmuntatu eta ondoren konponketetan ordezko pieza bezala erabili ahal izango diren piezak gordeko ditu. Kendutako eta gordetako pieza horiek mantentze lanen erregistroan adieraziko dira.

Mankomunitatea arduratuko da kontratari berritu beharreko materiala emateaz; baldin eta edukiontziak berrezartzea eragin duten hausturak kontrataren manipulazio txarraren ondorio izan ez badira. Hala balitz, kontratistak berak egin beharko luke ordezkapena, Mankomunitateari gastu gehigarririk eragin gabe.

- ✓ Esekitokiak. Kontratistaren ardura izango da Mankomunitatearen lurralde eremuan instalatutako esekitoki guztien mantentze lanak egitea.

  Esekitokien mantentze lanak edukiontzienak kudeatzen diren modu berean kudeatuko dira, eta bermatu egingo da une oro esekitokiak operatibo egotea.

  Esekitoki bat berritzean zoruan edo hormigoizko azalera batean ainguratu behar bada edo hormigoizko azalera hori konformatu ere egin behar bada, lan horiek ere kontratistaren kontura izango dira. Kontratista ezin izango da 48 ordu baino gehiago atzeratu esekitoki bat birjartzeko, Mankomunitateak hura jartzeko agindua eman ondoren.

  Ordezpen lanak bukatu eta gero, Mankomunitateak lanei oniritzia beharko die.

  Mankomunitateak esekitokien stock bat edukiko du beharrezko ordezpenak egin ahal izateko.

  Era berean, Mankomunitateak erabakiko du nora eramango den ordeztutako materiala, eta kontratak eramango du material hori eskatutako lekura (Mankomunitatearen lurralde eremuaren barruan).

  Urbanizazio, berrurbanizazio edo bilketa-sistemaren hobekuntzetatik eratorritako ezarpen berriak betebehar horietatik kanpo geratuko dira.

Lan horiek egiteko, kontratistak beharrezko langileak eta bitarteko materialak edukiko ditu.

Dena dela, Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen du gutxienez **mekanikari bat edukitzea lan jardunaldi osoan**, soilik ibilgailuen parkearen kudeaketa zuzenerako, eta mekanikariak **peoi-gidari baten laguntza edukitzea, edukiontzien eta esekitokien mantentze lanetarako**, piezak ordezkatzeko, matxura txikiak konpontzeko eta tailerreko elementurik behar ez dituzten lanak egiteko ezagutza nahikoekin.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 45. orrialdea, guztira 80

Hala ere, ibilgailuak eta horien ekipoak behar bezala mantentzen direla bermatzeko giza baliabideak nahikoak ez badira, kontratistak kontratuaren esku jarri beharko ditu helburu hori lortzeko behar diren giza baliabide eta baliabide materialak.

8.13 AZOKA, JAI ETA EKITALDIETAN SORTZEN DIREN HONDAKINEN BILKETA

Ospakizunetan eta beste ekitaldi batzuetan, hala nola jai herrikoietan, ekitaldi publikoetan, ospakizunetan, txosnetan, azoka berezietan, kale publikoetako kontzertu eta dantzaldietan, kirol edo kultur kontzentrazioetan, politikoetan eta bestelakoetan (kilometroak, Puntarik Punta, etab.), eta urtaroen araberako aldaketetan (Gabonak, etab.), eta oro har hondakin gehiago sortaraziko duten egoeretan, kontratistak beharrezkoak diren aparteko edukiontziak jarriko ditu, Udalaren premien arabera eta Mankomunitatearen jarraibideen arabera, eta edozein astetako edozein egunetan (laneguna edo jaieguna), honetarako:

- ✓ Herritarrek eta parte hartzaileek oro har erabiltzeko.
- ✓ Kale garbiketarako udal zerbitzu berezietarako. Edukiontzi horiek kale garbiketarako zerbitzuek baino ezingo dituzten erabili.

Edukiontzi mota biak 3 aldiz ere jasoko ditu kontratistak egunean (gauean, goizean eta eguerdian), Mankomunitatearen Ingurumen Zerbitzuak erabakitako premiaren arabera.

Edukiontzi horiek zer frakziotarako erabili diren begiratuko da eta horren arabera hustuko dira, eta ondoren, ekitaldia amaitu eta gero, bide publikotik kenduko dira.

Arrazoiak edozein izanda ere, ekitaldia amaitu eta hurrengo 12 orduetan edukiontzia husterik ez balego, kontratistak edukiontziak zigilatu beharko lituzke inork barruan ezer sartu ez dezan eta ondorioz, inpropio kopurua handitu.

Hondakinak biltzeko ohiko zerbitzuekin eta kale garbiketarako zerbitzuekin sinkronizatuz saiatuko da hondakinak ahalik eta lasterren biltzen. Hori dena, zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuta eta mankomunitatearen zerbitzu teknikoaren eta udalerri bakoitzak kale garbiketarako duen zerbitzuaren jarraibideen menpe.

Frakzio jakin baterako edukiontzi nahikorik ez balego, beste frakzio batzuetako edukiontziak erabili ahal izango lirateke, beti ere, ondo identifikatuta zer frakziotarako erabili nahi diren.

Frakzio organikoaren kasuan, ezingo da ekitaldia amaitu ondoren 48 ordu baino gehiagotan edukiontzian egon.

Ekitaldi mota horretarako jartzen diren edukiontziak garbi eta erabat erabilgarri egon beharko dira.

Atal honetan ezarritakoa aplikagarria da, halaber, salbuespenezko egoeretan edo ustekabeko egoeretan, hondamendietan edo antzekoetan, esaterako. Kasu horietan, kontratista behartuta

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 46. orrialdea, guztira 80

egongo da beharrezkoak diren edukiontziak instalatzera eta bilketa gehiago egitera, Mankomunitatearen jarraibideen arabera.

8.14 AZOKA ETA AZOKA TXIKIETAN SORTUTAKO HONDAKINEN BILKETA

Azoka ibiltarietan eta azoka txikietan, hondakinak azoka ospatzen den aldiro jasoko dira, azoka bukatu, salmahaiak jaso, eta hondakin guztiak horretarako ezarritako edukiontzietan utzi ondoren.

Azoka eguna jaieguna delako edo beste edozein arrazoirengatik aldatzen bada, hondakinak azoka edo azoka txikia egiten den egunean jasoko dira.

Gaur egun, azoketako eta azoka txikietako hondakinak honela kudeatzen dira:

Mota	Lekua eta udalerria	Eguna	Frakzioa	Nora	Bilketa eguna	Bilketaren arduraduna
Azoka eta azoka txikia	Antzuola (Herriko Plaza)	Ostirala	Denak (Udal langileak)	Antzuolako LGa	HZA lantaldearen egutegiaren arabera	Kontratista
Azoka eta azoka txikia	Aretxabaleta (Gernika Plaza)	Astelehena	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Asteartea, E17-61 lantaldearekin	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Ostirala, Mankomunitatearen lantaldearekin	Mankomunitatea
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Asteartea, E35 lantaldearekin	Kontratista
Azoka	Arrasate (Mondragones Kalea)	Asteazkena	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Osteguna, E41-42 lantaldearekin Larunbata, E17-61 lantaldearekin (organika zerbitzua).	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Asteazkena, Antzuolan eta Oñatin pixoihalen aurre egiten duen lantaldearekin E06 Lantaldea Larunbata, E17-61 lantaldearekin (errefusa zerbitzua)	Kontratista
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Osteguna, E26 edo E27 lantaldearekin	Kontratista
			Egur kutxak	Pilatuta	Asteazkena, Mankomunitatearen lantaldearekin	Mankomunitatea

Baliozkotze kodea: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/es/Publico/Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 47. orrialdea, guztira 80

Mota	Lekua eta udalerria	Eguna	Frakzioa	Nora	Bilketa eguna	Bilketaren arduraduna
		Ostirala	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Ostirala, E41 lantaldearekin	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61(errefusa zerbitzua)	Kontratista
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E26 edo E27 lantaldearekin	Kontratista
			Egur kutxak	Pilatuta	Ostirala, Mankomunitatearen lantaldearekin	Mankomunitatea
Azoka	Bergara (Merkatuko Plaza)	Larunbata	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin (organika zerbitzua)	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin (errefusa zerbitzua)	Kontratista
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Astelehena, E09 lantaldearekin	Kontratista
Azoka eta azoka txikia	Elgeta (Mendizaleen Plaza)	Astelehena	Denak (Udal langileak)	Alboko kargako edukiontziak	E81, E82, E83 eta E94 lantaldeen egutegiaren arabera	Kontratista
Azoka eta azoka txikia	Eskoriatza (Eduardo Gorosarri Plaza)	Ostirala	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Igandea, HZA lantaldearekin	Mankomunitatea
			Ontziak	Atzeko kargako edukiontzia	Asteartea, HZA lantaldearekin	Kontratista
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E35 lantaldearekin	Kontratista
Azoka eta azoka txikia	Leintz-Gatzaga	Ez da ez azokarik ez azoka txikirik egiten astero				
Azoka eta azoka txikia	Oñati (Merkatuko Plaza)	Larunbata	Organikoa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin (organika zerbitzua)	Kontratista
			Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin (errefusa zerbitzua)	Kontratista
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Astelehena, E07 lantaldearekin	Kontratista

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 48. orrialdea, guztira 80

Mota	Lekua eta udalerria	Eguna	Frakzioa	Nora	Bilketa eguna	Bilketaren arduraduna
Azoka txikia	Arrasate (Laubide Plaza)	Ostirala	Errefusa	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E17-61 lantaldearekin (errefusa zerbitzua)	Kontratista
			Ontziak	Atzeko kargako edukiontzia	Asteazkena, Mankomunitatearen lantaldearekin	Mankomunitatea
			Papera-kartoia	Atzeko kargako edukiontzia	Larunbata, E26 edo E27 lantaldearekin	Kontratista
Azoka txikia	Bergara (Martin Agirre Deunaren Plaza)	Larunbata	Denak (Udal langileak)	Alboko kargako edukiontziak	E84, E85, E86 eta E94 lantaldeen egutegiaren arabera	Kontratista

Azoka eta azoka txikietako hondakinak biltzeko zerbitzuen banaketa eta diseinua goiko taulan ezarritakoa badira ere, Mankomunitateak ez du baztertzen plangintza horretan aldaketak egin ahal izatea; eta, hori gertatuko balitz, kontratistak erantzun egin beharko luke, zerbitzuaren kostu globala handitu gabe, betiere zerbitzu berria ematen ari diren gainerako zerbitzuekin bateragarria bada.

Behar izanez gero, kontratista behartuta egongo da noizean behin jarduera horien bilketak egin eta modu berezituan pisaketak egitera, horietako bakoitzean sortutako hondakinen gaineko datuak biltzeko, Mankomunitateak markatzen dituen jarraibideen arabera.

8.15 KALE GARBIKETAREN HONDAKINEN BILKETA

Antzuola eta Oñatiko kale garbiketako hondakinak, egunero Antzuola eta Oñatiko pardelak jasotzen dituen zerbitzuak jasoko ditu (E06 lantaldeak).

Zerbitzua urte osoan emango da, baita abuztuan eta jaiegunetan ere.

Kontratistak gutxienez azaldutako zerbitzua bete beharko du, egungo edukiontzi, irizpide eta maiztasunekin.

Kontratista behartuta egongo da noizean behin udalerrien araberako bilketak egitea eta modu bereizian pisatzea, horietako bakoitzean sortzen diren hondakinen gaineko datuak biltzeko, Mankomunitateak markatzen dituen jarraibideen arabera.

Mankomunitatea arduratzen da gainerako udalerrietako bide-garbiketako hondakinak biltzeaz.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 49. orrialdea, guztira 80

8.16 BOLUMEN HANDIKO GAUZAK GAIKA BILTZEA

Kontratista eskualdeko 8 udalerrietan kalean dauden bolumen handiko gauzak jaso eta garraiatzeko zerbitzua egiteaz arduratuko da.

Zerbitzua egiteko gauzak bide publikoan utziko dira. Erabiltzaileek edukiontziaren ondoan edo zabor puntuan (TZ) utziko dituzte beren gauzak, 20:00etatik 22:00etara bitartean, eta zerbitzua astean behin egingo da eskualdeko herri bakoitzean:

Bilketa eguna	Txanda	Udalerria	Deskargak[24]
Asteartea	Gauez	Bergara	2-3
Asteazkena	Egunez	Arrasate	2-3
Osteguna	Gauez	Aretxabaleta, Elgeta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga	2
Ostirala	Egunez	Antzuola eta Oñati	2

Zerbitzua ez da industria inguruneetan egingo. Jaiegunetan, Mankomunitateak horrela erabakitzen duen kasuetan, Mankomunitateak erabakitzen duen hurrengo datarik egokienera aldatuko da, eta kontratistak era berean egin beharko du zerbitzua, egoera horretara moldatuta, kontratuaren prezioak igo gabe.

Gaur egun, kutxa irekiko bi kamioiren bidez egiten da zerbitzua (kutxa irekiko kamioi baskulagarria, plataforma jasotzailearekin, eta kaxa irekiko kamioneta).

Ibilgailu berriak jaso eta martxan jartzean, kaxa ireki handiko kamioiak plataforma jasotzailea, garabia eta iraulkia izango ditu, eta bilketa gauez zein egunez egingo da, gauean utzitako tresnak gehienez ere hurrengo goizean bilduta geratzeko moduan. Tamaina handiko tresna guztiak kentzeko (gainerako hondakinak sailkatu eta dagozkien edukiontzietan uzteko) eta ekarpen-eremua garbitasun egoera onean uzteko, zerbitzuak ekarpen-eremua bildu eta garbituko du.

Kontratistak deskribatutako zerbitzua egin beharko du gutxienez, gauza guztiak jaso, garraiatu eta Mankomunitateak adierazten dion entrega gunean deskargatuz.

Kontratistak bolumen handiko gauzak egon daitezkeen hiriguneko puntu guztietatik igaro beharko du, eta baita Mankomunitateak xede horretarako ezarritako landa-inguruneko bilketa-guneengatik ere.

Hirigunean ez dauden bilketa guneei dagokienez, bilketa zerbitzua ez da horietatik igaroko, zerbitzuaren telefonoan[25] jasotzeko abisu bat jaso denean izan ezik. Herri bakoitzeko hirigunetik

[24] Deskarga kopurua bilketaren ibilbidean, gutxi gorabehera.

[25] Kontratistak 943711938 zenbakian duen linean erregistratutako deiei erantzun beharko die, fisikoki bulegoko ordutegian, edo erantzungailu bidez ordutegi horretatik kanpo. Edonola ere, bolumen handiko gauzak biltzeko zerbitzuak ez du zerbitzua egingo ez bada deirik jaso hirigunetik

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 50. orrialdea, guztira 80

urrun dauden kokapen horiek, zeinetan bolumen handiko gauzak jasotzeko zerbitzua ere egiten den, hauek dira:

1. Aretxabaleta (landalurreko bilketa puntuak):
    a. Ekarpen Gunea (EG) AOZARATZA.
    b. Minigunea (MG) GELLAO.
    c. MG ORO

2. Arrasate (auzoak):
    a. Bedoña.
    b. Garagartza.
    c. Gesalibar.
    d. Udala.

3. Bergara (auzoak):
    a. Angiozar.
    b. Osintxu.
    c. Ubera.

    Bergara (landalurreko bilketa puntuak):
    a. EG GORLA.
    b. MG AGIRRE.
    c. MG BASALGO.
    d. MG BURUÑAO.
    e. MG ELORREGI.
    f. MG ELOSU.
    g. MG MEKOLALDE.
    h. MG OLA.
    i. MG SAN JUAN.
    j. MG TXIMELA.
    k. Paris Enea eraikineko bilketa puntua (Osintxu).
    l. Iberdrolaren etxebizitzetako bilketa puntua (Beosein).

4. Eskoriatza:
    a. Kuatruena urbanizazioa.

    Eskoriatza (landalurreko bilketa puntuak):
    a. MG APOTZAGA.
    b. MG MARIN.
    c. MG MARULANDA.
    d. MG MAZMELA.
    e. MG MENDIOLA.
    f. MG ZARIMUTZ.

kanpoko eskaria egiteko. Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek kontratistari adieraz diezaiokete tresnak toki jakin batzuetatik jaso behar dituela, herritarrengandik zuzenean jasotako deien ondorioz.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 51. orrialdea, guztira 80

5. Leintz-Gatzaga.
    a. EG HERRIGUNEA.
    b. MG GURE AMETSA.
    c. MG GOIERRI.
    d. MG OLAUN.
    e. MG ARLABAN.
6. Oñati (auzoak):
    a. Olabarrieta.
    b. Zubillaga.

Oñati (landalurreko bilketa puntuak):

a. EG ETEO.
b. EG GARAGALTZA.
c. EG SAN PEDRO.
d. MG ARANTZAZU.
e. MG ARAOTZ.
f. MG BEREZAO.
g. MG JAUMENDI.
h. MG LARRAMENDI.
i. MG MIGELENA.
j. MG MURGIA.
k. MG SANTXOLOPETEGI.
l. MG SORALUZE.
m. MG URIBARRI.
n. MG URRINTXO.
o. MG ZAÑARTU.
p. MG ZUMELTZEGI.

Mankomunitateak zerrenda hori handitzeko eskubidea du, betiere beharra justifikatua balego, eta zehazten diren kokapenak Mankomunitatearen irizpidearen arabera, etxeko hondakinak biltzeko gunetzat kalifikatuta badaude.

Gaur egun, honako hauek dira etxetresnak eta tamaina handikoak entregatzeko zentroak:

- Arrasateko Juan Jose Arregi Etxaberen hondakinak berreskuratzeko instalazioa (Altzaurtiko instalazioa). Ahal den guztietan, zur-hondakinak bereizita entregatuko dira.

- EPELEko garbigunea (EPELEko zabortegian bertan dago). Kontratistak behar bezala bereizi behar ditu hondakin-frakzio hauek:

    1. Txatarra kaxa irekiko edukiontzian.
    2. Hotzeko lerroari; FR1, dagokion etxetresna elektriko handia (EEH), kaxa irekiko edukiontzian kontuz utzita. Hondakin horiek ezin dira edukiontzi barruan sartu deskargako kaitik jaurtikita.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 52. orrialdea, guztira 80

3. Hotzeko lerrokoa ez den EEH; FR4 (garbigailuak, ontzi garbigailuak...). Frakzio hau uzteko baldintzak FR1 hotz-lerroko hondakinetarako eskatzen diren berberak dira, baldintza berberekin.
4. Etxetresna elektriko txikia (EET), FR2, FR5 eta FR6 lerroei dagokiena. Frakzio hau uzteko baldintzak, EEHrako jarritako berberak dira (kontu handiz utzi).
5. Egurra kaxa irekiko edukiontzian, Altzaurtiko plantan aldez aurretik deskargatu ezin izan direnean.
6. Obren hondakinak kaxa irekiko edukiontzian.
7. Plastikoak kaxa irekiko edukiontzian.
8. Izaera likidoko edo oretsuko hondakin arriskutsuak. Deskarga kaira ematen duen zabalgunean dagoen etxola barruan utziko dira (estalpean eta ustekabeko isuriak biltzeko ontziaren gainean).
9. Pneumatikoak kaxa irekiko edukiontzian. Pneumatikoak kontu handiz utziko dira, garbigunearen ingurutik ihes egin ez dezaten eta zabortegian behera joan ez daitezen.
10. Presiozko aparatuak (ontzi huts edo beteen bonbonak eta kartutxoak). Hondakin arriskutsuak hartuko dituen etxolaren ondoan utziko dira; metalezko kaiolan, lurzoruaren gainean, edo isuriak biltzeko ontziaren gainean, kasuaren arabera.
11. Errefus frakzioa kaxa airekiko edukiontzian. Errefus frakzio horretan aurreko kategorietan sartu ezin diren hondakinak sartzen dira, esaerako koltxoiak, sofak, besaulkiak, etab.

Gaur egun, Epeleko garbigunean ez dago paper-kartoia eta ehun-hondakinak biltzeko edukiontzirik. Hala ere, Mankomunitateak beretzat gordetzen du beste bi frakzio horiek (edo beste batzuk) bereizita biltzeko edukiontzien kopurua handitzeko eskubidea,. Horrek ez du eraginik izango kontratuaren kostuan.

I.XXIV eranskinean ezartzen da nora bota behar diren tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (zein edukiontzietara).

Mankomunitateak entrega zentroa aldatzea erabakitzen badu, kontratista behartuta egongo da materialak Mankomunitateak esango dion lekura eramatera, kontratuko prezioak igo gabe, baita karga hobeto balorizatzeko hainbat entrega puntutan zatituta entregatu behar badu ere, betiere entrega zentroa Debagoieneko eskualdearen eremu geografikoaren barruan baldin badago.

Halaber, Mankomunitateak agindu ahal izango du kontratistak bolumen handiko gauzak Garbiguneetatik edo tarteko beste gune batzuetatik jasotzeko, kontratuaren kostua igo gabe.

Era berean, kontratistaren betebeharra izango da hondakinak deskargatzeko eremua garbitzea (EPELEko Garbiguneko goiko aldea), bai eta edukiontziak ateratzeko kamioiaren maniobren eremua garbitzea ere (Garbiguneko beheko aldea).

Garbiketa hori gutxienez hamabost egunean behin egin beharko da. Hala ere, hondakin arriskutsuren bat isuriz gero, kontratistak berehala jakinarazi beharko dio Debagoieneko Mankomunitateari eta berehala garbitu beharko du.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek garbiketa-lanak ikuskatuko dituzte, eta, beharrezkoa bada, kontratistari eskatuko diote lan horiek egiteko. Nolanahi ere, egindako garbiketen ondoren,

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 53. orrialdea, guztira 80

garbiketa behar bezala egin dela erakusten duten argazkiak bidaliko dizkio kontratistak Mankomunitateari.

Hondakinak biltzeko edukiontzien kanpoaldea, une oro, hondakinez garbi egon beharko dira. Kutxak dauden hobien garbiketa Mankomunitatearekin koordinatu beharko da, kutxa horiek kentzeko lanei lotuta, hondakinetaraino iritsi ahal izateko.

Zerbitzuaren osagarri moduan, kontratista behartuta egongo da Justizia Administrazioak agintzen dituen etxe kaleratze, huste eta abarri erantzutera, eta zehazten diren data, ordu eta lekuetan jaso beharko ditu objektuak eta ezartzen den biltegira eraman.

Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta, hondakinez kargatutako kaxa irekiak zentro kudeatzailera eramateko toldoak jartzean, kaxak goiko ertzaren gainetik betetzea saihestuko du kontratistak. Horrela, toldoak jartzeko lanak erraztuko dira.

Betetzeko kaxarik ez badago (edo betetzeko ahalmen txikia badute), Mankomunitateari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

8.17 "KALITATE KONTROLA" ZERBITZUA-E40

"Kalitate-kontrola" izeneko zerbitzua 5. edukiontziko bilketa-sistema duten udalerri guztietan (Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Eskoriatza) eta atez ateko bilketa-sistema duten udalerrietan (Antzuola eta Oñati) eman beharko da..

Zerbitzu hau astelehenetik larunbatera eskainiko da, goizeko 7:00-14:00k artean. Zerbitzu honek ez du ibilbide zehatz bat izango eta beharren araberako aldakortasuna izango du. Orokorrean zerbitzu honek ondorengo funtzioak beteko ditu:

1. **Edukiontzi bidezko sistema:**

- Herri guztietako edukiontzi guneen egoeraren jarraipena. Astean behin gutxienez, zonalde guztietatik pasa behar du. Horretarako, plangintza eta taulak emango zaizkio ikuskatzaileari.
- Edukiontzien kanpoaldean edo gaizki utzitako zaborra norena den identifikatzen saiatu, horretarako beharrezkoa denean poltsak begiratu (ea etiketa edo identifikatzeko zerbait duten barruan).
- Egunez kanpo utzitako traste zaharretan, garbigunera eraman beharreko hondakinetan eta kanpoan utzitako zabor poltsetan dagozkien pegatinak jarri (3 koloretakoak, intzidentzia bakoitzari dagokiona jarriaz).
- Egunean bertan edo aurrez bulegotik jakinarazitako intzidentziak begiratu eta bideratu (sarrailak, edukiontziei jarraipenak, betetze-mailak, etab.).
- Sarraila elektronikoen datuen deskargak egin eta ondo funtzionatzen dutela ziurtatu.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 54. orrialdea, guztira 80

- Edukiontzien barruan dagoenaren ikuskapena eta inzidentzien erregistroa egin.
- Ez ohiko egoeretan, edo premia larriaren ondorioz beharrezkoa balitz, konpostagarriak ez diren poltsak gai organikoaren edukiontzietatik atera eta errefusera bota.
- Eskura dituen baliabideekin, ahal dituen kanpoko poltsen bilketa lanak egin (dagozkien edukiontzietan sartu, etab.).
- Mantenuan egin beharreko lanak jakinarazi: pedalak, tapak, “enbellezedoreak” etab. apurtuta baldin badaude.
- Mantentze-lanetako gorabehera txikiak unean bertan konpontzea, hala nola pedalei buelta ematea, askatuta egon daitezkeen sarrailak lotzea, etab.
- Malgukiak apurtuta badaude, eta tapa azkar jaisten bada, Mankomunitateari lehenbailehen abisua eman.
- Edukiontzietan beharrezkoak diren pegatina guztiak jarrita dauden begiratu (barra kodeak, zenbakiak, biniloak, intzidentziak, organikoaren kasuan tirak eta pegatina karratua, etab.).
- Barra kodeak jarrita daudela ziurtatu edukiontzi guztietan.
- Argazkiak atera.
- Mankomunitatea beharrezkoa den kasu guztietan informatu.
- Oharrak jarri eta kendu.
- Bilketen kalitatearen kontrolarekin zerikusia duen Mankomunitateak agindutako beste edozein lan.

2. Atez ateko bilketa sistema

- Atez-ateko bilketa sistema duten guneen egoeraren jarraipena, Mankomunitatetik zehaztutako maiztasunarekin, ondorengo lanak burutzeko:
    - Egunez kanpo erretiratu gabe dauden kuboen kodeen argazkiak bidali, eta intzidentzia horren berri ematen duen pegatina kuboan itsatsi.
    - Lurrean utzitako zabor nahasidun poltsen argazkia bidali, nork utzi duen identifikatzeko moduko zerbait dagoen begiratu eta balego, argazkia bidali.
    - Komertzioek ordutegia edo egutegia errespetatu gabe esekitokien ondora ateratako edukiontzien kodigoaren argazkia bidali.
- Bilketen kalitatearen kontrolarekin zerikusia duen beste edozein lan, Mankomunitateak agintzen duena.

Zerbitzu hau burutzeko, ibilgailu berriak martxan izan bitartean, Mankomunitateak 2909DGP matrikuladun Citroen Berlingo 19D ibilgailua utziko dio kontratistari (ikus V. eranskina).

Hautemandako gorabeheren eta eskatutako informazioaren berri Mankomunitateak egokien irizten dion formatuan emango da (argazkia, berehalako mezularitza, barra kodea, etab.).

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 55. orrialdea, guztira 80

8.18 KONTRATUA ONDO BETETZEKO ZUZENDARITZA, KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA LANAK

Kontratu honen bitartez, kontratistak erantzukizun hauek hartzen ditu bere gain:

1. Kontratuaren xede diren Zerbitzuak egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak zuzendu, planifikatu eta koordinatzea, kontratuaren baldintzak betetzeko.

2. Kontratuaren xede diren Zerbitzuak Mankomunitatearekin koordinatzea, eskualdeko udalekin, Udaltzaingoarekin, erabiltzaileekin, dendekin, enpresekin edo aipatu Zerbitzuei lortutako edozein pertsona edo erakunderekin, harremanak mantenduz eta haiekin egin beharreko gestioak eginez, erabiltzaileentzako informazioa barne.

Horretarako, kontratistak **ZUZENDARI TEKNIKO** bat jarriko du Zerbitzuen esku, eta hori izango da Mankomunitatearekiko solaskidea eta azken erantzulea kontratuaren xede diren Zerbitzuak egiteari buruzko alderdi guztietan. Zuzendari Teknikoak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Enpresa kontratistaren aldetik erabakiak hartzeko behar besteko autoritate izango du kontratuaren esku jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeari dagokionez.

2. Behar besteko euskara ezagutzak edukitzea idatziz eta ahoz, Mankomunitatearekin komunikatzeko, kontratuari lotutako edozein alderdiri buruz.

3. Mankomunitateak ezartzen dituen lan bileretara joateko beharrezko prestasuna izan beharko du.

Mankomunitateak uste badu lehenagotik ere postuan diharduen Zuzendari Teknikoaren posturako hautagaiak ez dituela betetzen agindutako eginkizunak betetzeko behar diren bermeak (besteak beste behar den euskara maila), kontratista behartuta egongo da langile hori ordeztera, eta bere gain hartuko ditu aldaketak eragiten dizkion kostuak.

8.19 LANGILEAK DAGOZKIEN LANETAN ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO LANAK

Horrez gain, kontratistak **LAN TXANDA BAKOITZEKO[26] ZERBITZUAREN ARDURADUN BAT** jarriko du gutxienez kontratuaren xede diren zerbitzuen esku (bat goizeko txandarako eta beste bat gaueko txandarako), kontratatutako lanen eguneroko gauzapenaz arduratzeko. Bere oinarrizko zereginak hauek izango dira, besteak beste:

[26] Gaur egun, eguneko zerbitzuetan sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko (Mankomunitatearen zerbitzuen funtzionamendua, kalitate-kontrola, udal-zerbitzuen jarduera, etab.).), bi arduradunek batera ematen dute zerbitzua eguneko ordutegian, eta gaueko kapatazak egiten ditu gaueko arduradunari esleitutako lanak. ALTERNATIBA GISA, MANKOMUNITATEAK ONTZAT EMANGO LUKE ANTOLALKETA EREDU HAU, ZERBITZU-ARDURADUNEI DAGOKIENEZ.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 56. orrialdea, guztira 80

- Langileen lana kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Lanak zuzen egiten direla kale mailan ikuskatzea, eta beharrezko ekintza zuzentzaileak antolatzea berehala.
- Eguneroko lana antolatzea eta langileei beharrezko agindu operatiboak ematea.
- Langileen artean beharrezko diziplina zaintzea eta betearaztea.
- Langileei eskatutako lanak betetzen direla etengabe egiaztatzea, baita lan ordutegia betetzen dela ere, zerbitzua egiteko guneetara joanez lanak zuzena egiten diren ebaluatzeko, etab.
- Euren zeregina amaitu duten langileei lanak esleitzea, lanaldi osoa aprobetxatzen dela segurtatzeko.
- Lan parteak zuen betetzen direla kontrolatzea, eta zerbitzuen eguneroko dokumentazioa erregistratzea, datu guztiak eta beharrezko dokumentuak informatizatzea, eta horiek egunero Mankomunitatera bidaltzea.
- Mankomunitateari jakinaraztea gertatutako gorabehera esanguratsu guztiak, telefonoz eta txostenak euskarri informatikoan bidaliz, berehala. Gaur egun, Mankomunitatearen eta kontratistaren artean informazioa euskarri informatikoan trukatzeko Irontec-en MANTIS BT Gorabeherak Kudeatzeko Sistemaren bitartez egiten da gehienbat, eta batzuetan baita email zein berehalako mezularitza aplikazioen bidez ere.
- Kontratuaren xede diren Zerbitzuak Mankomunitatearekin koordinatzea, baita eskualdeko udalekin, Udaltzaingoarekin, erabiltzaileekin, dendekin, enpresekin edo aipatu Zerbitzuei lortutako edozein pertsona edo erakunderekin ere, harremanak mantenduz eta haiekin egin beharreko gestioak eginez, erabiltzaileentzako informazioa barne.
- Material, tresna, NBE, erregai, ordezko pieza eta antzekoen beharrak aurreikustea, eta egin beharreko erosketak egitea, albaranak, entregak, fakturak, biltegiratzeak eta abar erregistratuz eta kontrolatuz.
- Mantentze eta konponketa lanen beharrak aurreikustea, ibilgailu eta edukiontziei dagokienez zein instalazio finkoei dagokienez, eta kontratazioak egitea eta konponketa eta mantentze lanen jarraipena egitea, derrigorrezko ikuskapenak, etab.
- Matxura edo istripua gertatuz gero, enpresa kontratistak beharrezko ordezko ibilgailuak garaiz lortzen dituela gestionatzea.
- Konponketak eta erreklamazioak egiaztatu, datuak hartu eta gestionatzea, eta zerbitzuak hirugarrenei egindako edo hirugarrenengandik jasotako gorabeherak eta kalteak aseguruari jakinaraztea eta jarraipena egitea.
- Laneko arriskuen prebentziorako neurriak betetzen direla egiaztatzea eta kontrolatzea lanen eguneroko gauzapenean.
- Zerbitzuak eta lantaldeak antolatzea, eta etengabe berrantolatzea behar puntualek hala eskatzen badute, taldeak eta zereginak berresleituz.
- Bajak, oporrak eta antzekoak aurreikusi eta gestionatzea, ordezkoei lanak egiteko beharrezko prestakuntza emanez: ibilbideak, prozedurak, etab.
- Aurreikusi gabeko egoeren aurrean zerbitzuak berrantolatzea, esaterako, matxurak gertatzen direnean, istripuak, elurteak, etab.
- Eta, oro har, kontratatutako zerbitzuak egunerokoan zuzen betetzeko beharrezko lanen egiaztapenak egin, erregistratu, agindu zehatzak eman, koordinatu, zuzendu eta planifikatzea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 57. orrialdea, guztira 80

Zerbitzuaren arduradunak irizpide hauen arabera egingo du bere lana:

- Lana lanaldi osoz egingo du, eta kontatu honen xede diren zerbitzuak egiteko dedikazio esklusiboarekin, asteko 5 laneguneko erregimenean.
- Arduradunak ez du normalean gidari eta kargatzaile lanak esleituta izango, eta deskribatutako zereginetan baino ez da arituko.
- Gaueko txandako arduradunak nagusiki 22:00etatik 06:00etara egingo du bere lana.
- Goizeko txandako arduradunak nagusiki 06:00etatik 14:00etara egingo du bere lana.
- Egunero egon behar dira zerbitzuko arduradunak, goizeko eta gaueko txandetan, lanaldi osoan presentzia fisikoa izanik, langileak hasten direnetik lanaldia amaitzen duten arte. Larunbat, igande eta jaiegunetan, Zerbitzuko Arduradunaren figura Zerbitzuko Gidari edo Mekanikari batekin ordeztu ahal izango da, zeinak aldi berean Kapataz lanak egingo dituen.
- Gutxienez astean behingo maiztasunarekin, Mankomunitateko arduradun teknikoekin elkartuko dira, informatzeko, astearen balantzea egiteko eta etorkizuneko ekintzak planifikatzeko.

Zerbitzuko arduradunek honako baldintza hauek beteko dituzte:

1. Kontratu honen xede diren Zerbitzuetarako denbora osoz kontratatuta, ARDURADUNAREN kategorian gutxienez, Gipuzkoako Bide Garbiketa Publikoaren Hitzarmen Kolektiboaren arabera.
2. Enpresa kontratistaren aldetik erabakiak hartzeko behar besteko autoritate izango du kontratuaren esku jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeari dagokionez.
3. Behar besteko euskara ezagutzak edukitzea idatziz eta ahoz, Mankomunitatearekin komunikatzeko, kontratuari lotutako edozein alderdiri buruz.
4. Mankomunitateak ezartzen dituen lan bileretara joateko beharrezko prestasuna izan beharko du, baita ere arazo larriak konpontzeko bere ohiko ordutegi eta egutegitik kanpo.
5. Telefono mugikor bat izango du, beharrezkoa denean Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoak berarekin harremanetan jartzeko.

Mankomunitateak uste badu lehenagotik ere postuan diharduen Arduradun posturako hautagaiak ez dituela betetzen agindutako eginkizunak betetzeko behar diren bermeak (besteak beste behar den euskara maila), kontratista behartuta egongo da langile hori ordeztera, eta bere gain hartuko ditu aldaketak eragiten dizkion kostuak.

Adierazitako alderdiak gutxieneko ez mugatzaileak izango dira, eta kontratistak puntualki edo iraunkorki arduradunaren ordutegia edo egutegia zabaldu ahal izango du, bere erantzukizunak betetzeko beharrezkoa bada, kontratuaren prezioak igo gabe.

Kontratistak berehala ordeztu beharko du arduraduna bajak, oporrak edo beste edozein egoera dela eta, ezaugarri berdinak dituen profesional batekin.

Arduradunaz gain, bilketa talde bakoitzaren gidariak telefono mugikor bat eduki beharko du konektatuta kontratuaren berezko lanak egiten diren bitartean. Telefono horrek “Smartphone” motakoa izan beharko du, eta erabilgarri egongo da bere posizioa denbora errealean marraztu

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 58. orrialdea, guztira 80

ahal izateko, Mankomunitateak xede horretarako egokien iritzitako softwarearen bidez. Hori horrela izan ezean, bilketa- eta garbiketa-kamioiek behar duten GPS bidezko kokapen-sistema bera izan beharko dute enkargatuek erabiltzen dituzten ibilgailuek.

Kontratistak, halaber, uneoro operatibo dauden telefono mugikorren zenbakiak jakinaraziko dizkio Mankomunitateari.

Halaber, kontratu honen bitartez, kontratistak erantzukizuna hartzen du bere gain kontratuaren xede diren Zerbitzuak beharrezko errespetu eta tratu onarekin egiteko Mankomunitate, Udal, Zerbitzuen erabiltzaile eta, oro har, kontratuaren xede diren Zerbitzuen esparruko edozein pertsonarekin, bai Arduradunen aldetik, baita aipatutako Zerbitzuei atxikitako kontratistaren edozein langileren aldetik ere.

8.20 MANKOMUNITATEARI INFORMAZIO EMATEKO ZEREGINAK

Kontratistak uneoro Mankomunitateari jakinaraziko dizkio kontratu honen xede diren Zerbitzuen gaineko alderdi, datu, informazio eta gorabehera guztiak, hala nola:

- Jasotako kantitateak.
- Zerbitzuen hasiera eta amaiera orduak.
- Zerbitzuak egitean gertatutako gorabeherak.
- Bilketako ibilgailuek ibilitako kilometroak.
- Edukiontzi bakoitzaren betetze maila husteko unean.
- Egunean hustutako edukiontziak.
- Mankomunitateak kontratuaren xede diren Zerbitzuak egiteari lotutako beste edozein informazio, bai puntualki bai aldizka.

Kontratistak, kontratu honen bitartez, erantzukizuna hartzen du bere gain eskatutako informazioa emateko, eskatzen zaion euskarrian eta formatuan, Mankomunitateak exijitzen dizkion txantiloiak, programa informatikoak edo transmisio bideak erabiliz.

Edonola ere, kontratistak datu eta informazio guztiak gutxienez euskarri informatikoan emango ditu.

Mankomunitateak betetzeko ereduak edo txantiloiak landu ahal izango ditu, eskatutako informazioarekin zein parteak edo txostenak betetzeko eta maiztasun jakin batez entregatzeko irizpideen gaineko arau espezifikoekin, zeinak derrigor bete beharrekoak izango diren. Kontratua indarrean dagoen bitartean, Mankomunitateak eredu edo txantiloi horiek aldatu ahal izango ditu, eta kontratista egoera horietara egokitu beharko da, kontratuaren prezioak igo gabe.

Kontratistak kontratu honen xede diren Zerbitzuak egiteari buruz Mankomunitateak eskatzen dion informazio edo dokumentazio oro entregatu beharko du puntualki, gehienez ere eskaera egin denetik 24 orduko epean, ahoz edo idatziz.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 59. orrialdea, guztira 80

Halaber, kontratista behartuta dago Mankomunitateak agintzen dizkion kontratu honen xedeko Zerbitzuak antolatzeari eta egiteari lotutako txosten eta azterketa guztiak prestatzera.

Txosten horien artean, **urtero** eta maiatzean zehar, **kontratistak kostu ekonomikoen txosten desglosatu bat aurkeztu beharko du**, Mankomunitateak kontratuaren kostu ekonomikoa Mankomunitatea osatzen duten udalerrien artean banatu ahal izan dezan. Txosten horretan sartuko dira ibilgailuen erosketari dagokion kostu ekonomikoa (kostu finantzariorik balego, hura bereiziz), zerbitzu-ekipoen kostua (langileen eta zerbitzuko ibilgailuei lotutako kostu zuzenei dagozkionak zehaztuta), zeharkako kostuak eta zerbitzuari lotutako beste gastu batzuk.

Zerbitzu guztiak, modu orokor edo ponderatuan, hiru fakturazio-kategorietako bati esleituko zaizkio:

a) “Puntu Berdea”, baldin eta “Puntu Berdearen” bidez finantzatzen diren hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzu bat bada, Ontzien eta Ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) “Kartoi komertziala”, hondakin-mota horren bilketarekin lotutakoa bada.

c) “Organikoa eta errefusa”, hondakin organikoak eta errefusa biltzeko zerbitzuetarako.

Kostu orokorren, mozkin industrialaren, etab. banaketa zerbitzuen artean proportzionalki egingo da, banaketa horren proportzioak azalduta.

Kontratuaren xede diren Zerbitzuak egiteari lotutako informazioa faltsutzeak edo Mankomunitateari ezkutatzeak Baldintza Administratiboen Pleguan zehazten diren zigorrak eragingo ditu.

Lan horiek eraginkortasunez betetzeko, kontratu honetarako, Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen du **langile administraria edo laguntzailea egotea, presentzia fisikoarekin kontrataren instalazioetan,** Mankomunitatearen lurralde eremuaren barruan, eta kontratu honen xede diren zerbitzuetarako dedikazio esklusiboarekin. Administrari horrek euskaraz idatziz eta ahoz komunikatzeko behar besteko ezagutza izango du Mankomunitatearekin kontratuari lotutako edozein alderdiren inguruan komunikatzeko.

Mankomunitateak uste badu lehenagotik ere lan horretan diharduen posturako hautagaiak ez dituela betetzen agindutako eginkizunak betetzeko behar diren bermeak (besteak beste behar den euskara maila), kontratista behartuta egongo da langile hori ordeztera, eta bere gain hartuko ditu aldaketak eragiten dizkion kostuak.

8.21 IBILGAILUEN FLOTA KONTROLATZEKO ETA HONDAKINAK ZUZEN BILTZEKO ZEREGINAK

Gaur egun, zerbitzua egitera bideratutako ibilgailuen flotak honako jarraipen eta kontrol sistema hauek ditu:

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 60. orrialdea, guztira 80

1. Flotak kontrolatzeko sistema GPS trazagailuen bitartez (Xexun TK102-2) eta http://ruhavik.gps-trace.com/ web atariaren bitartez. Sistema hori kontratu honi atxikitako Mankomunitatearen jabetzeko ibilgailu guztietan instalatuta dago. Produktua katalogotik kanpo geratu denez, trazatzaile horiek berrezartzeko arazoak sortu dira kontratu honi atxikitako ibilgailu gehienetan. Nolanahi ere, eta ibilgailu berriak iritsi arte, kontratak irtenbidea aurkitu beharko dio arazo horri; kasurik okerrenean, ibilgailuen jarraipenera Android plataformaren gainean, iOSen edo antzekoren baten gainean instalatutako software baten bidez jo dezake. Edonola ere, kontuan hartu behar da, aukeratutako sistema edozein dela ere, posizioa denbora errealean kontrolatzeko aukera eman behar duela, ibilgailu bat dabilen kaletik nola pasatzen den bereizteko adinako zehaztasun nahikoarekin.
2. Android plataformaren gainean instalatutako GPSLogger softwarearen bidezko jarraipen-sistema. Sistema hori kalitate-kontroleko zerbitzuan instalatuta dago; E40 ekipoan.

Urrutiko sistema horiek egindako lana bistaratzea ahalbidetzen dute eta, horrenbestez, ibilbideak eta ezarritako betebeharrak zuzen betetzen diren egiaztatzea.

Halaber, zerbitzuaren erabiltzaileek egiten duten edozein erreklamazioren aurrean, sistema horiek erreklamazioa justifikatuta agoen ala ez argitzea ahalbidetzen dute.

Ibilgailu berriak erosi eta abian jartzeko, gaur egun instalatuta daudenak baino zehaztasun handiagoko posizionamendu-sistemak instalatu beharko dira haietan, ibilgailu berriak erosteko baldintza teknikoen dokumentuarekin bat etorrita (VII. eranskina).

Sistema horiek erabiltzeari buruz kontratistak dituen betebeharren artean, hauek daude:

1. Uneoro sistemaren operatibitatea ziurtatzea, ezarritako jarraipen sistema guzti-guztiek funtzionatzen dutela bermatzeko. Ez da onartuko ibilgailuetan jarraian hiru egun baino gehiago jarraipen sistema funtzionamenduan ez egotea.

2. Ekipamenduen jarraipena egitera zuzendutako edozein dispositibotan funtzionamendua okerra bada berehala jakinarazi behar zaio Mankomunitateari.

   GPS trazagailuei dagokienez, kontratistaren zerbitzu teknikoak saiatuko dira matxuratutako unitatea martxan jartzen. Ez badute lortzen, beste batengatik aldatu beharko dute.

   Matxura hasi eta berriz martxan jarri arteko epea astebete baino gehiago luzatzen bada, kontratistak unitate eramangarri bat jarriko du martxan, ibilgailuaren jarraipena egin ahal izateko. Unitate gehigarri horren alternatiba gisa, jarraipena software espezializatu baten bidez ere egin ahal izango da, GPSLogger motako telefono adimendunetara egokituta.

3. Langileei uneoro jarraibide egokiak ematea, ekipoak manipulatu edo zerbitzutik kanpo utzi ez ditzaten.

4. Kaltetu diren unitateak birjartzea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 61. orrialdea, guztira 80

5. Egindako ibilbideak aldizka berrikustea, eta honakoak aztertzea:

   - ✓ Ibilbidearen betetze maila, identifikatuz jasotako edukiontzien portzentajea, biltzeko ezarritako ordena, eta trazatu teorikoarekin bat datorren.
   - ✓ Kontrola egitean hautemandako gorabeherak.
   - ✓ Arazoak jakinaraztea eta akatsak zuzentzea, zerbitzuetan diharduten langileekin bilerak eginez.

Kontratistak jarri behar ditu ekipo horiek erabiltzeko behar diren elementuak; adibidez, SIM txartelak.

Mankomunitateak etxeko hondakinak biltzeko Zerbitzuak kontrolatzeko beste sistema integral zein partzial batzuk martxan jartzen baditu (datu base informatizatuak erabiliz, Informazio Geografikoko Sistemak, Posizionamendu Globaleko Sistemak, edukiontzien deskargaren detektagailuak, edukiontzi bakoitza automatikoki pisatzeko sistemak, datuak erregistratu eta transmititzeko sistema automatikoak, datuak erregistratzeko terminal digitalak, etab.), kontratista egoera horietara egokitu beharko da, eta datuak eta informazioak sistema horien bitartez entregatuko ditu, esleipenaren prezioetan barne hartuz sistema horiek erabiltzeko eta egokitzeko sortu daitezkeen kostuak (bilketako langileak eta arduraduna prestatzeko denbora, ekipamenduak mantentzea edo egon daitekeen beste edozein kostu), kontratuko prezioak igo gabe.

Halaber, Mankomunitateak eskubidea du bilketarako ibilgailuetan kontrolerako tresnak jartzeko; erregai kontsumoaren neurgailuak, besteak beste.

8.22 IBILGAILU-FLOTA BERRITZEA IBILGAILU BERRIEN EROSKETAREN BITARTEZ

Debagoienan sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratu berrian ibilgailu unitate berriak sartuko dira zerbitzuan.

VII. eranskinean, ibilgailu berriak erosteko eta hornitzeko bete beharreko baldintza teknikoak azaltzen dira, zerbitzua bermeekin eman ahal izan dezaten.

Ibilgailu berriak iritsi arte, Mankomunitateak kontratistari lagako dizkio gaur egungo kontratak bilketa-zerbitzua ematen dion bere jabetzako ibilgailuak. Ez da aurreikusi beste ibilgailurik lagatzea, industrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari atxikitakoak, adibidez; Mankomunitateak berak ustiatzen dituenak.

Kontuan izanik kontratari egungo konfigurazioan zerbitzua emateko lagatako ibilgailu-kopurua ez dela nahikoa, kontratistak zerbitzua emateko behar diren ibilgailuak eman beharko ditu. Beraz, Mankomunitateak konpentsazio ekonomiko bat ordainduko dio kontratari (alokairu gisa), ibilgailu berriak jaso eta martxan jarri arteko epean. Epe hori ezingo da 18 hilabete baino gehiago luzatu.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 62. orrialdea, guztira 80

IV. eranskinean jasota dago Mankomunitateak bilketa-kontratu berria egiteko lagatako ibilgailuen zerrenda.

Kontratuaren iraupena eta kontratu honetan aldaketak egiteko aukera kontuan hartuta, Mankomunitateak beretzat gordetzen du kontratistaren esku ibilgailu berriak jartzeko eskubidea, funtzionalitateak zabaltzeko (halakorik badago), kontratuak irauten duen bitartean.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 63. orrialdea, guztira 80

9 ZERBITZUAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

9.1 BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO LANAK

9.1.1 Kalitatearen Kudeaketa Zerbitzuaren prestazioan: gorabeheren jakinarazpena, edukiontziak husteko maiztasuna eta informazio osagarria.

Atal honetan xedatutakoa kalean dauden edukiontzien eta atez ateko sistemaren ekarpen eta larrialdi guneetan dauden edukiontzien bitartez egiten diren bilketetan aplikatzeko da.

Mankomunitateak kontratistak proposatzen duen plangintza hartuko du kontuan Bilketa Maiztasunaren Zerrenda bat ezartzeko, eta hor, maiztasunak ez ezik, edukiontzi bakoitza zein egunetan eta ordutegitan hustuko den ere agertuko da.

Bilketa Maiztasunen Zerrendak bete beharreko gutxieneko batzuk ezartzen ditu, kontratistarentzat kapitulu honetan deskribatutako gainerako betebeharren kalterik gabe, eta, halaber, aldatu ahal izango da, Interes Publikotik eratorritako beharren arabera.

Edonola ere, baldintza teknikoen plegu honetan zehaztutako hustuketa maiztasunak errespetatu beharko dira gutxienez.

Zerbitzu eta talde bakoitzerako ezarritako Bilketa Maiztasunen Zerrenda betez, edukiontzi bat husteko garaian horren betetze maila baxua bada, egoera horrek ez du kontratista salbuetsiko era berean edukiontzian dagoen materia jasotzeko betebeharretik.

Mankomunitateak Kalitatearen Oinarrizko Irizpide moduan ezartzen duenez, kontratu honen gauzapenaren lehen urtean, frakzio bakoitzaren edukiontzien %10 baino gutxiago egongo dira %100 beteta, eta helburutzat ezarri du hasierako portzentaje hori urtero %1 murriztea, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Horrenbestez, edukiontzi bat %100 beteta baldin badago, eta horrelako daudela identifikatu badute alboko kargako edukiontzien laguntza zerbitzuek (edukiontziak garraiatzeko, aurrebilketako zerbitzuak, edo kalitate kontrolerako zerbitzua), landa inguruneetako ekarpen guneetako edukiontziak biltzeaz arduratzen diren zerbitzuek (EG eta MG) eta larrialdi guneetako edukiontziak jasotzen dituztenek (LG), zera egin beharko dute:

1. Edukiontzia barra kodea duen etiketa baten bitartez ondo identifikatuta dagoela, eta etiketa egoera onean dagoela egiaztatu. Horrela izan ezean, langileak gorabehera moduan jakinaraziko dio Mankomunitateari.
2. Identifikatu edukiontzia bere barra kodea irakurriz. Mankomunitateak kontratistaren esku jarriko ditu barra lan horiek egiteko beharrezko kodeen irakurgailuak.
3. Adierazi edukiontziaren betetze maila, baita Mankomunitateak eskatutako edozein informazio ere. Erregistro hori barra kodea duen irakurgailuaren eta barra kodeak dituen

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 64. orrialdea, guztira 80

taularen bitartez egingo da, behar den informazioa kodetzeko; Mankomunitateak emango dizkio horiek kontratistari.

Mankomunitateak, kontratistarekin batera, Bilketa Maiztasunen Zerrenda aztertu eta eguneratuko du aldizka (gutxienez urtean behin), Kalitatearen Oinarrizko Irizpide moduan ezarritakoa betetze aldera, biltzeko maiztasunaren plangintza bereziak ezartzeko eskumenaren kalterik gabe, zeinak derrigor bete beharko dituen kontratistak, hondakin gehiago sortuko direla aurreikusten den egoeretan (jaiak, ospakizunak, ekitaldi publikoak, Gabonak, oporrak, etab.).

Kontratistak bere gain hartzen du erantzukizuna, kontratu honen xede diren lanak egiteko orduan (bilketak, garbiketak, kalitate kontrola, etab.), ekarpen gune edo edukiontzi bakoitzaren egoerari buruzko informazio guztia (betetze maila, gorabeherak edo beste batzuk) dagokion partean erregistratzen dela ziurtatzeko, ekarpen gunean bertan eta dagozkion lanak egiteko momentuan, hurrengo ekarpen gunera edo beste edozein helmugatara joan aurretik.

Berariaz debekatuta dago datu eta informazio horiek idaztea edo erregistratzea lanaldiaren amaieran, beste ekarpen gune batean, entrega zentroan, edo beste edozein lekutan datuak erregistratu edo idatzi beharreko ekarpen guneko lanak amaitu ondoren.

Kontratistaren zerbitzuek beraiek identifikatutako gorabeherez gain, Gorabeheraren Jakinarazpentzat joko da telefonoz edo idatziz edo beste edozein bitartekoz egindako edozein abisu (sms-ak, posta elektronikoa, app aplikazioak, gutunak edo beste batzuk), baldin eta hemendik badatoz:

- Partikularrak.
- Enpresak.
- Udalak.
- Mankomunitatea bera.

Ohartarazpen horiek kontratistaren zerbitzuetan edo Mankomunitatearenetan jaso ahal izango dira.

Partikularrek, enpresek edo udalek egindako abisuei dagokienez, kontratistak berehala jakinarazi beharko dio honako hau Mankomunitateari, ahoz eta euskarri informatikoko idatziz (posta elektronikoa edo beste batzuk): gorabeheraren deskribapena, gorabeheraren jakinarazpenaren data eta ordua, komunikatzailearen nortasuna, nahasiriko edukiontzia(k) eta arazoari irtenbidea emateko proposamen zehatz bat. Mankomunitateak interesgarritzat jotzen duen informazio oro gehitu ahal izango dio zerrenda horri, eta kontratistak berehala hornitu beharko du. Gaur egun, Mankomunitatearen eta kontratistaren artean informazioa euskarri informatikoan trukatzeko Irontec-en MANTIS BT Gorabeherak Kudeatzeko Sistemaren bitartez egiten da gehienbat, eta batzuetan baita email bidez, eta WhatsApp-ez ere.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 65. orrialdea, guztira 80

9.1.2 Garbitasuna eta segurtasuna zerbitzuak egitean

Kontratistak, kontratu honen xede diren lanak egitean, honako erantzukizun hauek hartzen ditu bere gain:

1. Galarazi egingo du bide publikoa eta hirugarrenen instalazioak, horien barruan Mankomunitatearen instalazioak eta entrega guneak, zikintzea edo kaltetzea, kontratuaren xede diren zerbitzuak egiteagatik. Horretarako, gutxienez:

    a. Jartzen dituen ibilgailuetan sistemak egongo dira materialak edo likidoak nahi gabe isurtzea ekiditeko.
    b. Lan prozedurak erabiliko ditu materialak edo likidoak isurtzea ahalik eta gehien prebenitzeko.
    c. Kontratuaren xede diren Zerbitzuei lotutako edozein lan egitean, bide publikoan edo eragindako instalazioetan nahi gabe materialak edo likidoak isurtzen badira, horiek berehala jaso eta garbitu beharko ditu, bide publikoa edo eragindako instalazioak garbitasun, osotasun eta segurtasun egoera arruntera lehengoratzen direla segurtatzeko prozedurak erabiliz.

2. Ahalik eta gehien murriztu behar da kontratuaren xede diren zerbitzuak egiteagatik pertsonen edo ibilgailuen zirkulazio arrunta oztopatzeko edo galarazteko aukera. Horretarako, lan prozedura eta bitarteko material egokiak erabili beharko ditu, eta zaborra biltzeko langileek prestakuntza egokia izango dute, bide publikoan egin beharreko lanak ahalik eta azkarren egiten direla ziurtatzeko. Ildo horretan, beharrezko geldialdi eta maniobrak baino ez dira egingo, une oro indarrean dauden zirkulazio arauak errespetatuz.

3. Kontratuaren xede diren Zerbitzuak egiteagatik biztanleei molestiak edo kalteak eragin diezazkiekeen zarata kutsaduraren maila minimizatzea. Horretarako, lan prozedura, ordutegi eta bitarteko material egokiak erabili beharko ditu, baita zerbitzura gehituko dizkion ibilgailuak ere, eta biltzeko langileek behar bezalako prestakuntza izango dute, hots kutsaduraren maila ahalik eta txikiena dela segurtatzeko.

4. Bilketa, garraio eta deskarga lanetan, ahalik eta gehien saihestu behar da jasotako materialak bustitzea. Horretarako, ekipamendu egokiak eta beharrezko lan prozedurak erabiliko dira, eta biltzeko langileek horri buruzko behar bezalako prestakuntza izan beharko dute.

5. Kontratu honen xede diren lanak egitean, segurtatu egin behar da erabiltzaileei ahalik eta gutxien oztopatzen zaiela edukiontzien, esekitokien edo ekarpen eta larrialdi guneen erabilera normalizatua.

6. Segurtatu behar da kontratu honen xede diren lanek ez dutela eragingo erabiltzaileek edukiontzi erabilgarri gutxiago edukitzea,bai kalean bai ekarpen eta larrialdi guneetan, eta kontratistak lan horien ondorioz garraiatu behar dituen unitateak (garbitzeko,

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 66. orrialdea, guztira 80

konpontzeko, desagertu direlako, etab.) erabiltzeko egoera ezin hobean dauden beste batzuekin ordeztu beharko ditu.

9.1.3 Ekarpen eremuen eragin eremuak

Eremu hauei dagokionez, kontratu honen esparruan kontsideratuko dira:

- **Ekarpen eremua:** Debagoiena eskualdearen esparru geografikoko edozein gune, non edukiontzi bat edo batzuk dauden Mankomunitatearen zerbitzura, materia organikoa, errefus frakzioa, papera-kartoia eta/edo ontzi arinak jasotzeko; eta beste edozein gune hondakinak atez ate jasotzeko esekitokiak badaude. Beraz, kontratu honen aplikazio eremuan ez dira sartzen bakarrik beira, ehunak eta erabilitako olioa jasotzeko edukiontziak dituzten guneak, horiek elkarrekin edo bananduta egon. Ekarpen eremutzat hartuko dira, halaber, TZ (Traste Zaharrak) gisa identifikatutakoak, nahiz eta soilik TZ eremu izan (beste hondakin frakzioetako edukiontzirik ez egon).

- **Ekarpen eremu baten eragin eremua:** ekarpen eremu batean dauden edukiontzi edo esekitoki GUZTIEN inguruko azalera (horien barne errefus frakzioa, paper-kartoia, ontzi arinak, ehunak, materia organikoa, erabilitako olioa eta beira jasotzeko edukiontziak/esekitokiak, baldin badaude), dauden edukiontzien/esekitokien multzotik gutxienez 2 metrora. Halaber, erabiltzaileek hondakinak uzten badituzte edukiontzietatik/esekitokietatik kanpo, ekarpen eremu horretan jasoak izan daitezen asmoarekin, baita edukiontzien/esekitokien aipatu 2 metroko esparrua baino urrunago badaude ere, hondakin horiek ere eragin eremuaren barruan daudela joko da.

1. Zerbitzuak bide publikoan dauden edukiontzien bitartez

Kontratu honetan kontratistak erantzukizuna hartzen du bere gain, edukiontzi bateko bilketa egin eta gero, ziurtatzeko ekarpen eremua eragin esparru osoan ez dagoela inolako hondakinik edukiontzitik kanpo, ez solte ez poltsetan.

Horretarako, bilketaren edo zerbitzu osagarrien langileak edo langileek gutxieneko lan hauek egin beharko dituzte hurrengo ekarpen gunera joan aurretik:

1. Beira hondakinak jaso eta gaikako bilketa egiteko dagokion iglu berdean sartu. Beiraren edukiontzia guztiz beteta dagoela antzemanez gero, berehala jakinaraziko zaio Mankomunitateari.
2. Ehun hondakinak eta antzekoak jaso eta material horiek gaika biltzeko edukiontzian sartu. Beirarekin bezala, berehala jakinaraziko zaio Mankomunitateari ehun-edukiontzi bat beteta dagoela.
3. Berezitako materia organikoaren hondakinak jaso eta material horiek gaika biltzeko edukiontzian sartu.
4. Ontzi arinen (plastikoa, metala eta brick-a) hondakinak eta antzekoak jaso eta material horiek gaika biltzeko edukiontzian sartu.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 67. orrialdea, guztira 80

5. Paper eta kartoi hondakinak jaso eta material horiek gaika biltzeko edukiontzian sartu, kartoi komertziala eta industriala jasotzeko zerbitzuek jasotzeko behar bezala jarrita badaude izan ezik.
6. Sailkatu gabeko zaborrak jaso eta errefus frakzioaren edukiontzian sartu.

Zein zerbitzu egiten ari den kontuan hartuta, kontratistaren langileak, lehendabizi, egiten ari den zerbitzuko materialak dagokien edukiontzian sartu beharko ditu, lekua egon eta posible bada, eta ondoren edukiontzia hustuko du, hau da, edukiontziaren edukiera ez da murriztu behar ondoren materialak sartu direlako.

Langilea beste zerbitzu bat egiten ari bada, eta ekarpen gunean kartoi komertziala eta industriala behar bezala jarrita dagoela aurkitzen badu jasotzeko zerbitzuak jaso dezan, ziurtatu egin beharko du, hurrengo ekarpen gunera joan baino lehen, kartoi hondakinek: (1) ez dutela pertsona eta ibilgailuen zirkulazio arrunta oztopatzen, (2) ez dutela pertsona eta ibilgailuentzako arriskurik sortzen, eta (3) ez diotela bide publikoari itxura estetiko txarra ematen. Horretarako, espaloian edo galtzadan barreiatuta dauden kartoi hondakinak pilatu beharko ditu, ekarpen gunearen eragin esparruaren barruan, eta aipatu 3 irizpideak ahalik eta ondoen betetzeko moduan kokatuta utziko ditu.

2. Atez ateko zerbitzuak

Atez ate jasotzeko esekitoki puntuetan, kontratistaren langileak utzitako materialen ikuskapen lanak egin beharko ditu, eta, dagokionean, ezarritako egutegia betetzen ez badute, hondakin jakin batzuk jaso gabe utziko ditu; halaber, konforme ez dauden poltsak markatu beharko ditu, hautemandako urraketa ikusgai egon dadin, Mankomunitateak horri buruz ematen dituen jarraibideen arabera.

Desegoki utzitako hondakinei dagokienez, Mankomunitateak erabakiko ditu kasu bakoitzean aplikatu beharreko irizpideak eta, edozein kasutan, zenbat denbora utzi beharko diren egoki ez dauden hondakinak jaso gabe. Edonola ere, kontratistak ekarpen eremuen eragin esparrua, oro har, inolako hondakinik gabe utziko du (ez solte ez poltsetan, esekita edo ez, Mankomunitateak horrela erabakitzen duen kasuetan) eta zalantzarik gabe apurtuta dauden kuboak edota abandonatutakoak jasoko ditu.

Ekarpen eta larrialdi guneetan kaleko edukiontzien bidezko bilketa puntuetarako definitutako irizpide berberei jarraituko zaie, hau da, kontratistak, bilketa egiten duen bakoitzean, edukiontzitik kanpo aurkitzen dituen hondakinak dagokien edukiontzian sartuko ditu, eta gunea garbi utziko du.

9.1.4 Lurpeko edukiontziak

Gaur egun, Debagoieneko Mankomunitatean ez dago lurpeko edukiontzi-sistema baten bidez kudeatutako hondakin-eremurik. Hala ere, eta horrelako sistemak masiboki martxan jartzea ere

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 68. orrialdea, guztira 80

aurreikusten ez den arren, gerta liteke udalerriren batek hondakinen bilketa berraktibatu nahi izatea halako instalazioen bidez.

Horregatik, eta horrela balitz, instalazio mota hauen funtzionamendu eta kudeaketa baldintzak, atal honetan finkatutako baldintzatzaileak kontutan izanik burutu beharko lirateke.

Kontratistak bere gain hartzen du lurpeko edukiontzi-sistemen bilketak kontratuaren indarraldian egiteko erantzukizuna, gainazaleko edukiontzietako bilketen baldintza beretan, gutxienez.

Kontratistaren langileak egiaztatu behar du lurpeko edukiontzia behar bezala itxi dela, hurrengo puntura joan aurretik.

Kontratistak erantzukizuna hartzen du bere gain dagoen arriskua behar bezala seinaleztatzeko, konoen edo baliza zintaren edo antzeko sistemen bitartez, baldin eta lurpeko edukiontziaren tapa ezin bada ondo itxi, oinezkoek arrisku hori detektatu ahal izan dezaten.

Kasu horietan, baita kontratistak hautemandako edozein matxuraren kasuetan ere, eta baita langileak lurpeko edukiontzian edozein kalte egin badu ere, kontratistak berehala jakinarazi behar dio Mankomunitateari. Abisu hori telefonoz egin daiteke, lehenbailehen konpontzeko, baina kontratistak era berean euskarri informatikoan ere bidali behar du jakinarazpena (posta elektronikoa, besteak beste). Gaur egun, Mankomunitatearen eta kontratistaren artean informazioa euskarri informatikoan trukatzeko Irontec-en MANTIS BT Gorabeherak Kudeatzeko Sistemaren bitartez egiten da gehienbat, eta batzuetan baita email edo bat-bateko mezularitza aplikazioen bidez ere.

Kontratistak Mankomunitateak ezartzen dituen protokoloak beteko ditu lurpeko edukiontziei kalte egin zaien kasuetarako

Mankomunitateak eskubidea erreserbatzen du konponketak berak egokientzat jotzen duen zerbitzu teknikoaren bitartez egiteko.

Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratu honen berezko lanak egiteagatik lurpekoetan gertatzen diren kalteen konponketaren gastua: kolpeak zaborra jasotzean, garbiketan, etab., eta kostu horiek kontratistari ordaindu beharreko hurrengo fakturatik deskontatu ahal izango dira.

Lurpeko edukiontzien sistema berriak instalatzen badira, kontratistak kontratuaren berezko bilketak eta gainerako betebeharrak bete beharko ditu baldintza berberetan, prezioak igo gabe.

9.1.5 Bilketa ordutegi eta egutegiak

Bide publikoko bilketa zerbitzuak, oro har, plegu teknikoetan lantalde eta zerbitzuentzat zehazten diren ordutegi eta egutegien arabera gauzatuko dira.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 69. orrialdea, guztira 80

Justifikatutako arrazoiak direla-eta beharrezkoa edo komenigarria baldin bada noizean behin edo aldizka bilketak ezohiko ordutegian egitea, orduan Mankomunitateak behar diren aginduak emango dizkio kontratistari, eta kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

Era berean, kontratistari komeni bazaio noizean behin edo aldizka bilketak ezohiko ordutegian egitea, orduan kontratistak dagokion baimena eskatuko dio Mankomunitateari. Ezohiko ordutegian egin beharreko lan horiek ezin izango dira Mankomunitatearen baimen barik egin.

9.1.6 Pisaketa sistemak

Kontratistak bere gain hartuko du bildutako materialen pisuak neurtu, erregistratu eta Mankomunitateari jakinarazteko erantzukizuna, eta dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Horretarako, egin beharreko pisaketak ofizialki egiaztatutako eta indarreko kalibrazio baskuletan egin beharko ditu, pila erabiliak bildu eta garraiatzeko zerbitzuan izan ezik, halako pisaketak baskula komertzial txikietan egin baitaitezke.

Kontratistak, gutxienez, bilketa kamioiak entrega zentroetan deskargatu aurretik pisatu beharko du kamioien edukia. Era berean, bilketa egun bakoitza amaitzean, kontratistak kamioi bakoitzaren garraio, pisaketa eta deskarga egingo du, nahiz eta kamioia guztiz bete barik egon. Hori guztia hala egingo da Mankomunitateak kontrako agindurik ematen ez badu.

Plegu honetan deskribatzen diren gutxieneko pisaketak gorabehera, Mankomunitateak agintzen dizkion pisaketa guztiak egin beharko ditu kontratistak, izan noizean behingo pisaketak edo izan aldizkakoak, kontratuan jasotzen diren prezioak igo barik.

Gaur egun, materialen pisaketak baskula hauetan egiten dira:

- EPELEko konpostaje plantako baskula (Bergara): frakzio organikoaren azken pisaketa.
- ARRIAGAko transferentzi plantako baskula (Elgoibar): errefusaren azken pisaketa.
- Legazpiko ontzien sailkapen plantako baskula: ontzi arinen frakzioaren azken pisaketa.
- Altzaurtiko plantako baskula (Arrasate): paper eta kartoiaren frakzioen pisaketa, eta baita egurra eta boluminosoen errefusa frakzioarentzat.
- Eskoriatzako Udalaren baskula: tarteko pisaketak egiteko.
- EPELE zabortegiko baskula (Bergara): tarteko pisaketak egiteko erabilgarria.
- Pila erabiliak jaso eta garraiatzeko zerbitzuak: tamaina txikiko baskula komertziala, kontratistarena.

Mankomunitateak pisaketak –noizean behin edo beti– beste baskula batzuetan egiteko exijitu diezaioke kontratistari, baskula horiek Debagoieneko eskualde barruan baldin badaude.

Eskoriatzako udal baskulan egin beharreko tarteko pisaketen gastua kontratistaren kontura joango da.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 70. orrialdea, guztira 80

Era berean, plegu honen hobekuntza izango da alboko kargako ibilgailu batean eta atzetik kargatzeko beste batean karga-zelulak instalatzea eta mantentzea. Zelula horiek erabiliko lirateke plegu honen helburua osatzen duten ibilbideetan jasotako kargei buruzko informazio gehigarria lortzeko. Kontratistaren ardura izango litzateke karga-zelula horiek operatibo eta ondo kalibratuta mantentzea kontratuaren iraupen osoan.

9.1.7 Edukiontzien, esekitokien eta bilketa puntuen kokapena

Edukiontzien, esekitokien eta bilketa puntuen kokapena zehaztea Mankomunitatearen ardura da. Horretarako, Udalekin koordinatuta, irizpide hauek hartuko dira kontuan: erabiltzeko gertutasuna, erabiltzailearentzako erosotasuna, bilketari elkartutako kostuak, usainak eta beste.

Hala ere, bilketa eta garraio lanak egin behar dituenez gero, kontratistaren erantzukizuna da

Mankomunitateari idatziz jakinaraztea zer arrisku ekar ditzaketen, bai herritarrentzat bai langileentzat, kontratu hau betetzeko egin beharreko lanek, hots, aipatutako elementuen kokapenaren eta elementuotara iristeko egin beharreko maniobren ondoriozko lanek. Arrisku egoera hauetan, kontratistak kokapen alternatiboak proposatuko ditu, eta Mankomunitateak dagozkion erabakiak hartuko.

Tartean kontratistaren idatzizko jakinarazpenik ez badago, ulertuko da zehatutako kokapenek ez dakartela segurtasun arriskurik bilketak egiteko.

Mankomunitateak erabaki ahal izango du kontratistak zer lan metodori jarraituko dion zenbait lekutan arriskuak saihesteko; esaterako, kamioia leku jakin batean aparkatu eta langileak bilketa puntura oinez joatera behartu ditzake.

9.1.8 Entrega zentroak

Kontratistak Baldintza Teknikoen Plegu honetan zehaztutako entrega zentroetaraino garraiatuko ditu bildutako materialak, eta bertan deskargatuko ditu, edo, hala badagokio, Mankomunitateak zehaztutako entrega zentroetan; betiere dokumentu honetan jasotako irizpideen arabera.

Zentro horietan, pisaketa lana, deskarga lana edo egin beharreko beste edozein lan kontratistak egingo du, betiere entrega zentro bakoitzak adierazitako ordutegi, arau eta jardute protokoloak errespetatuz. Horri dagokionez, entrega puntuen ordutegiak II. eranskinean daude zehazturik.

Entrega zentroen ordutegiak edo funtzionamendu arauak aldatuz gero, kontratistak ez du inondik ere horren ondoriozko konpentsazio ekonomikorik izango, izan ere, esleipendunak egoera berrietara egokitu beharko du kontratuan jasotako prezioak aldatu barik.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 71. orrialdea, guztira 80

Hala berean, bildutako frakzio desberdinak entregatzeko puntuen aldaketa ere ez da ekonomikoki konpentsatuko, baldin eta entrega puntu berria gehienez ere 40 km-ko marra zuzeneko erradio baten barruan badago Mankomunitatearen egoitza zentraletik (Nafarroa Etorbidea, 17, Arrasate).

Garraio, pisaketa eta deskarga lanak, bilketa egin eta berehala egingo dira entrega zentroetan. Tarteko biltegiratzea ez dago baimenduta, tartean Mankomunitatearen agindu edo berariazko baimenik ez badago behintzat.

9.2 LAN OSAGARRIAK

9.2.1 Objektu galduen bilaketa

Bildutako materialen artean kontratistak aurkitzen dituen objektu baliotsuak Mankomunitatearen esku utziko dira, ondoren jabeak direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.

Pertsona batek jakinarazten badu edukiontzi baten barruan edo ekarpen nahiz larrialdi gune batean objekturen bat galdu duela, edo hutsegitez objektua bere ontzian zein poltsan utzi duela eta esekitokitik dagoeneko eraman dutela, esleipendunak, Mankomunitateak emandako kasuan kasuko aginduei jarraituz, zeregin hauetako batzuk edo guztiak bete beharko ditu:

a. Kaltetuarekin adostutako ordu batean, edukiontzira edota ekarpen nahiz larrialdi gunera joan eta galdutako objektua berreskuratzen saiatu; horretarako, kakoak, pintzak eta antzeko tresnen laguntza balia dezake; edo, hala badagokio, edukiontziaren[27] ate handiak zabaldu eta, behar izanez gero, poltsak eta materialak kanpora atera. Kontratistaren langileak berriz ere sartuko ditu poltsak eta materialak edukiontzian, eta, bilaketa amaitutakoan, itxi egingo ditu ate handiak. Lan horien truke, edukiontziko 20,00 € ordainduko zaio kontratistari.

b. Edukiontzia Mankomunitateak adierazitako lekura garraiatu –Debagoieneko eremu barruan–, edukia lurrera deskargatu eta galdutako objektua eskuz bilatu. Ondoren, kontratistak edukiontzian sartuko ditu materialak atzera ere, deskarga gunea erabat garbi utziko du eta edukiontzia jatorrizko kokalekuraino garraiatuko du, eta bertan kokatu. Lan horien truke, edukiontziko 70,00 € ordainduko zaio kontratistari. Eragiketa horiek egiten diren bitartean, beharrezkoa izango da ordezko edukiontzi bat jartzea, erabiltzaileek hondakinak normaltasun osoz uzten jarrai dezaten.

Deskribatutako betebeharrak lur gaineko edukiontziei, lurpekoei eta ekarpen guneetako nahiz larrialdi guneetako edukiontziei aplikatzekoak dira.

Beste edozein kasutan, debekatuta daude miaketak eta ibilgailu batetik besterako hondakin aldaketak, salbu-eta Mankomunitateak, justifikatutako premiaren bat tarteko eta zehazten diren baldintzetan, horretarako baimena ematen duenean.

[27] Zerbitzu honen barruan, ehun-hondakinen edukiontzira nahi gabe botatako objektuak berreskuratzea sartzen da.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 72. orrialdea, guztira 80

9.2.2 Bilketarako ibilgailuak mantendu, konpondu eta garbitzea

Kontratuari atxikitako ibilgailu guztiei prebentziozko mantentze plan bat aplikatuko zaie. Plan hori Mankomunitateari entregatuko zaio. Prebentziozko mantentze plan horrek, gutxienez, aplikatzekoak diren lege betebeharrak estaliko ditu (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa, Industriako Aldizkako Azterketak, etab.), baita ibilgailua eta bere ekipoa egoera onean mantentzeko direnak ere (olio-aldaketak, filtroak, pneumatikoak, etab.).

Era berean, kontratistaren betebeharra izango da edozein arrazoi dela-eta (matxurak, istripuak, etab.) egin beharreko konponketak egitea, ibilgailuek behar bezala funtziona dezaten.

Bestalde, kontratistak ziurtatu beharko du bilketarako ibilgailuak garbitasun egoera optimoan daudela bai barrutik bai kanpotik, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematen dituen bitartean. Horretarako, behar adina aldiz garbitu beharko ditu bilketarako ibilgailuak.

Lan horiek egiteko kontratistaren instalazioak erabiliko dira, edo kontratistak proposatutako ordezko lekuak, zeinak behar bezala ekipatuta egon beharko diren edukiera handiko ibilgailuak garbitzeko. Ibilgailuak garbiketa instalazioetara eramateko gastuak, eta baita instalazioon alokairu gastuak ere, edo ibilgailuen garbiketarekin lotutako beste edozein gastu, kontratistaren kontu izango dira.

Ezarri beharreko zerbitzuetarako, kasu bakoitzean behar diren ibilgailu garbiketak zehaztuko dira (ikus V. Eranskina).

Puntu honetan zehaztutakoa aplikatzekoa da bai kontratistak jarritako ibilgailuentzat, bai Mankomunitateak kontratistaren esku utzitako ibilgailuentzat eta baita zerbitzura batuko diren ibilgailu berrientzat ere.

Era berean, Mankomunitateak zuzenean ematen dituen bilketa eta laguntza zerbitzuetako ibilgailuak ere garbitu ahal izango dira kontratak bere ibilgailuak garbitzen dituen instalazioetan, baina horrek ez dio Mankomunitateari diru kopuru gehigarririk ordaindu beharrik ekarriko.

9.2.3 Edukiontziak garbitu eta desinfektatzea

Atal honetan xedatzen dena bide publikoan dauden edukiontziei eta landa izaerako ekarpen gune eta miniguneetan (EG eta MG) eta larrialdi guneetan (LG) dauden edukiontziei aplikatzekoa da. Atez ateko sisteman, oro har, erabiltzailearen beraren erantzukizuna da entregatzen zaizkion ontzi eta edukiontzien garbiketaren erantzukizuna; herritarra izan, merkataritzakoa izan, instituzionala edo industriala izan (Mankomunitateko Ingurumen Sailak erabakitako salbuespenak salbuespen).

Garbiketen helburua da edukiontziak beti garbi eta detektatzeko moduko usainik gabe egotea; horretarako, kontratistak edukiontziok barrutik eta kanpotik garbitzeko lanez arduratu beharko du.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 73. orrialdea, guztira 80

Garbiketa horiek egiaztatutako eraginkortasuna daukaten detergente, desinfektatzaile, koipegabetzaile, desinkrustatzaile, usain ezabatzaile eta abarrez egin beharko dira. Mankomunitateak baztertu egin ahalko ditu zenbait produktu, baldin eta tartean eraginkortasunarekin eta ingurumen inpaktuarekin lotutako arrazoi justifikaturik badago.

Era berean, Mankomunitateak fiskalizatu egin ahalko ditu garbitzeko lekua eta prozedura, eta kontratistari behar adina demostrazio praktiko egiteko exijitu ahal izango dio.

Barrutik egin beharreko garbiketak edukiontzi bakoitza hustu eta berehala egingo dira. Horretarako, kontratistak koordinatu egin beharko ditu garbiketa lantaldea eta bilketa lantaldea.

Edukiontziak garbitzeko ibilgailu berria gehitzean, ur beroa erabiliko da (beharrezko gehigarriez gain: xaboia eta beste gehigarri batzuk) edukiontziak garbitzeko.

Kontratista arduratuko da garbiketa ur garbiak nahiz zikinak kudeatzeaz, eta aspektu horiekin lotutako gastu guztiak haren kontu izango dira.

Kontratistak, behar diren baliabideak erabiliz (presiozko ura eta bestelakoak, baita eskuzkoak ere, behar den kasuetarako), edukiontzietan itsatsitako kartelak eta pintadak desagerrarazi beharko ditu.

Hilero, kontratistak Mankomunitateari frogatuko dio edukiontziak garbitzeko ekipoek (alboko kargako edukiontziak zein laur gurpilekoak garbitzeko ibilgailuak eta bi gurpileko edukiontziak garbitzeko erabilitako presiopeko ekipoak) zuzen betetzen dutela beren zeregina, eta zehazkiago:

- Edukiontziak garbitzeko ekipoaren funtzio guztiak operatibo eta aktibo egongo dira.
- Uraren irteera-puntuetan nahikoa presio egongo da, behar bezala garbitzen dela bermatzeko.
- Garbiketa-zikloa edukiontzien zikinkeriara egokituko da, duten frakzioaren arabera eta garbitu gabe edo gaizki garbituta egon diren denboraren arabera. Mankomunitateak irizten badio edukiontziak garbitzeko ekipoak edukiontzian aplikatutako garbiketa-zikloa ez dela nahikoa, kontratistak gorantz aldatu beharko du.
- Edukiontziak garbitzeko ibilgailu berria martxan jartzen denean, edukiontziak ur beroarekin garbituko dira, gutxienez 60 ºC-ko tenperaturan.
- Garbiketetan xaboia erabiltzea bermatuko da. Erabilitako xaboiak eraginkortasun frogatua izan behar du, eta lehentasuna eman behar zaio ingurune naturalean eragin txikiena duten xaboiak erabiltzeari (batez ere, erreketako urak).

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek *in situ* egiaztatuko dute garbiketak behar bezala egiten direla eta eraginkorrak direla. Horrela ez bada, identifikatutako akatsak zuzentzeko eskatuko zaio kontratistari.

Edukiontzien garbiketaz deskribatutako gutxienekoak gorabehera, Mankomunitateak tankera bereko lanen beharra detektatzen zaien edukiontzi konkretuetan lan puntualak egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari, eta kontratistak lehenbailehen egin beharko ditu lanok.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 74. orrialdea, guztira 80

9.2.4 Edukiontzi, ontzi eta esekitokien parkea

Ondorio guztietarako, uler bedi:

- Zerbitzuko edukiontzi, ontzi eta esekitokiak: bide publikoan, ekarpen guneetan, larrialdi guneetan edo pilen gaikako bilketara atxikita dauden establezimendu eta zentroetan jarrita eta erabiltzaileek erabiltzeko moduan daudenak dira; eta horiez gain, etxeko hondakinak bilketa zerbitzuei eskaintzeko xedez, Mankomunitateak onartu eta erabiltzaile partikularren, denden, zerbitzuen nahiz industrien esku daudenak.

- Erreserbako edukiontzi, ontzi eta esekitokiak: biltegiratuta egonik, eta Mankomunitateak, aurrez, beren ezaugarriak eta dekorazioa onartu ondoren, behar izanez gero berehalaxe zerbitzuan jartzeko prest daudenak. Erreserbakotzat jotzen dira, baita ere, jai ekitaldiak direla eta, edukiontzi bat konpondu behar eta ordeztua izan behar dela eta, edo beste edozein arrazoirengatik aldi baterako zerbitzuan jartzen diren edukiontzi eta ontziak, aldi baterako behar hori bete ondoren berriz gordetzen direnak.

Edukiontziak, ontziak eta esekitokiak kontratistaren esku uzten dira zerbitzuak emateko.

Elementu horiek guztiak Debagoieneko Mankomunitatearenak dira, salbu-eta edukiontzi eta ontzi propio normalizatuak erabiltzeko baimena daukaten enpresa, denda, erabiltzaile edo Udalen edukiontziak.

Zerbitzuko edukiontzi eta ontziez gain, erreserbako edukiontzi, ontzi eta esekitokiak ere kontratistaren esku utziko dira.

Premia berrien aurrean, Mankomunitateak beharrezkoak diren edukiontzi, ontzi eta atez ateko sistemarako esekitokiak jarriko ditu, besteak beste, honako kasu hauetan:

- Dena delako elementua desagertzen denean, matxura larria izan duenean edo tartean elementu hori erabilgaitz egin duen beste edozein arrazoi dagoenean, baldin eta, Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoen arabera, ezin bada konpondu edo konpontzea merezi ez badu.

- Mankomunitateak, gune jakin batzuetan kantitate handiak jasotzen direlako edo beste arrazoi batzuk direla eta, lehendik zeuden ekarpen guneetan, edo gune berrietan (urbanizazio berrietan atez atekoa ezarri delako, pilen bilketara denda gehiago atxiki direlako, edo beste arrazoi batzuk direla eta) edukiontzi, ontzi edo esekitoki gehigarriak instalatzeko agindua ematen duenean.

- Erreserbako edukiontzi, ontzi eta esekitoki gehiago behar direnean.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, kontratistak ez duenik bere gain hartuko elementu horiei eragiten dieten kalteen gaineko erantzukizunik.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 75. orrialdea, guztira 80

Edukiontzi, ontzi eta esekitoki guztiak, zerbitzuan jarri eta berehala, kontratistaren erantzukizunpean geldituko dira bilketa, mantentze lan, konponketa, garbiketa eta abarri dagokienez, zerbitzuko gainerako elementuak bezala. Mankomunitateak zehaztuko ditu zerbitzuan jarritako edukiontzi edo esekitoki berriak jasotzeko maiztasuna, eguna eta ordutegia.

Kontratistak alta eman beharko dio, ezartzen den kodifikazio sisteman, edukiontzi eta ontzi bakoitzari.

9.2.5 Edukiontzi[28], ontzi eta esekitokiak mantendu, kontserbatu eta konpontzea

Kontratistak, kontratu honen bitartez, EG, LG eta MG guneetan kokatutako atzeko kargako edukiontzien eta pila ontzien inguruko erantzukizun hauek hartzen ditu bere gain:

- Bi gauza hauek ziurtatzea: (1) bai edukiontziak bai ontziak erabiltzeko egoera onean daudela une oro, eta (2) pertsonei eta ondasunei arrisku gehigarririk ez ekartzea egoera txarrean egoteagatik. Horretarako, kontratistak beharrezko zeregin hauek bete beharko ditu:

    - Prebentziozko mantentze lana (osagaiak koipeztatzea, etab.), gutxienez hornitzailearen kontserbazio eta mantentze eskuliburuetan jasotzen dena betez.

    - Edukiontziaren edo ontziaren erabilera normalizatua eragozten duten matxurak eta –Mankomunitatearen irizpideei jarraituz– itxura estetiko onartezina eragiten dutenak, konpontzea (heltzeko eta irekitzeko sisteman izaten diren matxurak, hausturak, kiskalitako edukiontziak eta beste).

    - Egoera txarra tarteko, hirugarrenei arrisku gehigarriak dakarzkieten matxurak konpontzea (elementu irtenak, elementu ebakitzaileak eta beste).

    - Seinale islatzaileak edo bestelako segurtasun seinaleak jarri eta mantentzea.

    - Objektu hondatu edo akastun oro konpondu edo ordeztea.

  Kontratistak berehalaxe egin behar ditu konponketak, matxura detektatu eta lehenbailehen.

  Kontratistaren erantzukizuna da, matxuraturik edo hondaturik dauden edukiontzi edo ontzien eraginez, (1) eragindako ekarpen guneetan zerbitzuak eten behar ez izatea; eta

[28] Alboko kargako edukiontziak mantendu, zaindu eta konpontzea Mankomunitatearen zerbitzuen ardura izango da. Nolanahi ere, eta kontuan izanik kontratistaren betebeharra dela edukiontzi horietan dauden hondakinak deskargatzea, bai eta haiek garbitzea ere, kontratistak Mankomunitateari jakinarazi beharko dio edukiontzi horiek behar bezala ez dabiltzala, eta egoera estetiko txarrean eta funtzionalean daudela (baldin eta horrek edukiontzi horiek behar bezala biltzea eta garbitzea eragozten badu). Nolanahi ere, kontratistak Mankomunitateari lagundu beharko dio alboko kargako edukiontziak Mankomunitateak ezartzen duen lekuraino eramaten (betiere Mankomunitatearen eremu geografikoaren barruan), Mankomunitateko zerbitzuek intentsiboki garbi ditzaten edo mantentze-lanak egin beharko balitu eta horiek edukiontzia dagoen tokian egitea ezinezkoa denean.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 76. orrialdea, guztira 80

(2) hirugarrenei kalterik ez eragitea; hori dela eta, kaltetutako edukiontzi edo ontzien lekuan, erabiltzeko ondo dauden beste batzuk jarri beharko ditu, modu iraunkorrean edo konponketak dirauen bitartean.

Kontratistarekin zalantzarik edo desadostasunik sortuz gero, Mankomunitateak erabakiko du edukiontzi edo ontzi jakin bat konpondu egin behar den edo baztertu egin behar den, haren lekuan egoera onean dagoen bat jartzeko.

- Edukiontzi eta ontzi guztiek une oro itxura estetiko onargarria daukatela ziurtatzea, eta, horretarako, beharrezko zeregin hauek betetzea:

    - Efektu estetikoa daukaten deformazio, desdoitze, haustura, zulo eta bestelakoak konpontzea, nahiz eta edukiontziaren edo ontziaren erabilera normalizatua galarazi ez. Horri dagokionez, kontratistak bete beharreko gutxienekotzat jotzen da urtean behin gutxienez edukiontzien parke osoa berrikustea, eta konpondu beharreko edukiontzi eta ontzi guztiak konpontzea.

    - Itsasgarri, logotipo, diseinu grafiko eta legendak berritzea. Kontratistak ziurtatu behar du elementuok irakurgarri eta estetikoki bikain daudela une oro. Horretarako, elementu berriekin ordeztu beharko ditu, edo bestela –kasua zein den–, koloreak motelduta badaude, edukiontzi eta ontzietan eta jatorrizko diseinuari jarraituz, berriz margotu. Mankomunitateak elementu berriak entregatuko dizkio kontratistari, jar ditzan.

    - Era berean, Mankomunitateak hala eskatuta, lehendik zeudenez bestelako behar adina itsasgarri, logotipo eta legenda erantsi beharko die kontratistak edukiontzi eta ontziei. Mankomunitateak elementu berriak entregatuko dizkio kontratistari, jar ditzan.

    - Pintadak eta *graffitiak* ezabatzea, edukiontziaren osotasuna kaltetuko ez duten metodo eraginkorrei jarraituz.

- Edukiontziak nahiz ontziak une oro ondo identifikatuta daudela ziurtatzea, edukiontzi bakoitza zenbakizko kode bakarrarekin; eta horretarako:

    - Edukiontzi bakoitzari dagokion zenbakizko kodea identifikatuta eta ezabagaitz egotea, errotulazio, inprimaketa, identifikazio txapa, itsasgarri zein txip bidez, edo Mankomunitateak aurretik onartutako beste edozein metodoren bidez. Mankomunitateak behar diren elementuak entregatuko dizkio kontratistari, jar ditzan.

    - Aipatutako identifikazioa une oro irakurgarri eta operatibo mantentzeko, egin beharreko mantentze lanak egitea.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 77. orrialdea, guztira 80

Edukiontzien eta ontzien mantentze lanez eta kontserbazioaz deskribatutako gutxienekoak gorabehera, Mankomunitateak tankera bereko lanen beharra detektatzen zaien edukiontzi edo ontzi konkretuetan lan puntualak egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari, eta kontratistak lehenbailehen egin beharko ditu lanok (mantentze lana, konponketa, itsasgarriak berritzea eta beste).

Edukiontziak eta ontziak mantentzearen eta kontserbatzearen inguruan kontratistak dituen betebeharrak –gorago deskribatu ditugunak– beti aplikatuko dira, narriaduraren arrazoia gorabehera.

Kontratistak bere gain hartzen du edukiontzien eta ontzien egoera etengabe kontrolatu, zaindu eta erregistratzeko erantzukizuna; gainera, Mankomunitateari une oro emango dio zerbitzuan jarritako edukiontzi eta ontzien egoeraren berri, bai eta planifikatutako eta egindako mantentze eta konponketa lanen berri ere.

Atez ateko bilketa sistemetan instalatutako esekitokien kasuan, bide publikoko edukiontzientzat eta pila ontzientzat zehaztutako irizpide eta xedapen berberak izango dira aplikatzekoak, salbuespen honekin: Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek uste badute elementu bat konpontzeko piezaren bat edo gehiago aldatu behar zaiola, orduan Mankomunitateak jarriko ditu behar diren pieza solteak.

9.2.6 Edukiontziak eta ontziak jaso, lekualdatu, kokatu eta entregatzea

Edukiontziak, ontziak edo esekitokiak lekualdatu eta kokatu/entregatu behar diren kasu guztietan, kontratista arduratuko da behar diren unitateak dauden biltegiratze gunetik jasotzeaz.

a) EG, LG eta MG ekarpen guneetan eta bide publikoan kokatutako edukiontziak, eta pila ontziak:

Kontratu honen bitartez, kontratistak bere gain hartuko du zera ziurtatzeko erantzukizuna:

- Ekarpen gune guztietan, une oro behar beste edukiontzi egongo da kontratu honen xede diren zerbitzuak eman ahal izateko.
- Zerbitzuan dauden edukiontziek erabiltzeko egoera bikainean egon behar dute.
- Ez da egongo hirugarrenentzat arriskutsua izan daitekeen edukiontzirik (ibilgailuen zirkulazioa, oinezkoak eta beste).
- Bide publikoan obrak egiten dabiltzala eta, edo beste arrazoi batzuk direla eta, ez da edukiontzi bat ere egongo biltzeko edo normaltasunez erabiltzeko irisgarriak ez diren guneetan kokaturik.
- Ez da egon behar pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen edo galarazten duen edukiontzirik.
- Ekintza bandalikoak aurreikusten diren egunetan, bereziki gatazkatsuak diren guneetan ez da egon behar edukiontzirik.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 78. orrialdea, guztira 80

- Edukiontziek hondakinak sartzeko dauzkaten ahoak irisgarri eta erabilgarri egon behar dira une oro, eraikin, zutoin edo farola baten parean egoteagatik, edo beste edozein arrazoirengatik, irisgarri egotea galarazten dien inolako oztoporik gabe.

Horretarako, edukiontziak lekualdatu eta kokatzeko egin beharreko lanak egingo ditu kontratistak, eta kokatzeaz ari garenean, ulertu behar da edukiontzi bat lekualdatu osteko kokatze lanaz gainera, ekarpen gunea bera ere birkokatzeaz ari garela, hori egitea beharrezkoa denean.

Gutxienez, edukiontziak lekualdatu eta kokatzeko lan hauek hartuko dira kontuan:

- Behar berriak direla tarteko, edukiontziak kokatzea (erabiltzaileak gehitzea, etab.).
- Erabilera, istripu, ekintza bandaliko eta abarrengatik, edukiontziak hondatu direla eta, unitate berriak jartzea eta zaharrak kentzea.
- Obrak direla eta, edukiontziak aldi baterako lekuz aldatzea.
- Udaltzainen beharrak, segurtasun arrazoiak direla eta.
- Partikularren nahiz enpresen beharrak.
- Garbiketa bereziak.
- Jai, ospakizun, ekintza publiko eta antzekoei loturiko beharrak.
- Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoen iritzizi, edukiontziak aldi baterako edo betiko lekualdatu edota kokatu beharra eragiten duten beste arrazoi batzuk.

Horri dagokionez, kontratistak, lanegunetan ez ezik, jaiegunetan, larunbatetan, igandeetan eta beste edozein egunetan ere egingo ditu lekualdatze eta kokatze lanak, deskribatutako erantzukizunak betetzeko beharrezkoa bada.

Edukiontziak lekualdatu edo kokatzeko zeregin guztiak Mankomunitateak onartu edo agindu behar ditu aurrez.

Hirugarrenek (udalek, enpresek, partikularrek eta beste) eskatzen badiote kontratistari edukiontziak kokatu eta lekualdatzeko lanak egiteko, kontratistak Mankomunitateari jakinaraziko dio. Mankomunitateak kasua aztertuko du eta, egoki bada, edukiontziak lekualdatu edota kokatzeko lanak egiteko aginduko dio kontratistari.

Horri dagokionez, kontratistari ahoz, idatziz edo edozein bitarteko erabiliz (faxa, posta elektronikoa, gutuna eta beste) helarazten zaion abisua eskaeratzat joko da.

Mankomunitateak zerbitzuan dagoen edukiontzi bakoitzaren kokapena eta orientazioa zehazki lokalizatzeko sistemak ezarri ahalko ditu, hala nola piboteak instalatzea eta edukiontzi bakoitza edo bestelakoak kokatzeko eremua margotzea. Gainera, kontratistak, deskarga bakoitzaren ostean, zehaztuta dagoen eremuan zehatz-mehatz kokatu beharko du edukiontzia, orientazio egokiarekin eta Mankomunitateak emandako arauei jarraituz. Horri dagokionez, Mankomunitateak zehaztutako arauak edo sistemak betetzen ez dituzten edukiontziak jartzea kokapen desegokitzat joko da, eta horrek zigorrak ekarriko ditu.

Edukiontziak, bilketa bakoitzaren ostean, balazta sistemak eraginda kokatu beharko dira, tapa itxita eta, hala badagokio, eusteko gailua itxita.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 79. orrialdea, guztira 80

b) Atez ateko sisteman erabiltzen diren esekitoki, edukiontzi eta ontziak:

Atez ateko sisteman erabiltzen diren esekitokien kasuan, Mankomunitateak behar diren esekitokiak erosiko ditu, eta kontratistaren esku utziko ditu erreserban edukitzeko behar diren unitateak.

Hondatutako esekitokiak berritu behar izanez gero, kontratistaren erantzukizuna izango da behar diren unitateak –Mankomunitateak hornituko dituenak– jaso, garraiatu eta kokatzea.

Atez ateko sisteman erabili eta erabiltzaileei entregatzen zaizkien edukiontzi eta ontziei dagokienez, Mankomunitateak behar diren edukiontzi eta ontziak entregatuko dizkie erabiltzaileei atez ateko sistema ezartzen den aldiro, eta kontratistaren esku utziko ditu erreserban edukitzeko behar diren unitateak.

Edukiontziak edo ontziak berritu behar izanez gero, kontratistak beteko ditu atez ateko sistemaren ontzi eta edukiontziak bildu, garraiatu eta erabiltzaileei entregatzeko zereginak, Mankomunitateak gai horri buruz ezartzen duenaren arabera.

Baliozkotze Kod.: FHMC3YC26XPPT94RPDWFZYGTT
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 80. orrialdea, guztira 80